



Bakerako hezkuntza

Sufrimenduetatik ikasteko politika erantzi behar da



Irati Jimenezen bi ipuin opari

- **Larrun** Kontsumoa: prest al gaude gizarte eredua aldatzeko?
- **Benito Lertxundi**: «50 urte kantuan eta ospatu? Ergelkeria handiagorik!»
- **Roelf Meyer**, Apartheidaren gobernuaren negoziatzaile: «16 urtean ez da konpontzen 340 urteko mina»
- **Musika** Jendea manipulatzeko tresna isila
- **Patxi Baztarrika**: «Euskal gizarteak elebidun izan nahi du, ez bi komunitate bizkar emanda»

Eskuratu **Zumetak** ARGI Arentzat egindako lan-grafiko originala

 **argia**



EZAUGARRIAK

- Edizio limitatua
- Jose Luis Zumetak eskuz sinatutakoa
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 50x40 cm
- ARGIAko harpideek izango dute lehentasuna
- 160 €

ESKAERAK



943 37 15 45



gunea@argia.com



www.argia.com/denda

Zumetak



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Kortza.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



• **NON ZER** •

2010eko abuztuaren 1a, 2.241. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Ruper Ordorika:** «Shakirak bezala, aukerako hizkuntzan abesten dut nik ere». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- Doinuaren diktaduraz belarrietaraino. GORKA BEREZIARTUA / 5

Pertsonaia

- **Benito Lertxundi:** «Ez Dok Amairu denbora bat da, gaurdaino irauten du, jarraitzen du!». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Roelf Meyer, Hegoafrikako ministro ohia:** «Soluzioa badago Euskal Herrian». LANDER ARBELAITZ / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Ur zikinaren parabola. JOSE LUIS PADRON / 20
- Oporretako ikasgaia. AITOR ZABALETA / 21
- **Hiruko txikian** Tourmaletetik. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- Profesionalak eta amateurrak. OIER ARAOLAZA / 22
- **Txandan** Itsatsi. EDU ZELAIETA / 22
- **Zirtak** Bolo historikoa. PATXI ZUBIZARRETA / 23
- **Bertso berriak** Ilargi erdiko gaua. UXUE ALBERDI / 24

Erdiko kaiera

- Liburuen itzalpera doa erredakzioa. ARGIAKO ERREDAKZIOA / 25
- **Sagarren denbora.** «Oihuka beharrian, hobe zen historia hau xuxurlaka kontatzea». ALVARO HILARIO PEREZ DE SAN ROMAN / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 32
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 35
- **Ihesi Lanestosa (Bizkaia).** Estu, baina lasai. UNAI BREA / 36
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 40
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 41
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 42

Termometroa

- **Bakerako hezkuntza.** Alderdikerien azpian, sendatu beharreko zauriak. ESTITXU EIZAGIRRE / 43
- **Patxi Baztarrika:** «Elebitasunetik dator hizkuntza askatasuna gauatzeko aukera». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 48
 - Gogoeta-iturri. IÑAKI MARTINEZ DE LUNA / 51
 - Babelgo eskailerak. PELLO SALABURU / 52
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 54
- **Net Hurbil** Soroa biziarazteko zuhaitz adaxkak: BRF sistema. PELLO ZUBIRIA / 56

Azkena

- Hain utopikoa? BIXENTE SERRANO IZKO / 58



“Shakirak bezala, aukerako hizkuntzan abesten dut nik ere”

Ruper Ordorika | Ruper Ordorika

Txintxo portatu eta bueltak amari.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hementxe pajarue!

Agur esateko modua. Edo, nola den komenigarri argazki kamarako “txoritsuari” begira egotea, dotore ateratzekotan.

Wikipediaren arabera, euskal musikari berri-tzaile eta internazionalenetakoa.

Laudorioetatik Jinkoak anpara gaitzala, irai-netatik geu defendituko gara eta.

Zeinen erraz ahazten diren hasierako makila-kadak...

Gure sasoikook oso abilak izan gara autodefentsan. “Auto” berba guztiak erabili ditugu autoridadez: autokritika, autozentsura, auto-txoakeak, autonomia, autoretza, eta –nola ez!– makilakada automatikoak.

30 urte himno txikiak sortzen, edo kantu handiak.

Edo himno handiak eta kantu txikiak. Edo himno kantuak eta handi txikiak. Edo himno himnoak eta kantu kantuak... Musikak liber-tate handiena ere txiki du.

Marka, behintzat, sortu duzu: Ruper Ordorika™.

Bai, baina ahaztu nuen markari .com delakoa gehitzea, eta orain beldur naiz, Ruper Ordorika™ horren aipamena ez den ailegatuko Txirritaren “beste lauorgeri urtetara”.

Jarri labandaria bat, furgoi beltza eta hortxe duzu kantua.

Kantua bera ere ideia handietara etengabe

lerratzen denean egunerokoaz ahazteko joera hartzen du. Jendearengandik urrun, urrun.

Hala ere, bizikidetza jokoan eta zu bertso tti-kietan...

Orain udan, jaialdiak, hondartzak, tirantedun kamisetak, frakatxoak... zein urrun diren bizikidetza eta enparauak! Neguan erantzun-go dizut zehatzago.

Lendakaris Muertos-ekoei dioten bezala: gafapastak, nahikoak dira Ruperrenak?

Bai, horrelako zer edo zer esaten dute baina erdaraz eta errima kontsonantean.

Lentilarik jartzea ez duzu pentsatu, beraz.

Lekeition ume antiojodunei *diputadu* esaten diete... Ezta burutik pasatu ere horrelako “kargu” bati uko egitea!

Eskerrak inork ez duen koblakaririk behar!

Horregatik hasi behar izan dut bertsolaritzan gai-jartzaile!

Sigues cantando exclusivamente en euskera.

Horretan bai, asmatu duzu. Galdera hau beti erdaraz egiten didate. Eta bai, nik ere, kantari normalak bezala, Raphaelek, Brucek eta Shakirak bezala, aukerako hizkuntzan abesten dut.

Inork ez zigun esan euskaldun izatea erraza zenik.

Pentsa, zelako galderak erantzun behar diren euskaldun izateagatik! ■

Musikaren boterea

Doinuaren diktaduraz belarrietaraino

Pare bat akorde entzutea aski da sarri, emozio berezi hori sentitzeko. Musika da, eta kanta gustukoa izan ala ez, portaera aldatzen digu, poztu, tristetu, lasaitu, bizkortu. Inoiz baino abesti gehiago belarriraten dugun honetan ordea, ez diogu gure buruari galdetzen zergatik maite dugun halako ala bestelako doinua. Nolako erabilera soziala duen musikak. Zein harreman duen boterearekin. Zer egiten ahal dugun botere horren aurrean.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco



EDOZEIN ASTELEHEN Lasarteko erdialdeko taberna batean. 1:35 PM. Lau kazetari, bi mekanikari eta erretiratu bakartia bazkaritara-ko. Ofizio ezezaguneko bizpahiru pertsona barran. Edalontzi, botila, plater hotsak, “*avance, uno, dos*”, txanponak, txiskero bat, sua, eztula, solasak, gosez denaren sabel-orroak; eta dena besarkatzen, barnebiltzen, zapaltzen, itotzen, musika bat: telebistako 40 Latino katekoa, ozen, frankotiratzaileen maneran paratutako bafleetatik. Ez du inoren arretarik deitzen, baina kanpoan hotz zein bero musika hori, jai eta aste, ez da isiltzen.

Astelehen konkretu batean bolumena baje-tzeko eskatu diogun arte, sekretu bat musikaren erruz ozenegi kontatuko dugun beldur. Baita kasu egin ere. Egia esan, dio tabernako langileak, ez zeukan zentzu handirik, ez, musika hain altu edukitzeak. Eta orduan, zertarako? Behin ahapekoak botata, horri buruz jardun dugu; ez baita taberna hau bakarrik. Arratsaldean trena hartuko duzu eta pareko nerabeak kaskoak jantzita eramango ditu, zorrotz distorsionatutako gitarrek ezabatuko dizkiote bagoiko soinuak; afaria prestatzen hasiko zara gero, etxera iristean, baina ez zara eroso egongo irratia piztu eta edozein doinu nahastu arte zartagineko olio txinpartekin; eta konturatzera abuztua, jaiak han eta hemen, eta txosnetako letania, 1980ko hamarkadako kantak hizketarako oztopo; ezinbestekoak dirudite jendea girora hurbiltzeko.

Dena inguratzen du musikak, nonahi sartzten da, gutxien espero duzun espazioa okupatzen du. Inoiz baino kanta gehiago entzuten ditugu XXI. mende hasieran, baina, zergatik? Zer dela eta melodia, erritmo eta armoniarekin daukagun dependentzia? Zein da musikaren zeregina gure gizartean? Beharbada txantxa hutsetik harago joan da The (International) Noise Conspiracy talde suediarren izena, eta benetan existitzen da Nazioarteko Zarata Konspirazio bat, herritar-rrak dominatzeko? Zeintzuk dira musikaren erabilera politikoak? Nola manipulatzeko gaituzte belarrietatik sartzen zaigun horrekin?

Zer gerta ere, ahapeka jarraitu dugu berbetan. Gaia ikertu behar da eta niri eman didate enkargua. Misioa.

Top Guantanamo

Matrix filmean bezala sentitzen naiz: badakit musikari buruzko orain arteko pertzepzioak auzitan jarri behar ditudala, baina ez dakit nondik jo. Erantzunak behar, Morpheusen pilula gorri bat, ongi etorri errealtatearen basamortura. Hitzordua zenbait egun beranduago da, Donostiako Artelekun, Xabi Erkiziarekin. Audiola soinu laborategiko zuzendaria da; handik atera zen 2009an *Noise and*

Capitalism (Zarata eta Kapitalismoa) liburua, sistemak soinuaren bidez gure praktikak eta subjektibotasunak nola baldintzatzen dituen aztertzea helburu duen obra. Kafe baten bueltan eseri aurretik aurreratua dit esparru arrunt zabalera ari naizela hurbiltzen, tekla asko jo daitezkeela, eta agian ez dudala topatuko bilatzen ari naizen hori. Hasteko, beste alorrekin alderatuta, musikaren funtzionaltasuna ez delako sobera ikertutako esparrua. Erkiziaren ustez, beldurra dago gaia ukitzeko.

Musika jendearen portaerak manipulatzeko nabarmen erabili denean ere, galdera batzuk egin gabe geratu dira. Adibidez, duela urtebete inguru zabaldu zen hedabideetan AEBek Guantanamo presoak torturatzeko musika erabili zutela. AC/DC, Bruce

**Musikaren funtzio sozial
nagusienetakoa identifikazioa da.
Komunitate jakin baten barruan
norbere burua kokatzen
laguntzen du**

Springsteen, Rage Against The Machine, Red Hot Chili Peppers... Hainbat artistek protesta egin zuten eta euren kantak zeregin horretarako ez erabiltzeko eskatu. “Baina inork ez du galdetzen zergatik erabili duten nire musika horretarako, eta ez beste bat” dio Erkiziak. “Akaso nire musikak ba ote du potentzial bat erabilera horretarako, beste musika batek baino gehiago? Zergatik du potentzial hori? Ez dago autokritikarik, musika egiten dugunean inoiz ez dugu pentsatzen erabilera txarrik izan dezakeenik”.

Eta torturarena muturreko adibidea da. Baina horraino iritsi gabe ere, aspalditik erabiltzen da musika manipulazio erreminta gisa. Erkiziak azaldu du 1940ko hamarkadan Muzak kontzeptua asmatu zutela, ospitaleetan eta espazio publikoetan hari musikalekin doinu lasaiak eskainiz jendea bare-bare mantentzeko. Ikusi zuten horrek bazituela funtzionaltasun garbi batzuk, eta hamarkadaz hamarkada, garatzen joan dira.

Non soinua, han dirua

Baita esparru komertzialera lerratzen ere, manipulazio musikala gaur egun kapitalaren beharretara makurtuta baitago. Supermerkatuetan ez dute musika bera jartzen irekitzean edo ixtean, denda motaren arabera, erosle potentzialaren arabera, aldatu egiten da ez bakarrik estila, baita bolumena ere. Lasarteko tabernan sortutako galderak aurkitu du aurreneko erantzuna: dirua. “Gezurra dirudi,

baina musikak sekulako harremana du ekonomiarekin. Azkenean, zarata dagoen lekuan dirua sortzen ari da” dio Erkiziak.

Liburu bat aipatu du, Jacques Attali 1977an idatzia: *Bruits* (Zaratak). Musikaren politika ekonomikoa aztertzen du bertan pentsalari frantziarrak. Eta liburu horretatik abiatuta azaldu du, zaratak badaukala gaitasuna zerbait martxan jartzeko. Adibidez, gure tabernako zerbitzariak 40 Latinoren erritmoa behar du bere lana egiteko; eta, bestetik, ez zaio komeni lau kazetari mahaian eserita egotea bi ordu baino gehiagoz. Bazkariak zerbitzatzeko orduak mugatuak dira, mahai kopurua ere bai. Tresna ona da musika, espazio eta denbora horien kudeaketa optimizatzeko. Eseri, Shakiraren metronomoak ezartzen

Tresna ona da musika espazioaren eta denboraren kudeaketa optimizatzeko. Tabernan eseri, Shakiraren metronomoak ezartzen duen erritmoan jan, eta alde: mahaia libre dago hurrengo bezeroarentzat

duen erritmoan jan, eta alde: mahaia libre geratzen da hurrengo bezeroarentzat. “Hala ere, ez dugu pentsatu behar tabernaren jabea putaseme bat denik... baina erabilera hori hor dago, eta funtzionatzen du. Eta batzuetan inkontzienteki eragiten digun bezala, espazio horiek kudeatzen dituzten pertsonak ere inkontzienteki erabiltzen dute musika. Baina badu funtzionaltasun bat”.

Heroina sonikoa?

Musikak bazkalorduan bakarrik manipulatuko bagintu, ziurrenik ez guke erreportaje hau idatziko. Askoz sakonagoa da haren eragina. Musikaren funtzio sozial nagusieneta-



Buruari eragiteko moduko galderak jarri dizkigu Xabi Erkiziak mahai gainean: “Norbaitek pentsatu al du inork musika bat sartu ote duen hemen, konkretuki, momentu jakin batean, komunitate bat modu batera moldatzeko?”.

koa, Xabi Erkiziaren aburuz, identifikazioa da. Komunitate jakin baten barruan norbere burua kokatzen laguntzen du. Maila sozial eta kultural batekin, gizarte estatus batekin lotzen ahal dira pertsona bakoitzaren gustuak, eta merkatuak badaki hori. Gaur eguneko kapitalismoa ez baita diruaren eta objek-



Txomin Etxaniz

TXAKOLINDEGIA

txakoli@txominetxaniz.com
Tel.: 943 14 07 02 • Getaria

tuen zirkulazio hutsa: kapitalak zentzumenen eremua ere ezagutzen du; hautematea, hunkidura erabiltzen daki.

Howard Slater-ek *Noise and Capitalism* libururako idatzi duen artikuluan azaltzen du pertzepzioa automatizatzen ari garela, ohitzen. Eta ohitura horiek gero kontsumo-produktuak eskaintzeko oso baliagarriak dira. Etsenplu bat eman du Erkiziak: nerabezaroa. “Zuk ez duzu entzuten gustatzen zaizun musika, zuri gustatu beharko litzaizukeen musika baizik, zure inguruari gustatuko zaiona, zure janzteko moduak markatzen duenarekin bat datorrena; nola-bait, zure nortasuna sozialki markatzen duen musika”.

Hori jakinik, galdera arrisku-tsuagoak ere jar daitezke mahai gainean. Egin dezagun analogia bat, Euskal Herrian 1980ko hamarkadan heroinarekin gertatu zena abiapuntu. Demostratu samarra dago bazegoela intentzio bat droga hori hainbat lekutan sartzearen atzean; gazteak kontrolatzeko sartu zietela opio-zukua zainetan barrena. Erkiziaren itauna: “Norbaitek pentsatu al du inork musika bat sartu ote duen hemen, konkretuki, momentu jakin batean, komunitate bat modu batera moldatzeko?”.


Ze, musikak politikoki erabiltzen dira. Identitateak indartzeko, talde-sentsazioa areagotzeko, baliatzen dira. Hori jakinik, nolatan ez gara eszeptikoagoak entzuten dugunarekin? Zein puntura arte aukeratzen dugu entzuten dugun musika? Ez al gara errazegi mugitzen eragin jakin batzuen arabera? Erkiziaren ustez galderok ez dira egiten jende askori eragiten dietelako: musikariak, entzuleak, soinu-teknikariak, kultur-programatzaileak, aretoen jabeak, tabernariak, zerrenda amaigabea: “Industria sartzen da, ekonomia, kontsumoa... Musikak horregatik du egoera historikoak islatzeko gaitasuna,

kapaz delako gure jokabideen alderdi mordo bat biltzeko, ukitu ezin den gauza batean”.

Iraultzaren soinu-banda

Baina historia ez da gertakari lasaien kateaketa. Gatazkak daude, aldaketa bortitzak, iraultzak. Kapitalismoak musika nola erabiltzen duen ikusi dugu, baina izango da modurik tresna bera errotiko aldaketaren zerbitzura jartzeko ere... ala ez? *Noise and Capitalism* liburuari egin dion sarreran Anthony Iles idazle eta editoreak zera dio: “Musikak ezin dio ihes egin erosotasunari, eta musikariak ezin diote ihes egin kapitalaren berehalako eskakizunei (beraierlan indarra saltzea). Egungo baldintzek egituratzen dute zein musika mota egin daitekeen eta nork egin dezakeen, baina musika bada, era berean, kultur forma bat existitzen diren baldintzen kontra erreakzionatzeko eta gainditzen saiatzeko”.

Punkak, new waveak, hardcoreak... hori egin nahi izan zuten, soinuaren bidez gizar-tearen zimenduei eraso. Garaian garaiko iraultza posiblearen soinu-banda izan ziren; erreka jo zuten iraultzak, bistan denez. Gaur egun, jostailuzko pistolen antzekoak dira estilo horiek, sistemak irentsi ditu eta galdu dute behin izan zuten potentzial eraldatzailea. Mende hasiera honetan zerbait aldatu nahi duen musikak bestelakoa beharko du izan, baina nolakoa? Aipatutako liburuan Csaba Tothek dio estilo horien ezaugarri amankomuna zera zela: ahotsa erdigune bihurtzea, mezu politizatuaren eroale. Abeslaria entzuleen ordezkari bihurtzen zen, eta haien egia kontatzen zuen mikrofonotik. Noise musikak —ingelesez zarata esan nahi du— ez du halako helbururik eta horregatik da interesgarria gizarte post-industrialetan: artistaren estatusa deseraiki nahi duelako, baita entzulearena eta musikarena ere. Generoa sortu zen garaiaz



Artelekuk 2009an argitaratu zuen *Noise & Capitalism* liburua. Hainbat egileren artikulua biltzen ditu, soinuak gure garaiko gizartearen betetzen duen rolaz pentsatzeko gonbidapen ugari.



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

berba egiten du Tothen tes-tuak: "Noise musikari iza-teak esan nahi zuen egunero-ko jarduera subertsiboa, gerrilla taktika, etengabeko posizio-gerra". Esperimen-tatzea, hitz bakarrean.

Puntu hori azpimarratu du Xabi Erkiziak ere. Bere ustez zaila da jarrera garbi bat hartzea inguratzen gai-tuen musika guztiaren aurrean, ze, batzuetan gogai-tu egiten gaituen arren, festa-rako ere erabiltzen dugu, lasaitzeko, kontzentratzeko... "Esperimentu txikiak" egin daitezkeela uste du ordea, eta horiek egiteko espazioak sortu beharko lirake. Adi-bidez, San Fermin jaiak urte batean musikarik gabe egi-tea. Edo, ohiko kanten orde-z, txistu batekin eginda-ko piezak bakarrik jartzea.

Halere, Erkizia bat dator Ilesen ideia nagu-siarekin. Musikak bere horretan ezin du ihes egin kapitalismoaren atzaparretatik eta ez da erraza aldaketa posiblerako teoria orokor bat eskaintzea. "Etengabe esperimentatzeak esan nahi du egia bilatu nahi hori alde batera uztea; horrek nolabait suposatzen du musika egitearen oinarria bera zalantzan jartzea. Eta hori inork ez du zalantzan jartzen".

Zalantza horietan murgildu zirenen artean, izen bat, John Cage. Soinuarekin egin zituen ariketa amaigabeen artean, musika desagerra-raztea izan zen erradikalena. Estetikari arreta eskaini ordez, entzumenari eman zion garran-tzia AEBetako konposatzaileak. Horren bidez, ikertu nahi izan zuen gure baldintza kulturalak nola eragiten duten entzuten dugu-na deskodetzeko moduan. "Gaur egun bada-go haren figuraren aldarrikapen moduko bat,



Kontuz oinezkoekin, ez pasa orduko 30 kilometrotik eta ezta pentsatu ere klaxona jotzea. Batzuetan soinu arautua dago.

baina berak planteatu zituen gauza batzuek orain dela 50 urte bezain deserosoak izaten jarraitzen dute".

Soinuaren balioa

Eta musika alderdirik ageri-koena baino ez da. Izebergaren punta ikusten saiatzen ari gara, baina ur-azalaren azpian ezkututzen da muns-tro handiena. Erkiziak dio ez dela garai txarra kontu haue-taz pentsatzen hasteko. Orain arteko musikaren kontsumo ohiturak aldatzen ari dira, eta horrekin batera zalantza berriak plazaratu daitezke soinuaren balioaz. Hau da: kanten kontsumoa desagertzen ari bada, musika doan eskuratzeko aukera badugu, ez al da une apro-po-sa musika bakoitzaren bene-tako balioaz pentsatzen has-teko?

Eta jada ez ginateke ariko musikari buruz bakarrik: "Frekuentzien ikuspuntutik aztertzen hasiko bagina, konturatuko ginate-ke badagoela soinu mordo bat gure espazio publikoan, funtzionaltasun garbi batekin".

Artelekutik atera naiz. Autoaren motorra, CD hori, gupilak asfaltoaren gainean, dena da diferente. Dena zalantza. Berriz entzuten ikasi behar. Soinuak zerbait estaltzen du, beharbada egiaren bat.

– Zein egia?– galdetzen zion Neok Morpheusi *Matrix*en.

– Esklaboa zarela. ■

argia.com Jacques Attali aipatu digu Xabi Erkiziak erreportaje honetan. 1983an ARGIAK elkarrizketa egin zion, *Bruit*s liburuaaren harira. www.argia.com/argia-astekaria/978/musika-zarata-boterea-helbidean-irakur-dezakezu.

korrontzi

Zuzeneko berria, **INFERNUKO HAUSPOA** ikusizuna
(korrontzi & oinkari dantza taldea)

2010/01/02 DONOSTIA (DOKA - KULTURA LIVE)

2010/02/16 ERMUA (ORBE KARDINALAREN PLAZA)

2010/02/27 BERMEO - IBILALDI JAI (FRONTOIAN)

2010/05/02 NESLE - FRANTZIA (FESTIVAL NUITS CELTIQUES)

2010/05/14 DONOSTIA (MIRAMON - ETB)

2010/05/16 BEASAIN (PLAZA)

2010/05/22 ORAZO - PONTEVEDRA (MANGUELO FOLK JAIALDIA)

2010/05/28 SODUPE - GÜENES

2010/06/25 TERUEL (POBORINA FOLK)

2010/06/29 SEGOVIA (FOLK SEGOVIA JAIALDIA)

2010/07/02 ONDARA - VALENTZIA

2010/07/18 REGUENGOS DE MONSARAZ - PORTUGAL

2010/07/21 VALLS - TARRAGONA (PLAZA)

2010/07/22 VILA REAL DE SANTO ANTÓNIO (ALGARVE) - PORTUGAL

2010/07/23 GATIKA - BUTROI

2010/07/24 ALFANDEGA DA FÉ (TRAS OS MONTES) - PORTUGAL

2010/07/25 VILLABONA (ERREBOTE PLAZA)

2010/07/31 OLOST - KATALUNIA

2010/08/09 HUESCA (FOLK IBERICO JAIALDIA)

2010/08/11 AZORES (LARGO CARDEAL COSTA NUNES)

2010/08/13 ZARAUTZ (PLAZA)

2010/08/26 LAUDIO (PLAZA)

2010/08/29 BERRIOZAR - NAFARROA (PLAZA)

2010/09/11 CASTRO VERDE (ALENTEJO) - PORTUGAL

2010/09/24 BASAURI (SAN MIGUEL)

2010/10/10 SEGURA (34. EUSKAL HERRIKO DANTZA TXAPELKETA)

2010/10/31 SAN ADRIAN - NAFARROA

2010/11/12 IRURTZUN - NAFARROA

2010/11/19 LEKUNBERRI - NAFARROA

2010/11/20 CASTEJON - NAFARROA

2010/11/21 ELIZONDO - NAFARROA

2010/12/08 DURANGOko AZOKA (PLATERUENA)

KONTRATAZIOA ZABALIK

Baga-Biga musika bulego integral eta globala

618072076 / 026

baga-biga musika ideiak

telef. 618 072 076 / 026

www.baga-biga.com/ / info@baga-biga.com

«Ez Dok Amairu denbora bat da, gaurdaino irautendu, jarraitzen du!»

45 urte daramatza kantari, euskal kantagintzaren izen handietakoa egina. Bide luze horretan, hamaika disko ditu eginak, beraren gaineko liburuak argitaratuak ere badira, eta hainbat eta hainbat elkarrizketa, erreportaje, bideo eta gainerako ageri dira bateko eta besteko hedabideetako hemeroteka orrietan eta ARGIA aldizkarian bertan ere. Hala ere, berarengana jo dugu, orain artean jaulki ez duen perlaren baten bila.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Trinitate plazan emanaldia egin berria zara, Donostian, ekain hondarrean...

Bizpahirutan zorte txarra ere izan dut Trinitate plazan. Zerupearan denez, eguraldiak agintzen du. Gertatu izan zaigu kantuan ari ginela euria hastea, emanaldia geratu behar izatea, atertzea, berriz kantari hastea... Baina eguraldia lagun denean, eta plaza betea, leku polita da, gustu handikoa. Atmosfera kokkerotik ere badu, kresala ere senti liteke han... Musika tradizio handiko lekua, dudarik gabe. Aurreko larunbateko [uztailaren 3an] emanaldia dela-eta, eguraldi iragarpenak entzun ondoren, kontzerturik ez genuela egingo konbentzituta irten nintzen etxetik. Hasiko ginela, bizpahiru kantu egin eta geratu beharra izango genuela... Arrisku hori zegoelakotan. Baina eguraldia portatu zen, tenperatura egokia izan genuen, eta euri tantarik ez.

Nola bizi dituzu inoren emanaldiak, alegia, zu entzule zarela?

Kasu bat kontatuko dizut. Victoria Eugenia zen, Donostian, Leonard Cohen entzutera joanda. Beti izan naiz haren zalea. Egin zuen kantaldia, oso ongi egin ere, bukatu, eskatu genion "beste bat", kantatu zizkigun bizpahiru, eta benetan bukatu zuen orduan. Ondoren, gure lagun Jose Anjel Irigarai Cohen agurtzera joan zen, eta zoriontzera. Bada, Cohenek: "Ez dakit zer zuen publikoak. Lo zegoela ematen zuen. Ez zait batere gustatu!". Irigarai, denak loriatan egon ginela, malkotan, barnean dastatzeko kontzertua izan zela eta hau eta hura. Cohen ez zen jabetu jendea

oso gustura egon zela. Bera haserre zegoen, transmititu ez zuelakotan. Kanpotik era batera ikusten dira gauzak, barrutik beste era batera.

Liturgia hitza erabili duzu arestian...

Kontzertua liturgia bat da, bistan da. Lehenengo, jendea jabetu egin da halako lekutan halako garaitan kontzertua dagoela. Aukera egiten du: "Nik emanaldi horretara joan nahi dut". Ondoren, txartela ordaintzen du eta, beraz, kontzertua erosten du. Gero, antzokian sartzen da, eta sartzen den orduko agertokia ikusten du, era jakin batera antolatua, eta non jarriko den aukeratzen du. Jarri eta inguruari begira hasten da, bozgorailuak eta beste, eta kantariak nondik irtengo diren, non eta nola jarriko diren irudikatzen hasten da bere buruan... Hori dena kontzertua da, kontzertua hasia dago! Kantaldira joateko aukera egin duenetik hasi da kontzertua! Antzokian, emanaldia hasten da, hasten da

Nortasun agiria

Benito Lertxundi (Orio, 1942). Eta ba ote da inor Orioko kantariaren berri ez duenik? Haren emanaldietan hunkitu ez denik. Beraren kantaren bat baino gehiago hasi eta buru ikasi ez duenik. Kritikatu ez duenik. Maite ez duenik. Ibilbide zintzo koherenteari zor zaion merezimendua ukatuko dionik. Oraindik ere haren emanaldietara joateko prest, pozik ez dagoenik. Horretarako kilometroak eta kilometroak egingo ez lituzkeenik. Era batera edo bestera miresten ez duenik...

A portrait of Benito Lertxundi, an older man with grey hair and a beard, wearing a light green short-sleeved button-down shirt and blue jeans. He is sitting with his hands clasped over his knees, looking directly at the camera. The background is dark, and the lighting is soft, highlighting his features. The text "Benito Lertxundi" is written in a blue, sans-serif font in the upper right corner.

Benito
Lertxundi



Zirkulua

“Erritual bat betetzen da kantaldian, bere liturgia eta guzti, eta, emanaldia bukatutakoan, argiak piztu direnean jaiki eta irteera aldera egiten du jendeak. Eta, askok egiten duena —obserbatu dudalako dakit, jendearen jarrera interesatzen zait eta—, atzera agertokira begiratzen du, han inor ez badago ere! Horixe da emanaldiaren liturgia, zirkulu oso hori bete behar da”.



bidaia, ibilaldia. Amaieran, ez dio axola non hasi garen, zein kanturekin, gogoratzeak.

Berdin al da Donostiako Trinitate plazan larunbatez gaueko 10etan kantatzen, edo Zangozako zinema-aretoan arratsaldeko 8etan?

Ez, ez. 45 urte daramatzat kantari, eta zinez esaten dut ez dudala inoiz esperimentatu bi kontzertu berdín egin ditudanik, inoiz gauza bera sentitu dudarik. Kontzertu batetik bestera, hil eta birjaio egiten naiz. Kontzertu bat amaitu eta inoiz emanaldirik egin ez banu bezala prestatzen naiz hurrengo kantaldiari begira. Erabat berritzen dut grina, indarra. Eta Donostian nahiz Zangozan, lekuak eta beharrak ezberdinak izan arren, guk gauza bera egiten dugu beti: emozioak dantzan jarri. Ez dugu besterik egiten.

Zangoza baino hegoalderago, Erribera. Herri behera, Herri behera, zure landen zabalera, ortzi muga den hartan mugatzen da...

Ez Dok Amairu garaian egin nuen. Erriberan, Tuteran, emanaldia nahi omen zuten; jota kantariekin batera euskarazko kantaria. Eta abiatu nintzen, gitarra hartuta. Erriberriko gaztelua pasatu, inguruari begiratu eta paraje hura behin ere ikusi gabea nintzela jabetu nintzen. Tuteran, kantaldian, joteroak kantari, eta ni ere han. Oso arrotz sentitu nintzen, *Ilunpetako gizona*, *Loretzxo*, *Zenbat gera...*

kantatzen. Azkena kantatu eta, gogoan dut esan nuena: “Hurrengo batean nik ere kantatuko dut jota bat, euskaraz, nire hizkuntzan”. Promes egin nuen, nahi baduzu. Eta handik pixka batera, egin nuen. *Herri behera*.

Atarratze jauregian bi zitroin doratü... Hein batean, zeuk ekarri zenuen Zuberoa Hegoalde honetako askoren gogo-bihotzetara.

Bai, baliteke... Uztailearen amaierako bilera bat zen Ez Dok Amairurena. Han edo hemen, beti entzuten nuen Zuberoari buruz zer edo zer. “Zuberoa ezagutu behar diat!”, pentsatu nuen. Ordura arte, Zuberoa herrixka bat zela uste nuen, ez besterik. Eta eskualde bat izan! Hantxe ibili nintzen. Ordurako banituen zenbait kanta emanaldietan jotzen nituenak, Azkue, Aita Donostia edo Salaberriren liburuetatik hartuak. *Atarratze jauregian*, *Jaun baruak*, *Maria Solt...* Zuberoa udatiarrez bete ikusi nuen. Hala ere, Ligin ganbera bat eskaini zidan Iruñeko emakume batek, herriko Hotel Touristique-ko nagusietako batekin esposaturik zegoena. Hark ezagutu, eta berak eskaini zidan lekua. Bada, gauero ostatu hartara biltzen ziren bertako kantari zuberotarrak: Zuburu, *Napo* Etxekopar eta besteren batzuk. Eta hantxe ni ere, gitarrarekin, eta *Atarratze jauregian* kantatu nuelarik, adibidez, harrituta begiratzen zidaten. Ea nondik sortu nuen kantua! Beren memorian galduak zituzten nik kantatzen nituen kantu zuberotarrak!

Kantua baino areago, garrasi politikoa besterik ez zen izan aldi bateko emanaldia. Franco hil eta ondoko garaian, batik bat. Sasoi latza izan zen zuretzat.

Momentuko errebindikapen politikoari lotuta bizitzerik ez dago. Txalo merkea jasotzea ez da luzea. Niri ez zitzaidan giro hura gogoko. Belodromoan, 24 Orduak Euskaraz jaialdia egin zenean, ni azaldu eta txistuak! Ez nuen pentsatu niri ari zitzaizkidanik txistuka. Uste nuen guardia zibilak edo polizia sartuak izango zirela, haiei ari zitzaizkiela! Niretzat zirela jabetu nintzenerako, “eta zergatik ari zaizkit txistuka?”, galdera neure buruari... Panfleto moduko kantu asko izan zen jaialdi hartan, “aupa eta gora eta irabazi dugu” gehiegi. Kontsigna haiek aditu eta “galdu diagu!”, pentsatu nuen nik. *Amodiozko poema*, *Orbaiztako arma olarena*, *Askatasunaren semei*, *Jaun baruak*, *Maria Solt...* ari nintzen kantatzen jaialdi hartan, artean grabatu gabeko materiala, nik ontzat emana ordurako. “Zer diagu? Orain arte hemen entzun ditugun kantu guztietan, neureak dituk onenak!”, pentsatu nuen. “Gure Herri hau erabat erotu duk, ala hau ez zoak oso urrutira!”. Eta, zorionez, bigarrena gertatu zen, hark ez zuen luze jo. Nik uko egin



nion garrasia besterik ez zen jaialdi haietara joateari. Hala ere, nola edo hala behartu egiten ninduten, liturgia hark sakrifizioko bildotsa behar zuelako, inondik ere. Neu nintzen bildots hura. Pospoloz betetako liturgia hartan, ni irten eta txistua pizten zen, ez pospoloa. Are gehiago, jaialdian azkena izaten nintzen kantatzen. Liturgia berriz ere. Horrela diseinatzen zuten kantaldia antolatzaileek! Ultzera ikaragarria sortu zitzaidan [erpurua eta hatz erakuslea bildu eta biribila osatu du, ultzeraren tamaina adierazteko]. Ebakuntzagelatik pasatu behar nuela esan zidaten. Pilulak ere agindu zizkidaten, merkatura atera berriak. Nik akupunturara jo nuen, Donostian, argentinar batekin, eta lau hilabetearen sendaturik nengoen, ez ebakuntza-gela, ez pilula. Hori zor diot garai hari. Gerratik etorrita bezala itzultzen nintzen kantaldi haietatik.

Ultzera hura ez ezik, ondotik etorri zen diskoa (Zuberoa) garai hari zor diozu, tarteko isilaldi, gogoeta eta lan handiari. Zure ibilbidea markatu duen diskotzat jo izan dute.

Nire lehenengo kantuen bidez, jendea Zuberoara joaten hasi zen. Hegoaldetik, alegia. Inarroste bat gertatu zen. Mugimendua. Eta kantu batek mugimendua sortzen duenean, jakin-mina eragiten duenean, indarra duela adierazten du. Orbaizetara bezala. Jendea arma-olara joan eta etxera eramanez dituen harriak, erlikia! Nik ezagutu nituen Orbaizetako olak, eta handik urteetara ikusi nuenak ez zuten deus ikustekorik. Nik ezagutu nuen eraikina eroria zegoen, baina urteetara, are galduago, jendeak harriak eramanez zituen eta etxera! Autobuskadak joaten ziren, erromesaldian! Gertatu da Baldorbarekin. Behin, joan gara Iruñera, kantaldi baten aurkezpen edo zerbaitegitera, eta kazetariaren galdera: “Izan zara aspaldi Baldorban?”, “bada, ez!”. “Joan beharko zenuke, zeharo aldatua dago, eta zurea da errua!”. Nonbait, hango ostatu, landa-turismo eta gainerakoak! Eta web orrian ere, nire kantu hura jarria dute. Hori

Joan den uztailen, Donostiako Trinitate plazan eskainitako kontzertua.

Kritikak Zuberoan

“Zenbait dogmatiko atera ziren plazara, kantuak aldatu nituela, ez nuela haien ü hotsa behar bezala ematen... Kritikak, denengatik. Orain dela urte batzuk, kantaldia Barkoxen. Zuberoako kanturik ez nuela kantatuko deliberatuta joan nintzen. Kantaldia egin, eta bukatu zenean, jendea eske: ‘Maria Solt!’, ‘Atarratze!’, ‘Jaun baruak!’... Asmorik ez nuen, baina sei-zortzi kantu kantatu behar izan nituen, bertakoak. Horrela dira gauzak”.

du kantuak. Kantuak zerbaite mugiarazten duenean, unibertsal bihurtzen da.

Krishnamurti eta Benito Lertxundi.

Aspaldi irakurri nuen Krishnamurti, eta denbora da berriz hartu ez dudala... baina bat egiten dut harekin gauza askotan. Har ditzagun filosofoak, adibidez. Berak dioenez, filosofoak ispilu bat eskaintzen dizu, zuk zeure burua ikus dezazun. Inportantea ez da ispilua, zu zeu baizik. Zure filosofoak horretan lagundu badizu, ondo da, nahikoa da, jo eta bota ezazu ispilu hori harrika, piztu da zugar piztu behar zuenak, zu zeu zara gauzei igarriko diezuna. Krishnamurti hor dago, baina hura orain berriz irakurtzea ez dut pentsatzen. Nahiago dut paralelismoak bilatu, beste pertsonaiaren batzuen lanak irakurri. Esate baterako, Pessoa. Orainxe badituz hiru olerki, musikatzeko ari naizena. Arima bizkia ikusten dut Pessoa. Oso gauza politak esaten ditu. “Nik ere horixe esango nikek, baina esan zian honek eta alferrik jardungo nauk ni bestela esaten!”. Pessoa ez da Krishnamurti, baina baditu paralelismoak. Niri gustatzen zait baten olerkietan dagoen bestearen usaina aditza, Pessoaaren obran dauden gauza inteligente eta interesgarriak aurkitzea, alegia, gauza inteligente eta interesgarriak nahi ditut eta nire kantuan.

Zeuk daramazu Ez Dok Amairuren lekukoa.

Kantatzen segitzen duen bakarra naizelako?... Ez Dok Amairuk ez zuen egin errektoreari pospoloa jarri besterik. Garai hartako Euskal Herri lokartu, beldurtu, zokoratu hartan argia piztu zuen. Jendea idazten hasi zen, antzerkia egiten, hau eta hura egiten. Ez Dok Amairuk hainbat gauza jarri zituen martxan. Ez Dok Amairu ez da talde bat, mugarri bat baizik. Inoiz entzun dut, eta gustatu zait, “Ez Dok Amairu baino lehen, Ez Dok Amairu eta gero...”. Ez Dok Amairuk garai bat markatzen du, aro bat. Berdin. Ez Dok Amairu denbora historiko bat da. Ate bat. Pospolo



AZKEN HITZA

Ospakizunak

“45 urte daramatzat kantuan, bai. 50. urteurrena ospatuko dudan? Nik ez dut ezer ospatzen, ezta nire urtebetetzea ere. Ospakizunen batean ikusten banauzu, konplimentuz joan naizelako izango da. Ez dut mundu honetan ezer ospatzekorik ikusten. Nik ez dut osperik nahi, lasai bizi nahi dut, egoki, eroso... Egun bateko ospakizunak ez dit balio. Tira, ospatzekotan, Orioko arraunlarien jarduna txalotzen dut, miresten ditudalako, lanetik irten eta egiten duten lana! Eta Oriora ikurrina irabazita etortzen direnean, orduantxe ospakizuna. Arraunlariak txalotzen ditut, malkoa begian... Ni, izan ere, naizen tokikoa naiz, Orikoa, eta ospakizuna izatekotan, hori da. Baina 50 urte kantuan eta ospatu? Ergelkeria handiagorik!”.

hark piztu zuen gar hartatik irauten duen sua ere Ez Dok Amairu da. Batek esan duenean, “nik Ez Dok Amairuri zor diot...”, bera ere Ez Dok Amairu da! Hala da, berez. Garai bat delako, denbora bat osoa, gaurdaino irauten duena. Ez Dok Amairuk jarraitzen du, gero! Ez Dok Amairu gertatzen ari den guztia da, bere on eta txar guztiekin!

Zure jaialdi asko bukatzen diren moduan bukatzeko: Zenbat gera, lau, bat? Hiru, bost, zazpi...

Diskurtso falta ikaragarria dugu, hizketan hasi eta totelka hasten gara. Ez dut ikusten, momentuan behintzat, diskurtso egoki bat garatzeko gaitasunik, gure kontra datorren diskurtso hori zalantzan jarriko duenik. Erraz toreatzen gaituzte, errazegi engainatzen! Iru-dipena daukat joan deneko 40 urtean gure Herri honi ahaztu egin zaiola klabe politikoan pentsatzen eta hitz egiten. Ez daki bere nahia egoki kanporatzen, eta ez dut ikusten inor horretan ari denik. Zer ikusten dudan? Alderdiak, beren alderdikierian mozkortuta, beren alderdiak antolatzen, zertarako eta nork bere hegemoniatxoari eusteko. Txatxukerietan murgilduta, azken finean. Izan ere, Herri hau hain dago zatikatua, eta zatitzen ari, nork bere ondoan ikusten baitu etsaia! Ondokoa-ren kontra borrokan xahutzen ditu indarrak, ez benetako etsaiaren kontra.

Zer egin degu? Alkar jo. Zer egingo degu? Alkar hill!...

Batek esango du, “orain dela 40 urte baino hobeto gaudek!”. “Bai, ez zakiat zertan!”. Halaxe esaten zuten frankistek ere, gerra egin eta 30 urtera, gosea pasatu zenean, industria

ere hasi zenean, eta abar. “Bai, baina orain dela 30 urte baino hobeto gaudek!”. Ergelkeriak! “Orain dela 40 urte baino hobeto gaude, autonomia daukagu!”. Ez al da jendea konturatzen, izan ditugun lehendakari abertzaleak ez direla izan lurralde ordezkaritza baten administrazioaileak besterik? Lehendakari subiranoak izan direla uste dute, gainera. Eta hauteskunde kanpainan ere, Espainiako hizkuntza, estilo eta ereduaren mende jarduten dute. Inperioaren kultura dute. Hortik ezer interesgarriarik ez dator... Nik nahiko nuke Herri hau gai izatea benetako zerbaite egiteko, sistemari moztarazteko erantziz eta benetako aurpegia agerrarazteko modukoa, masa mugimendu gobernaezina antolatu... Beharbada, orduan, Herri honetan tankeak sartzea beste erremediorik ez lukete izango. A zer argazkiak egingo genituzkeen! A zer argazkiak, bere burua hain demokratizatzen eta tolerantzatzen daukaten jende horrenak! Bere benetako muturra erakustera behartu behar da jende hori.

Ez dut beste musikaririk ezagutzen horrela mintzo denik gure artean.

Nik garbi dakit ez naizen zerbaite izatera behartzen nautela. Behartzen naute. Bada, ni, errebelatzen naiz. Irtenbidea ematen badidate, hau da, mundutarra izatea, oso ongi. Ilarran jarriko naiz, agiri eske. Baina badakizu zeinek galaraziko didan agiri hori hartzea? Mundua estatuetan zatikatuta nahi duten horiek. Haiek nahi dute, nik ere bai: ez naizen ezer izatera ez dut behartuta egon nahi, naitzena izan nahi dut. ■

argia.com Abeslariak kontaturiko beste hainbat kontu irakurri daitezke gure webgunean.

• Roelf Meyer •

«Soluzioa badago Euskal Herrian»

Apartheidaren gobernuaren negoziatzaile gorena izan zen Roelf Meyer eta paper garrantzitsua jokatu zuen herrialdeko zurien pentsamendu eta jarrera aldaketan. Oraindik ere batzuek traidore deitzen diote, baina ez zaio axola. Trantsizio baketsua zen helburua, eta lortu zuten. Ondoren, Nelson Mandelaren ministro izan zen. Johannesburgoko bere bulegoko ateak ireki dizkigu.


Testua eta argazkiak:
LANDER ARBELAITZ


1947an jaio zinen Eastern Cape landa eremuan, apartheidak lege ezarri baino urtebete lehenago.

Baserritarren semea naiz, ardiak hezten genituen etxean. Garai hartako oso oroitzapen politak ditut. Bizitza lasaia zen, ia ametsetakoa. Jendeak uste du Hegoafrikako zuriak aberatsak izan garela beti, baina ez da hala. Bigarren Mundu Gerraren osteko garaiak ziren, eta ni bizi nintzen zonaldeko familia afrikaner asko nahiko txiroak ziren. Gu ere nahiko familia pobrea ginen, eta nire aita hala hil zen 1962an, txiro.

Zuriak oso bananduta zeuden garaia zen hura.

Afrikanerren gehiengoa Hegoafrikak II. Mundu Gerran parte hartzearen aurka zegoen, eta hori izan zen 1948an National Party (NP) agintera heltzeko arrazoietakoa bat. Ingelesez mintzatzen ziren





hegoafrikar zurien aurkako jarrera zuen afrikaner askok. 1950eko hamarkadan, afrikane-
rrek amets bat zuten: britainiarren kontrolpe-
tik askatasuna lortu eta errepublika
independentea sortzea. Azkenean 1961ean
lortu genuen eta gure liberazio momentua
izan zen. Eztabaida politikoa ez zen zuriei eta
beltzei buruz, baizik eta nola atera herrialdea
britainiarren kontrolpetik.

**Eta beltzeekin zenuten harremana nola gogora-
tzen duzu?**

Gure zonaldeko jende gehiena *coloured* edo
mestizoa zen. Zortzi urte zaharragoa den
anaia dut, eta ni jaio nintzenerako, hura base-
rritik kanpo bizi zen, eskolara joateko. Horre-
gatik, nire lagunik onena beti ondoko baserri
bateko semea izan zen, mestizoa bera. Biz-
kiak bezala ginen, beti elkarrekin jolasean.
Nire bizitzarako onuragarria izan zen halako
lagunak edukitzea, ez baitut sekula haien aur-
kako aurreiritzirik izan.

Zein helbururekin sartu zinen politikan?

Herrialdea aldatzeko nire ekarpena egin nahi
nuen. 1979an Legebiltzarrerako lehen aldiz
hautatu nindutenean, pozik nengoen alde
batetik, 31 urte nituelako eta hor nengoelako;
baina bestetik nire baitarako esaten nuen:
“Hau ez da errealia, hemen ez dugu herrialde
osoan ordezkatzen, zuriak bakarrik gaude”.

**Hasieratik, beraz, aldaketan pentsatzen sartu
zinen?**

Bai, inongo dudarik gabe. Baina gero ikusi
den bezala, prozesu motela izan zen.

**“Negoziazioak ez ziren ados
zeuden lagun batzuen artean,
desadostasunak zituzten lagun
arteak baizik”**

1980eko hamarkadan, Poliziaren ministro-orde
zinen! Garai hartan, bi salbuespen egoera izan
ziren herrialdean: 1985ean eremu batzuetan
eta 1986an herrialde osoan. Nola gogoratzen
dituzu garai horiek?

Nire erantzukizuna zen salbuespen egoera
haiek kontrolatu eta kudeatzea. Egoera gogo-
rrak ziren, baina atzera begiratzen dudanean,
ikusten dut asko ikasi nuela orduan. Auzune
beltzetara joan behar izaten nuen, egoera nola
kontrolatu lehen eskutik ikustera. Ordura arte
ezagutzen ez nuen jendearen bizimodua ikus-
teko aukera eman zidan hara egunero joan
beharrak, eta nire baitan nuen aldaketa senti-
mendua areagotu egin zuen horrek. Garai har-
tako gobernuak uste zuen momentuko egoera
sozialak aldatuta jende horren protestak amai-
tuko zirela, baina ikuspuntu okerra zen hori.
Protesten arrazoia politikoa zen.

**Nola sentitzen da bat, bere segurtasun inda-
rrek jende errugabea hiltzen dutenean?**

Garrantzitsua da esatea, ez nik eta ez NPk
sekula ez geniola segurtasun indarrei horrela-
ko agindurik eman. Kontzientzia lasai genuen;
baina aldi berean, ezin genuen erantzukizuna
saihestu, eta gainera, 1991tik aurrera Defentsa
ministroa nintzenez, ikerketak ireki behar izan
nituen. Oraindik pentsatzen dut segurtasun
indarretan okerreko pertsona batzuk genitue-
la. Batzuetan beren kasa egiten zituzten gau-
zak, inongo agindurik jaso gabe. Askotan ezin
izan genuen esaten ari naizena frogatu, baina
erantzukizun politikoa gurea zen azken
finean. Kategoria honetako ekintzarik gogo-
rra Boipatong-o sarraskia izan zen, eta
horregatik negoziazioak hautsi zituen ANCK
[poliziak 28 pertsona hil zituen tiroz 1992an,
Boipatong herrian].

Egoeraren larritasunaz jabetzeko balio izan zizuen behintzat...

Hondamendia zen alde batetik, baina bestetik, “nolako etorkizuna nahi dugu?” galde-tzen hasi ginen “iraganetik zer babestu nahi dugu?” beharrean. Ikuspegi aldaketa garrantzitsua izan zen.

1989an FW de Klerk presidente izendatu zute-nean, zein egoera aurkitu zuen?

Alde guztietatik aldaketa eskatzen zen. Herrialdea sufritzen ari zen. Nazioarteko zigor ekonomikoak gogortzen ari ziren, eta zurien komunitatea “pixkanaka aldatzen hasi behar dugu” esaten hasi zen. PW Bothak, aurreko presidenteak, aldaketa hori ukatu egiten zuen, eta FW de Klerk sartu zenean, egoera beste modu batera jorratzeko aukera izan genuen. Gatazka egoera batean, lidergo aldaketak zein positiboki eragin dezakeen ikusteko balio duen adibidea da, inondik ere.

De Klerkek Mandela askatu zuen, honek 27 urte kartzelan egin ostean.

Ikusmin handiko eguna zen, eta Mandelaz fida gintezkeela bagenekien arren, ez genekien jendeak nola erantzungo zuen. Adibidez, egun hartan jendea mobilizatzen eta zurien aurkako erasoekin hasi izan balitz, odol jario latza izango genuen, guda zibila. Mandelaren lidergoa nahikoa izan zen jendea kontrolatzeko, eta erakusteko trantsizioak baketsua behar zuela izan. Denok ikusi genuen aldaketaren hasiera zela hura.

Behin De Klerk presidente karguan, ANCekin (Afrikako Kongresu Nazionalarekin) egin beharreko negoziatziotarako izendatu zintuen. Zer pasatzen da hain paper garrantzitsua jokatu behar duenaren burutik?

40 urteren bueltan nenbilen eta konturatzen nintzen, beste belaunaldi zaharrak ez bezala, ni prest nengoela arriskuak hartzeko. Etorkizuneko aukerei begiratzeko prest nengoen. Aldi

berean, gaztea nintzen eta energia nuen lan asko egiteko. Lanean, lo egin gabe, egunak egin nituen zenbaitetan. Pasioa eta energia nituen, eta prozesu arrakastatsua zen nire helburua.

Nola ulertu gisa honetako negoziazioak: bi aldeek batera egin beharreko bidea, ala batek galdu eta besteak irabazten duen norgehiagoka?

Gure esperientzia bi aldeek irabazten genuen. Mundu guztiak ikusten zuenez National Partyk apartheidarekin amaitu behar zuela, gure xantaiarako posizioa, hala esan badaiteke behintzat, ez zen hain ona. Hala ere, guretzat ere oso garrantzitsua zen prozesu eta trantsizio bake-tsua ziurtatzea, eta hori lortu genuen.

Paradigma itzulia. Aldaketa arrakastatsurako esentzia idatzian diozu une batean helburua beste begi batzuekin ikusten hasi zinela. Ez al zinen traidore deituko zintuzten beldur?

Egoera horretan ezin zen saihestu afrikane-rren parte batek traidore deitzea, erresistentzia baitzegoen egiten ari ginenaren aurka. FW de Klerkek erreferenduma horregatik deitu zuen, zurien babesa lortzeko. Arrakas-tatsua izan zen bere garaian, %60ak babestu baikintuen. Baina beste %30a aurka zegoen eta traidore deituko ninduten; oraindik ere deitzen naute. Baina hori ez zitzaidan axola, gu herrialdearentzat garrantzitsua eta beharrezkoa zena egiten ari ginen.

ANCko negoziatzaile buru Cyril Ramaphosarekin oso harreman ona izatera heldu zinen. Zenbateko garrantzia dute harreman pertsonalek politikan?

Ezinbestekoa. Herrialdeari eskaini genion irtenbidea, Cyril eta bion arteko harremanean oinarritu zen. Elkar ongi ulertzen genuen eta elkarrenganako fidagarritasun handia lortu genuen. Elkar errespetatzen genuen.

Anekdotaren bat baduzue behin elkarrekin arrantzara joanda...

Negoziazioen hasiera aldean izan zen. Cyrili



"Egizu zerbait ezberdina,
ZATOZ TXURIRA!!!"



Anoeta pasealekua, 24 • Donostia
Tel.: 943 464 404 • www.eltxuri.com



arrantza ikaragarri gustatu izan zaio beti. Elkarren lagun batek, enpresa-gizona bera, asteburu pasa arrantzara eramán gintuen. Hasi nintzen ni nolabait arrantzatu nahian, eta ez dakit zer egin nuen, kontua da amua hatzetako batean sartu eta barruan hautsi zitzaidala. Imaginatu egoera: mendietako laku batean, edonondik ere oso urrun, eta ni seko odoletan. Ez zegoen mediku batengana iristerik, inolaz ere. Orduan, Cyrilek tiritu batzuk hartuta barnean zegoena atera eta sendabidea jarri zidan. Eta hortik sortu zen gero hainbestetan erabiliko genuen esaldia: “Aizu, zurekin fidatu naiz”.

Nola deskribatuko zenuke Mandela?

Denon aita bilakatu zen. Bere pertsonalitatea eta lidergoa ikaragarria zen. Nazio honen aita da. Negoziazioen egoera ikusita, desadostasun batzuk izan genituen. Negoziazioak ez ziren ados zeuden lagun batzuen artean, desadostasunak zituzten lagun artean baizik. Galdera zen, nola gaingitu ezberdintasunak? Dena den, bere oso oroitzapen pertsonal ederrren bilduma daukat. Batez ere, trantsizio ostean, Mandelaren Batasun Nazionalako kabineteko kide izan nintzenekoak.

Eta FW de Klerk?

Gure harremanez oso oroitzapen onak ditut, batez ere trantsizioa bitarte. Berak izendatu ninduen Afera Konstituzionalako ministro, eta herrialdeko presidente zelako, nire lana zen bera informatzea. Garai haietarako, oso lider ona zen. Ni aldaketa arriskurako prestatuago nengoenez, ezberdintasunak genituen ikuspegi aldetik, baina bikote ona egiten genuen.

Gero ordea, desadostasunak izan zenituzten...

1994 ostean hasi ziren gure desadostasunak nabarmentzen. Nik pentsatzen nuen Hegoafrika berrian NPk beste bide bat hartu behar zuela. Ezin genuen jokatu apartheidaren alderdi izan ez bagina bezala. Alderdia desegin behar genuen eta alderdi berri gisa bataiatu, herrialdearen egoera berrira egokituta. Ez zuten nire ikuspuntua babesten eta 1997an alderdia utzi nuen United Democratic Movement (UDM) sortzeko. Nire bizitza politikoa egin dudak akatsik handiena izan zen UDM alderdia sortzea. Ez alderdiaren ideia okerra zelako, baizik eta alderdia sortu guelako haserre geundelako. Garai hartan egin behar nuena zera zen: NP utzi, urtebete edo biko atsedena hartu eta ANCn sartu.

Uste duzu apartheidaren biktimekin justizia egin dela?

Bai eta ez. Bikimek etorkizun hobe lortzea zen helburua, eta iraganarekin hausteko, Egia-aren eta Berradiskidetasunaren Komisioak

(TRC) jokaturako papera oso garrantzitsua izan zen. Dena den, aitortu behar dugu biktime horien %20a ez dela modu egokian hartua izan. TRC munduarentzat eredugarria izan zela dudarik ez, baina ez zen bikaina izan. Oraindik zor hori kitatu gabe jarraitzen dugu.

Zer iritzi duzu zurien gehiengoak beltzekiko duen jarreraz?

Apartheid 1948an legeztatu zen arren, lur honetara lehen zuria heldu zenean hasi zen. Orain ezin dugu pentsatu hamasei urtek aurreko 340 urteetan egindako mina egun batetik bestera konponduko dutela. Trantsizio garaian esan nuen hamabost urte beharko genituela aldaketa amaitzeko. Hori iaz amaitu zen. Ez dugu denbora tarterik jarri behar. Denon artean konpondu behar ditugu herrialdeko arazoak, eta ez beste alde batera begiratzu bizi.

Nazioarteko zenbait gatazkatan bitartekari gisa ere ibili zara. Zer egoera topatu duzu Euskal Herrian?

Soluzioa badago Euskal Herrian, eta behar lukeena baino luzeago jotzen ari da. Bi aldeetako indar politikoak dira horren errudun: Madrilgo Gobernu zentrala eta askapen mugimendua. Askapen mugimenduak lehenago harrezakeen biolentzia uzteko erabakia eta gatazka bide baketsuen bidez konpontzekoa. Espainiako Gobernuak Konstituzioa berrikusi behar du eta Euskal Herriko egoerara egokitu.

Hegoafrikan arazoa konpondu zenuten, baina azken finean, zuriek onartu behar izan zenuten apartheid ez zela bidezko egoera. Nola konpondu alde batek herrialde independente bat sortu nahi badu, eta beste batek ez duenean hori entzun ere egin nahi?

Gurean ere gustura egongo ez zen parte handi bat genuen, orain oso gutxi dira. Zortedunak gara alde horretatik. Egia da Hegoafrika gehienbat beltzen herrialdea dela eta hori ezin dela ukatu, beraz, horrek ere lagundu zuen nolabait, baina zuri askori egoera berria hobe dela erakustea izan zen erronka, eta lortu dugu.

Euskal Herriaz diozuna askotan galdetu diot neure buruari. Munduko beste leku askotan ikusi dut antzeko egoeraren bat eta elkarrizketa da bidea. Mahai baten inguruan eseri eta negoziatu denak ados egongo liratekeen soluzio bat. Pena ematen dit ikusteak hori ez dela gertatzen ari Euskal Herrian. Lidergo sendoak behar dira bi aldeetan. Askapen mugimenduak lehenagotik erabaki behar zuen zein posizio hartuko zuen. Hegoafrikako gure lezioak ongi balio dizuela uste dut. Elkarrizketak gure arazoak konpondu zituen, ez ahaztu hori. ■

IRUÑEA, 2010

NAFARROAKO EUSKARAREN KONTSEILUKIDEA
ELKARRIZKETA DU KAZETARIAK :

- KRISIAN gaudela diote, baina
SEKULARKO SOSKETA bideratu dute
ARKUETAKO zirkuitorako...

- Nongo zirkuitoa? - KAZETARIAK

- ARKUETAKOA, erderaz LOS ARCOS.

Bihar amunean, egunkarian:

- "milioikada galanta bideratu
dute LOS ARCOSKO zirkuitora."

JIMENO JURIOK agerrazazi zigun **ARKUETA**
izen ederra, LIZARRAKO FORUAREN bermea eta
GUZTI;

bai eta **NABAR·IRIA** ere,
erderazko NAVARRERAREN
JATORRIAN.

ERRANAK ERRAN OKERREN ZUZENTZEKO

Ur zikinaren parabola

Babelgo hizkuntzen artean omen zegoen euskara. Hori da Jose Saramagok *Cain* nobelan idatzi ziguna.


CONCETTA PROBANZA



José Luis Padron



Rozas



Urkiza

Heriotzarik gabe bizitzarik ez dago, eta bizi zen eta hil da hura ere. Nire miresmena eta begirunea merezi dute Saramagoren ikuspuntu zorrotz eta ustekabeak, bere gizalegeak, bere irudimen kritikoak. Nire betiko maitasuna eta esker ona merezi du *El Evangelio según Jesucristo* bere nobelak. Idazle portugaldarra hil eta segituan akordatu ziren Ibarretxe, Zapatero edota Raxoi bezalako literaturzaleak Nobel saridunaz, biharamuneko egunkarietan. Hil-kapera bere izena daraman liburutegian zabaldu ondoren, Lanzaroteko Tias herrian, Jose Saramago idazlearen gorpuzkiak Lisboara eramane zituzten. Lisboako Udaletxean horrelako omenaldirik ez zutela sekula ikusi aitortu zuten udaleko langileek. Portugaleko Gobernuak dolu nazionala agindu zuen. Vatikanokoek ere ahazten ez zutela esateko beldurrik gabe ibili ziren. Aita Santuaren Erromako sedeak argitaratzen duen *L'Osservatore Romano* egunkarian “populista estremista” bat izan zela defenditu zuten, “materialismo historiakoaren aurrean, hau da, marxismoaren aurrean belauniko bizi izandako gizona. Gurutzaden eta Inkisizioaren kontrakoa, bai, baina Sobietar Batasuneko *gulag*ak, purgak, genozidioak, kulturagatiko eta fedea-gatiko erasoak ahaztu egin omen zituen”. Jesus, jesu! Ikustekoa da azken aldi honetan Jainkoaren bulego-buruak erakusten ari diren ebanjelizatzeko grina. Vatikanoko egunkariak idazle portugaldarraren ibilbidea erreparatu, eta *El Evangelio según Jesucristo* (1991) nobelari begiratzen dionean, “lotsagabetzat” jotzen du, “Kristautasunaren memoriaren aurkako mehatxua”. Jesus, Maria eta Jose! Egiaz muga-

rik gabeko bihotza du Erromako Elizak, barrenean egiazko gaitasuna duena, konbikzio benetakoetan gauzatu daitekeen horietakoa, ez huskeriazkoa, Saramagorena, nirea eta beste hainbatena bezala. Hain zuzen ere *El Evangelio según Jesucristo* lanaren argitalpenaren aurrean katolikoek

emandako erantzun ez oso errukiorrak eta orduko Gobernu lusitaniarrak 1992an liburu hori bera Europako literatur sari baterako hautagai modura ez aurkezteko hartu zuen erabakiak bere herria uztera eta Lanzarotea joatera behartu zuten Saramago. Gurean, Joxe Arregi frantziskotarra Lanzarotea ez, baina bai Ameriketara, pobreekin lan egitera, “graziazko neurri” gisa, “graziazko aukera” gisa bidaltzeko eskatu berri die Donostiako gotzainak, Munilla Monsinoreak, frantziskotar probintzialari eta bikarioari. Haren izateko arrazoia zela pentsatzen nuen, baina zigor teknika berri bereziren bat omen da orain Elizarentzat pobreak zaintzea, Azpeitiko eta Azkoitiko jeltzaleei Espainiako banderari musu ttiki grinatsak ematera zigortzea bezalako zerbait. “Ur zikina” omen baita Joxe Arregi, “Eliza barrukoak ez ezik, kanpokoak ere kutsatzen dituen”. Ikaragarri gustatu zait *Ur zikinaren parabola*, eta zera egingo dut nik ere hemendik aurrera: Elizaren duintasun hori, doktrina hori, heldutasun hori, anai-

kidetasun hori, askatasun hori, onberatasun hori, erabaki hori heresiaren ur zikinaz egunero-egunero garbitu. Joxe Arregi bezalako herejeak behar ditugu nonahi, haien mezu heterodoxoak, berritzaileak, itxaropentsuak, heresiaren haize berria edonon. Ur zikin gehiago iturri garbi klase berri horren kontra. Georges Bernanos frantziar idazlearekin bat nator ni ere: “Erligioak eman duen hoberena zera da: heterodoxia”. ■

Ikaragarri gustatu zait *Ur zikinaren parabola*,
eta zera egingo dut nik ere hemendik aurrera:

Elizaren duintasun hori, doktrina hori,
heldutasun hori, anai-kidetasun hori, askatasun
hori, onberatasun hori, erabaki hori heresiaren
ur zikinaz egunero-egunero garbitu

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Oporretako ikasgaia

Goiz esnatu beharrak ez zion lasai lo egiten utzi. Iratzargailuak jo baino ordubete lehenago jaiki zen, di-da batean prestatu, motxilari azken ukituak eman eta ostatutik atera zen. Bost egun egin zituen Costa Ricako herri txiki hartan, eta lekuz aldatzeko gogoazuen.



Orduan ikasi zuen mundua
ikusteko modurik onena
horixe dela askotan:
jarri eta ikusi,
besterik gabe



Autobus bakarra zegoen aukeratutako norabidean, goizeko zazpian. Denboraz joateko gomendatu zioten, badaezpada ere. Egurrezko banku luzeska bat besterik ez zen geltokia, erdi apurtutako aterpe txiki batean, herriko azken etxeetatik berrehun bat metrora. Goizeko sei t'erdietarako hantxe zegoen bidaiaria, errepide bazterrean eserita, eguzkia mendi artetik nola ateratzen zen ikusten, itzaletan ezkutututako fantasma baten moduan.

Trafiko gutxi zebilen, auto edo furgonetaren bat tarteka, bizikleta bat orain, moto zaratsuren bat gero. Autobusik ez, ordea. Goiza modu horretan galtzeak amorrazio handia eman zion. Egonezina gutxi ez, eta eguerditik aurrera eguzkia tonaka erortzen zela iruditu zitzaion.

Izan zuen lagunik geltokian: hiriburura zihoan irakaslea, kamioi baten zain egon zen nekazaria, saltzaile bat merkatura bidean... Leku gutxitan Costa Ricakoa bezain jende

abegitsua. Ez zuen desatsegina izan nahi albokoekin, baina kosta egin zitzaion disimulatzea, ahalik eta azkarren alde egin nahi zuen bide bazter madarikatu hartatik, eta kito.


Arratsaldeko bostetan herrira bueltatzea erabaki zuen. Motxila bizkarrean hartu eta burumakur egin zuen ostaturako bidea.

Gerora, errepide ertzean sosegatu ezinik eta umore txarrez pasatako eguna gailentzen da bidaiariaren oroitzapenetan. Huraxe da Costa Ricako gogorapenik indartsuena, hartaz pentsatzean sentitzen du bidaiari izatearen zirrara sakona. Egun hartan ez zuen sumendi edo hondartza zoragarriarik ikusi, baina orduan sumatu zuen jendea hurbilen, orduko aurpegiak eta elkarriketak gogoratzen ditu gehien. Eta horrela, egonean, ustez alferrikakoak izan ziren ordu luzeetan ezagutu zuen ondoen Costa Rica, hilabeteen hara eta hona gelditu gabe ibiltzen baino gehiago, seguruenik. Orduan ikasi zuen mundua ikusteko modurik onena horixe dela askotan: jarri eta ikusi, besterik gabe.

John Lennonek zioen bezala, beste gauza batez pentsatzen gaudela gertatzen dena da bizitza. Momentuan ohartu ez bazen ere, errepide bazter triste hartan ikasgai aberasgarria hartu zuen bidaiariak. Eta konturatu zen horrelakoak egunero gertatzen direla. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ari gara. Lanbro eta langarra iristean, etxe-ko bazterrak arakatu

eta bakoitzak bere gustuko lekuan eman ditu puskak. Soziedadean paratu bazkaria berotu eta txirrindularien lana zeharka ikusiz berdinu gara. Bazkalostekoaren ondoren, ohiko tertulia telebistak emandako etaparen zuzenekoaz ordezkatu dugu. Bihar inguratuko zaizkigu txirrindulariak gurea, karabana ofizialaren zaraten ugariak jende andana erakarriz hutsik izaten den parajera. Laranja kolorekoak, jada agertzen hasi dira tropatan nor garen zer garen aitortzeko asmoz. *Basques?* Komertzianteeek irri-

Tourmaletetik

ño konplizeak darabiltza galderarekin batera, gure berri badutela erakutsi nahi baligute bezala. Aurten

gure gehienek, telefono operatzailearen iragarkiaz *Spain* bat omen daramate soinean. Ez ditugu oraindik ikusi, salgai jarri elastikoetan ez dago holakorik. Sosa arrazoi bietan. Eta sosa ororen arrazoi nagusia dela onartua dugunez, txirrindulariek *Spain*, zaleek ordain, eta nagusia bikain. Beharrik gure adinean pasioa elkarrekin egonaldiaz amatatzen dugula, gure izate propioaren erakusletzat dugun fundamentuan zutabetuz, *basquet* hartzen gaituztela baieztatu eta itzultzen gara *Spaine* kotik libre, turnadak ordainduta. ■

Oier Arrolaza

DANTZARIA

Profesionalak eta amateurak

K

ultura alorrean, eta zer esanik ez dantzan, profesionalak behar ditugu. Iruditzen zait profesional gutxi izatea dela gure gabezia, arazo eta ezintasun askoren arrazoietako

bat. Gaur eta hemen, dantza jarduera gehienak adibidez, ohiko lanaren ondoren, irakas-kuntzan, enpresan edo kudeaketan zortzi ordu lan egin ondoren egiten dira.

Azken urteotan administrazioa profesionalizazioaren aldeko politikak bultzatzen ari da. Kultura alorreko laguntza eta jardueretan amateurrek parte hartzeko gero eta traba gehiago jartzen ditu. Burokrazia izugarria da, eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzea ia ezinezkoa bihurtu da horretarako azpiegitura profesionala ez duenarentzat. Are gehiago, zenbait deialditan zehatz-mehatz adierazten da profesionalak bakarrik aurkeztu daitezkeela. Profesional izatea nola-baiteko berme artistikoa balitz bezala. Eta amateurrek ekoizpen artistiko interesgarriak egiteko izan dezaketen gaitasuna ukatuz.

Krisi aurretik kultura eta sorkuntza alorretako profesionalizazioaren aldeko aldarri hau izugarritzko kontraesana zen, eta zer esanik ez oraingo egoeran. Errealitateak urteak daramatza gure mutur aurrean jartzen herri txiki honetan ez dagoela nahikoa masa



DANI BLANCO

kritiko jarduera kultural gehienetan profesionalki aritzeko. Bainaitsu eta entzungor, profesionalizazioa eskatu eta amateurismoa zigortzen jarraitzen dugu. Eta zentzu batean profesional kopuruak gora egin du. Jarduera artistiko gehienaren inguruan badira profesionalki ari diren teknikariak, kudeatzaileak, idazkariak, ekoizleak, komunikariak, eta abar. Artistak eta sortzaileak ez proportzio berean.

Profesionala izateak ez du kultur produktuen kalitatea eta ekarpenaren mamia bermatzen. Are gehiago, ezagutzen ditugu artista profesionalak, artea ogibide hartu dutenetik ez dutenak aurreko mailarik eman. Amateur zirenean zerbaiteko esateko zutenean ateratzen ziren plazara, ongi mamitu eta landu ondoren, ez baitzuten produktu kulturala ekonomikoki errentabilizatzeko asmorik eta itxaropenik. Bizimodua atera beharrak etengabe ekoiztu eta plaza publikoan egotera eramaten du profesionala, esateko ezer berririk izan ala ez.

Hasieran esan dut eta berriz errepikatuko dut. Kultura alorrean profesionalak behar ditugu. Baina amateurak ere bai. Ez dugu erronka makala bien arteko elkarbizitza eta lankidetzara orekatua lortzen. Baina ez dezagun inor zigortu bata ala bestea izateagatik. ■

Profesionala izateak ez du kultur produktuen kalitatea eta ekarpenaren mamia bermatzen. Are gehiago, ezagutzen ditugu artista profesionalak, artea ogibide hartu dutenetik ez dutenak aurreko mailarik eman

TXANDAN

Edu Zelaieta



Word-en azken bertsioak bizitzen ari garen garaion berri

zuzena eman dit, argi eta garbi, ikono bakar eta sinple baten bidez: itsatsi. Izen hori eman diote —euskarazko bertsioan— gehien nabarmentzen den irudiari: programa irekitzean ezkerretik ageri den lehen funtzioa da, eta, gainera, tamainaz franko handiagotu dute beste irudi batzuen ondoan (ebaki, kopiatu...). Nonbait, orain arteko erabiltzaileok maizen baliatutako operazioa identifikatu dute, bertsio berrituan bezeroari “erraztasun guztiak” eskain dakizkion.

Itsatsi

eta, lantegi horretan, denak ez bide ziren berdin trebeak: ezkutuan eta ongi kopiatzea landu beharreko gaitasuna zen. Atzoko alferrok zertaz ari naizen ondotxo dakizue. Egun, ordea, alferreko lanetan nekarazi nahi ez duenak ez du kopiatzea xede, itsastea baizik. Itsastea baizik ez, zehazki.

Eta horra hor komeriak, musikan, artean edota lagunekin solasean: kopiaren kopia itsatsiaren itsatsiaz, sarritan zer itsatsi ez dugula izaten, aurretik beste norbaitek itsatsia ez bada. ■

Iragan garai batean —o tempora, o mores!—, kopiatzea zen alferrari aitortzen zitzaion lan bakarra;

ZIRTAK

Patxi Zulaizarreta

IDAZLEA

Bolo hysterikoa

Hspaldian analisirik egin gabe, denbora falta aitzakiatzen zion bai bikotekideari bai bere buruari. Lan askorekin zebilen, ardura familiarrak egunetik egunera handiagoak ziren, eta obsesioraino begirutzen ziren hainbat eraikinetako erlaitzetan, kasik oharkabean ipintzen dituzten orratzei; iltze gisako hauek usoak pausa ez daitezten ipintzen dituzte, zirinik egin ez, eta eraikin kanpoaldeak kakaztu ez ditzaten. Bera usoen gisara sentitzen zen, iruditzen zitzaion errealtateak halakoxe orratzak ezarriak zizkiola, eta ez zeukala non pausatu, non egokitu, non laketu. Sarri etortzen zitzaion gogora bost egunez desagerturik egon, eta seigarrenean non eta etxeko ganbaran kukutua topatu zuten lankide desorientatua, edota aste batetik bestera hil zitzaion lagun osasuntsua. Harik eta, akaberan, sendagilearenera deitu zuen arte.

Bihotz pilpirak azkartxo zebilkion eta tentsioa altu samarra zuen, baina sendagileak hitzorduko urduritasunari egotzi zion. Alabaina, onartu behar izan zuen azken hilabeteetan ez zela gehiegi zaindu, lo gutxi egiten zuela, eta gauez gaixotasun larrien hurbiltasunak erotzeraino erasaten ziola; aitortu behar izan zuen gehitxo erre eta edaten zuela, eta gutxiago jaten zuela nekeza zitzaiolako ahamena irenstea. Sendagileak, orduan: “Adinarekin tiroak gero eta hurbilago entzuten dira, ezta? Badakizu *angustia* hitza nondik datorren? Latineko *angustus* hitzetik hain segur, eta toki estu eta hertsia adierazten du. Ba horixe da zure bizitza laburbiltzen duen hitza. Estres apur bat beharrezkoa da, baina neurrian. Nago bolo hysterikoa duzula, horixe dela jatekoak irensten uzten ez dizuna. Bizimodu mantsoagoa komeni zaizu, eta on egingo dizu, hasteko, Tranxilium pilulak egunean hiru bider hartzeak”.



DANI BLANCO

Bolo hysterikoa ahantzirik bazkaldu

zuen, eta Orhirako bidean gora

aurrena eta Larrainerako bidean

behera hurrena, presarik gabe egin

zuen aurrera. Eta noizbait ere osinera

heldu zelarik, astiro biluztu, eta

gozoro sartu zen uretan

Anbulatoriotik irtetearekin batera, tiroak urrunago sumaturik, telefonoa itzali zuen. Gero, botikara joan beharrean, kafe batera jo zuen. *Berrian*, Nafarroa Behereko Behorlegi herrixkan Maddi Oihenarten eta Jeremy Garat biolontxelo jotzailearen kantaldia iragartzen zen. Tokitan zegoen, baina ez bat eta ez bi, joan egin zen. Gidaritza

—Oihenart beraren azken diskoa lagun— lasaigarria egin zitzaion, eta paisaia bihotz altxagarria, eta Irunberriko Arroilara iritsirik, harrika jaurti zuen telefonoa. Otsagabian, bazkaldu aurretik ciber kafe batean sartu zen hemerrotekan kuku bat egiteko, eta horra aurreko batean irakurritako erreportaia: Zuberoako Gamere herrixkan, Lamina Zilo izeneko osinean, ura 34 gradutan irteten da lurpetik. Kasik sms bat zirudien email bat idatzi zuen: “Ongi nago. Berandutuko”. Bolo hysterikoa ahantzirik bazkaldu zuen, eta Orhirako bidean gora aurrena eta Larrainerako bidean behera hurrena, presarik gabe egin zuen aurrera. Eta noizbait ere osinera heldu zelarik, astiro biluztu, eta gozoro sartu zen uretan.

Iluntzean, Behorlegi herri miniatuazkora iritsirik, Santa Grazi kaperara jo zuen. Gaudi hasi aurretik, azaldu zuten kaper hartara haur ttikiak eramateko usadioa dagoela, ibiltzen eta mintzatzeko ikas dezaten. Eta berak irudipena izan zuen, ezbarren bat izan dutenen gisara, berriro ere ibiltzen eta mintzatzeko ikasi beharra zeukala. Kantaldia kandela soil baten argitan garatu zen, mikrorik gabe, *a capella* alegia, eta txorien firurikak eta hegaldiak izan zituen ardatz, eta berak, hunkiturik, irudipena izan zuen aspaldian lurretik arrasegi ibili zela eta berriro ere hegaldatzen ikasi beharra zeukala. Akaberan, autoan sartu, eta abiatu ondotik, zin egingo luke ibilgailua hegan zihoakiola. ■



irudia:

Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Uxue Alberdi

Ilargi erdiko gaua

I

Ze metafora beldugarria
den Turkiako bandera!
Gorria da goitik behera,
Amed hirian mehatxu gisa
zabaltzen dena airera.
Ilargi-erdi bat ere badauka
izar txikiaz gainera;
baina zerua ote da?
Hegazkinetik jaitsi ta sartu
ostean bere barnera,
hartu diogu odolez busti
den zeru baten tankera.

NAGORE LEGARRETA



IV

Malkoz bustita ito delako
Mesopotamia zaharra
txalapartaz deiadarra
luzatu dugu egurrak baitu
egur soinuen beharra;
lepoan lotu dieten sokan
ipini dugu gitarra...
Militarren atzaparra
altxatu arren handiagoa
da belarrien indarra
ta askatasuna izan da entzun
dugun akorde bakarra!

II

Poliziekin nahasten dira
kaleetan eskaleak.
Horixe dira kaleak:
haurrak, begiak, uniformeak
ta puntan dauden ileak.
Isildutako hitz sentituak
eta kezko nargileak;
garaileak, galtzaileak;
espaloietan esertzen diren
zapata garbitzaileak...
Aspaldi ez dira bertatik pasa
herriko zapaltzaileak!

V


Kalashnikovak eskuan nahiz ta
mendiak sua isuri,
lotuta izan esku bi...
Guk maitasuna ta irria jaso
ditugu ezker-eskubi.
Altxatu zuen bi atzamarrak
garaipenaren irudi!
Hartu ukabilak guri!
Nahiz ta kateak ta mina izan
herriko arteko zubi,
elkar hartuta ibaiak muga
hausten duela dirudi.

III

Ipar Kurdistan oso aspaldi
hustu zutelako bakez:
minaz eta minez betez;
herri honetan geroztik ezer
ez dabil zuzen ta artez.
Duela gutxi hiru haur tiroz
hil zituzten su eta kez;
lurrean etzanda ahuspez
gelditu ziren gorpu txikiak
azken begirada batez...
eta geroztik gazi-gaziak
dira Tigris ta Eufrates.

VI

11.000 preso dauzkazu,
200.000 espia,
lurra odolez bustia...
Askatasunak beti izan du
hain prezio garestia!
Herria kendu, begiak kendu,
kendu dizute guztia!
Baina hilko da piztia!
Gaua amaitzen ari da eta
amaitu zaio astia:
Ilargi-erdia desagertzean
irtengo da eguzkia!



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

DOINUA: "Izugarri bat, izugarri bi zenbat izugarri dira".

Literatura

Liburuen itzalpera doa erredakzioa

DANI BLANCO

Eguzkiaren onena, itzala, ez da guk asmatua. Baina ohiko guardasol loreztatuen orde, eki kolpeetatik babesteko liburupean sartzeko gonbita luzatu nahi dizugu. Bai, guk, ARGIAko erredakzioko kazetariok. Urte osoan gure atzaparretatik ateratzen diren letrak leitzen dituzun horrek, abuztuan jai ematen diguzun horrek, hondartzan sekretuki faltan botatzen gaituzun horrek, hurrengo orrietan kontseilatutako libururen bat irakurriz ez gaituzu hain urrun izango astekaria leitzen ez duzun hilabetea. Hauek baitira gure lanean erabiltzen ditugun materialetako batzuk.



Eginbehartarra

Kronika

Mikel Asurmendi

NIRE denboraldiko ibilerak liburuak 2000. urtean ikusi zuen argia. Azkoitian 1914an jaiotako Iñaki Isasmendik herrimin bizi-bizia sentitu zuen orduan. Abegi egin zion Hendaia laga zuen eta jaioterrira itzuli zen. Orduz geroko bidean, bere bizitzako bidaide Xabier Txanton adiskidea agurtu zuen betiko.

Azkoitiko alkate ohi Nerea Zubizarretak herriki-dearen ibilerak “ondorengoentzat, eta denentzat, ino-

Gudariak 1936ko Gerran.



laz ere berriro bizi nahi ez ditugun denboraldi” beza-la jotzen ditu liburuaren hitzaurrean. Iñigo Aranbarrik berriz, Isasmendiren herrikide eta adiskideak, “ahaztuaren kontra”-ko gorazarretzat: “Isasmendiren liburu hau letra xehez idatzitako bizitza baten kontakizuna da (...) Isasmendi, zerbait izan bada, militante izan baita bere bizitza osoan, Barnebarnean, erraiak erre arteko abertzaletasun baten militantea iraganean eta iraganetik bizi den ‘gudari zahar’ bat baino. Isasmendi ‘eginbehartarra’ da”.

“Udako egun haiek” gogoratuz hasten dira betiereko gudariaren ibilerak: “1936ko uztailaren 19a zen (...) pistola bat eskuan jarri eta lantegi aurrera joateko eskatu zidaten” dio liburuaren egileak.

Loiolatik Saturraranera egin behar izan zuen berehala. “*Viva España*”, “*Viva el Rey*” eta “*Viva la República*” oihuak entzuten ziren han-hemenka. Joxe Manuel Santue, Xabier Txanton eta Iñaki Isasmendi gazteek berriz, Eusko Gudarostean izena eman zuten eta gerraren gorabeheretan abiatu ziren. ■



Nire denboraldiko ibilerak.
Iñaki Isasmendi.
Azkoitiko Udala.
144 orrialde.

Luma eta kamera, zurekin baina zu gabe

Saiakera

Mikel Garcia



Zinea eta literatura. Begiaren ajeak.
Harkaitz Cano.
Elkar.
136 orrialde.
13,75 euro.

GEHIAGO gustatu zitzaidan liburua. Zinema-zuzendari ugarik entzun behar izan du esaldi madarikatua. Eta hala ere, ezin uko egin elkarrenganako erakarpen tentagarri eta arriskutsuari: erreferentzia, keinuz, amodioz eta gorrotoz betetako historia da idazle, gidoigile eta zuzendariena, eta makina bat adibide aurkezten dizkigu Harkaitz Canoren begi zorrotzak. Dokumentazio, zehaztasun eta gogoeta bikainez, Truffaut, Kubrick, Tarrantino, Erice, Pasolini, Dos-

toievski, Cervantes edota Calvino izan ditu bidaide. ■

Emakumeak gutxietsiak literatur kritikan

Saiakera

Onintza Inureta Azkune




La novela femenil y sus lectoras.
Laura Freixas.
Kordobako Unibertsitatea.
156 orrialde.
10,60 euro.

AZPITTULUAK ederki jasotzen du liburuaren mamia: emakumeak eta femeninoa dena gutxiestea gaur egungo espainiar literatur kritikan. Freixas ohartu zen bere obrak emakumeenekin alderatzen zituztela kritikariek, eta ez gizonenekin. Bere lanetan emakume protagonistak batere ez, asko ala gutxi izan, horiez galdetzen zioten kazetariak. Bide batez, lana feminotzat jotzea eta gutxiestea eskutik zihoazen. Editoreak hala esan zion: “Ez zaitut mindu nahi, Laura, baina onar dezagun batez ere emakumeak dituzula irakurle”. Eskuliburu bikaina, edonori burua astintzeko. ■

Barnemuinetako poetak alderrai

Nobela

Gorka Bereziartua



Los detectives salvajes.
Roberto Bolaño.
Anagrama.
620 orrialde.
20 euro.

1998. URTEA zen eta Herralde sari gizona eskuratu zuen Roberto Bolaño-k *Los detectives salvajes* nobelari esker. Paradoxikoa ere bada halako golardea irabaztea, likatuta ekartzen duen errekonozimendu, prestigio, koipe eta txaranga guztiarekin, zerk eta idazle frakasatu, errari, kuasi-gaizkile batzuen istorioak. Baina ez dugu ur horietan sakonduko, literatur sari ororen galtzarbeez hitz egiten hasiko ginatekeelako. Eta ez da itxura.

Tituluak hala iradoki badezake ere, hau ez da eleberrri poliziakoa. Badago ikerketa, baina literarioa da, alde formaletik egina: lotu gabeko pusken bidez kontatzen zaigu Arturo Belanoren eta Ulises Limaren istorioa, beti besteren testigantzekin, inoiz ez lehen pertsonan. 1970etako Mexiko

Hirian sortuko den poeta talde batekin abiatzen da –Barnemuinetako Errealismoa, mugimenduaren grazia– eta mundu erdia zeharkatzen du Belanoren eta Limaren lorratzei segika. Nobela fragmentarioa beraz, bost puxtarri egungo modaren irizpideen arabera.



Infraerrealistak. Bolaño goian, eskumatik bigarrena da.

Beste bost, autofikzioa ere badelako. Belano egilearen trasuntua da; Lima haren lagun Mario Santiago Papasquiarorena; eta Barnemuinetako Errealismoa, biek sortu zuten Infraerrealismoa da fikziora eramana. Liburua bukatuta beraz, bigarren irakurria dator, zer gertatu zen benetan eta zer ez jakiteko irrikaz.

Eako Poesia Egunetan bi idazleren iritziak entzun nituen nobela honetaz, eta Bolañoren beste obra handiaz: hil ostean publikatutako 2666. Batek aurreneko hau nahiago; bestearentzat berriz, bigarrena idazteko entsegu orokorra izan zen gaur ekarri duguna. Ez dut iritzirik, ez baitut 2666 irakurri. Oporretan denborarik badut, irailean etorri gaitzek. ■

Kultur talkaz, ironiaz baina zorrotz

Komikia

Jon Torner




Shenzhen, Pyongyang eta Chroniques Birmanes
Guy Delisle.
L'Association / Delcourt.

TXINA, Ipar Korea eta Birmaniarara egindako bidaien kronikak bildu ditu Guy Delisle komikigile quebecarrak *Shenzhen* (2000), *Pyongyang* (2003) eta *Chroniques Birmanes* (2007) liburuek osatzen duten trilogian. Xehetasun ugariko zuri-beltzeko lerro xumeen bidez, hausnartzerara garamatzen ikuspegi ironikoarekin, herrialdeen arteko kultur talkaz mintzo zaigu Delisle, egoera surrealistikak sortzen dituzten komunikatzeko arazoak, gizarte egituraz, jendearen beldurrez... Astiberri argitaletxe bizkaitarrak plazaratu ditu gaztelaniaz. ■

IRako militante historiko baten bizitza

Biografia

Axier Lopez



Joe Cahill: a life in the IRA.
Brendan Anderson.
O'Brien Press.
368 orrialde.
12 euro.

BRENDAN Anderson kazetari belfastarrak bildu ditu 400 orritan IRAko buru karismadunena zenaren bizitzaren pasarte nagusiak. Egun, publikoki kontatu daitezkeenak behintzat. Izan ere, borroka armatua, gose grebak, ihesa, kartzela, klandestinitatea eta politikari lotuta bizi izan zen. Provisional IRAren sorreraz, Igande Odoltsuaz, Gaddafik hiru itsasontzi bete arma IRAri emandako garaiaz edota Ostiral Santuko bake akordioetan jokatu zuen rol garrantzitsuaz egindako

begirada honen bitartez, Irlandaren azken 60 urteko historia birtitz bezain zirrargarriaren argazkia osatuko dugu. ■

Asun xumeak zenbat dezakeen

Gida-liburua

Pello Zukiria



Purin d'ortie & compagnie
Batzuen artean
Editions Terrain.
112 orrialde.
15 euro.


JATORRIZKO *Purin d'ortie & compagnie. Les plantes au secours des plantes* Editions de Terrain argitaletxe pininiotar joriaren mozkina da. Gaztelaniaz Tafallako La Fertilidad de la Tierrak izendatu du *Plantas para curar plantas. Para tratar sin química los problemas del huerto*. Asunak-osinak, azeribuztanak, zoldabelarrak, garoak eta bide bazterretako beste belarki mesprexatuek ongari zein sendagarritzat dauzkaten bertutez ari da. Zukua ateratzeko, nekazari izan barik, aski duzu ortu ñimiñoan edo balkoi sotlean zeurentzako barazkiak edukitzeko nahia-ametsa. Edo susmatzea etorkizuna agian liburuen orrietan ez baizik oinpeko ostotetan ote datzan. ■

tzako barazkiak edukitzeko nahia-ametsa. Edo susmatzea etorkizuna agian liburuen orrietan ez baizik oinpeko ostotetan ote datzan. ■

Geure buruaz

Saiakera

Unai Brea



El viaje al poder de la mente.
Eduardo Punset.
Destino.
364 orrialde.
19 euro.

AZKEN IKERKETEK gure burmuinaz zer irakatsi diguten azaltzen digu Eduardo Punsetek adimenaren boterera egindako bidaia honetan, estilo atseginetan, batzuetan kaotiko samarra bada ere. “Nola bizi ahal izan dira milioika lagun beren barnean zer gertatzen zen jakin gabe?”, bere buruari, edo akaso bere burmuinari egindako galdera horretatik abiatuta, Punsetek diosku gure gogamenak ez duela gustuko iritzia aldatzea, baikorra

izateko programatuta dagoela, eta gainerako animaliak baino askeago eta, horrexegatik hain zuzen, zorigaitzokoago bihurtzen gaituela. Besteak beste. ■

Eskola libreria sartzeko leihoa

Saiakera

Estibitz Eizagirre

WILD-EN liburu denetan aurkituko dituzu Ekuadorko eskola librearen oinarriak.

Calidad de vida kontatzen du nola izan zen sorrera prozesua 1977an. Pestazzoli eskolak ez du Hezkuntza programa jarraitzen, bederatzi urtez hurrek bertan hezteko aukera dute eta bukaera diploma bat jasotzen dute, zeinaren bidez edozein ikasketa jarrai dezaketen sartzeko azterketarik egin gabe.

Eskolak besteak beste Montessori, Freinet eta Piaget ditu oinarri, baina horien ekarpenak benetan aplikatzeko, errotik egokitzen du eskola haurraren garapen faseetara: eremu irekiak eta erakargarriak ditu, aktibitate bakoitzerako bereiziak —batean lasaia, bestean aktiboak, honetan ixilak, hangoan zaratzak...—. Irakaskuntzaren abiapuntua da haurrari barrutik datorkiola ikasteko eta heltzeko gogo, eta ez dela kanpotik bideratu edo estimulatu behar. Nekazariarekin parekatzen du: garia landu nahi

duenak lurra prestatzen du, ongarritu, ureztatu... baina behin hazia ereinda, nekazariak badaki berez etorriko dela landarea, “horretarako aurreprogramatuta dago”. Ikasleen ondoan egoten dira hezitzaileak, baina ikasleek erabakitzen dute zer eta nola egin, euren artean adostutako arauak jarraituz.



Eskola libre bateko ikasleak.

Hemen Wildi jarraitzen dioten eskolak baditugu, eta merezi du tarte bat egitea astekarian. Eskola arruntetako irakasle eta gurasoentzat ere aberasgarri da, ordea, liburua: norberaren esko-

la aztertu eta hobetzeko pistak ematen ditu, baita gurasoen funtzioak eta haurraren harremanaz ere. Pestazzoli eskolan hezitzaileak eta gurasoak ontzi berean doaz, eta hori edozein eskolarako da arrakasta gako. ■



Calidad de vida.
Rebeca Wild.
Herder editorial.
264 orrialde.
21 euro.

Siberiara doazen trenen zarata

Nobela

Xabier Letona



Vida y destino.
Vasili Grossman.
Galaxia
Gutenberg.
1.111 orrialde.
26 euro.


BIGARREN Mundu Gerra-ko Stalingrado da liburuaren arima, han gerra kronikagile izandako Vasili Grossmanek zukutzen duena. Eta funtsean, eleberriko pertsonaia ugarien joan etorriekin, Stalinen Sobiet Batasun osoa biltzen dute idazlearen lerrook, sakon, gordin eta era hunkigarrian. Gerra, Siberiako gulag-ak, nazien heriotzaren esparruak, zelatariekiko beldurra, Alderdiaren komisarioak... Stalinismoaren erraiak Alderdi Komunistako kide zokoratuaren begietatik kontatua.

Siberiaranzko trenen zarata iltzatua geratu zait ezkerreko belarrarian. ■

Kazetaritzatik mitora

Kronika

Lander Arbelaitz



Ébano.
Ryszard Kapuściński.
Anagrama.
352 orrialde.
19 euro.

AFRIKA ia 40 urtez alde batetik bestera bidaiatu ostean, kapitulu motzetan bildutako erreportaje zabal gisa ulertu behar da *Ébano*. Bertan kontatzen diren historiek irakurlea ahozabalik utziko dute: europarrek bultzatutako gudak, beren buruaz ihes dabiltzan herriak, “nire aberria euria ari duen hori da” dioten nomadak, jabetza bakar kazola bat duten herritarrak.... *Ébanok* kontinente honek gainetik kendu ezin dituen topikoak saihestu eta bazterreko bideak hautatuz, ikusten ez den aurpegia

letrekin marrazten du. Afrikari buruzko kazetaritza maisulana. ■

Konkistaren historia grisa

Historia

Urko Apaolaza



La guerra de Navarra.
Pejo J. Monteano.
Pamiela.
405 orrialde.
25 euro.

LIBURU HAU ez da saiakera politiko. Ez da eleberriko historikoa. Ezta mikrohistorian trabatzen den ikerketa lokala ere. Ez da iritzi liburua. Ez da gida bat. Ez da hiztegi bat. Liburu hau Historia liburua da. Euskal Herriko historiografian azkenaldian hain eskas diren historia orokorreko liburua. Horregatik bakarrik, eskertzekoa da Monteanoren bederatzi urtetako lana. Nafarroako konkistaren urteurrena gainean dugun honetan, liburu hau mugarri izateko jaio da. XIX. mendeko Boissonaderen obratik horrelako kronika gutxi idatzi da –Pedro Esarteren 2001eko *La conquista de Navarra* da bakanetako bat–.

Baina aurrekoak ez bezala, Monteanoren lanak sintesia du dohain. Gertaera klabeetara jotzen du, bazter bideetan galdu gabe.



SONIKO

Nafarroako bandera.

Anbiguasunetik ihes egin eta ahobizarrik gabe hitz egiten du Monteanok: konkistaz, espainiarren errepresioaz, nafar erreinuaren subiranotasunaz... Baina ez da sinplifikazioetan edota kontzeptu anakronikoetan erortzen; iritzi politikoan zabaltzen ari den “onak eta gaiztoak” –agramondarrak versus beamontarrak– joko labainkorrari uko egiten dio, esaterako.

Ikerketa zorrotza, idazkera ulergarria, kronika beliko ororen bizitasun eta emozioa, eta Nafarroako konkistak berez duen interesa. Liburu honek ez du irakurlea zer suma utziko. ■

Zinema

Sagarren denbora



Ezker-eskuin: Hibai Castro (argazki arduraduna), Txema Uriarte (ekoizpena), Kristiane Etxaluz, eta Txaber Larreategi eta Josu Martinez (egileak).

Josu Martinez eta Txaber Larreategi dokumentalgile bilbotarrek estreinatu berria dute azken filma, *Sagarren denbora*: Afrikako Sao Tomen deportatua dagoen Alfonso Etxegarairen eta Kristiane Etxaluz haren bikotekidearen historia. Jarraipena ematen diote, horrela, *Itsasoaren alaba* filmak hasitako zikloari. Euskal Herrian jasaten den errepresioari buruzkoak dira orain arteko biak eta trilogia osatzea ere ez dute baztertzen.

«Oihuka beharrean, hobe zen historia hau xuxurlaka kontatzea»

Testua eta Argazkiak:

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Nondik sortzen da *Sagarren denbora* egiteko ideia?

Txaber Larreategi: *Itsasoaren alaba* egin eta gero, nabaritu genuen bazegoela hau bezalako historiak kontatzeko gogoia. Kristianek kontatzen du behin, gazteago zela, Telesforo Monzon entzun zuela 36ko Gudaz berba egiten, eta aho zabalik geratu zela; berak eta Alfonsok gu utzi gaituzten bezala. Pentsatzen dugu beharrezkoa dela memoria berreskuratzea.

Josu Martinez: Film biak oso era naturalean ateratzen dira. Duela urte eta erdi, Bilboko Capitol aretoan estreinatu genuen *Itsasoaren alaba*. Kristoren arrakasta izan zuen: jende pila batek ikusi zuen, gustura gainera. Olatu hartan sumatu genuen jendea gosez geratu zela. Zergatik ez egin, orduan, bigarren film bat? Lehenengoa Gizarte Ikerketarako Talde Eragilearen (GITE) beka bati esker egin nuen eta beraiei proposatu genien bigarrena egitea ere.

Aurrekoak lortutako arrakasta zela-eta pozik zeuden, eta baietz esan ziguten.

T. Larreategi: Pozik geratu ziren formatu honekin, filmarekin, irakurri egiten ez duenaren antzeko aukera ematen duelako.

Zergatik deportazioa? Zergatik Kristiane eta Alfonso?

T. Larreategi: Hori ere oso modu naturalean eman zen, hurbiltasunagatik. Aitaren bidez aurretiaz ezagutzen genituen Kristiane eta Alfonso, baita honek idatzi zuen liburua ere [*Regresar a Sara*, Txalaparta 1995]. Kontatzeko historia kementsua bazegoela ulertu genuen.

J. Martinez: Ez ginen ibili deportatu bat aurkitu nahian; bidean aurkitu genituen Kristiane eta Alfonso. Hurbil samar sentitzen genituen, bazegoen hor historia, eta bat egiten zuen aurrekoari jarraipena emateko nahi horrekin. Deportatuaren historia baino, erbestea jorratu nahi

genuen. Kristianeri proposatu ea berehala hasi ginen lan egiten. Iazko apirilean ezagutu nuen Kristiane eta ekainean grabatzen ari ginen.

Hau da, aurretiaz zer egin nahi zenuten bazenekiten.

T. Larreategi: Grabazioa oso arin egin genuen, Sao Tomen egoteko hiru aste baino ez genituelako. Horrek esan nahi du, grabatu aurretik egitasmoa bagenuela garatua, gidaira ekarria, garapena pentsatua, sekuentziak...

J. Martinez: Historia ezagutzen genuen. Segituan elkarrizketa sakonak egiten hasi gintzaizkien, zer kontatuko zuten ikusten, eta horren arabera marraztu genuen proiektua: konta egidazu eta grabatu egingo dut, besterik ez.

Dokumentalean, bidean, gauzak aurkitzen dira. Sagarren ideia, esaterako, bidean ateratzen. Bagoaz bidea egiten, hots, gidodia egunez egun egiten da. Argi genuen erabili nahi genuen tonua: barnetik kontatutako historia, letra xehez. Nahiz eta historia latza izan, baita handia, dramatikoa izan daitekeena ere, ez dugu oihu bat egin nahi izan. Lasaiki kontatu dugu, beraiek bizi izan duten bezala, beren sentimenduekin, beraien izateko manerarekin. Esan nahi dut, hau bezalako historia latzak kontatzean, Kristianek esaten zuen bezala, gutariko edonoren begiekin erretratatu nahi izan dugula, pertsonak erretratatu nahi izan ditugula. Askotan, hedabideetan, pertsona izaera ere ukatu egiten zaielako; badirudi ez dutela sentimendurik. Guk pertsonak aurkitu ditugu, pertsona izugarriak, eskuzabalak, maitasunez beteak, eta hori nahi genuen transmititu film honekin. Pentsatu dugu, beraz, oihua egin beharrean agian hobe zela xuxurlaka kontatzea; letra txikiz kontatu historia latz hauek. Horrela hel gaitezke jende gehiagorengana eta bidean aurrera egin. Bigarrenik, nik uste filmaren mezueta bat dela *Sagarren denbora* titulua: Kristianek kontatzen du momentu batean ez dutela sagarren denboraren zain egon behar, noizbait iritsiko den ametsaren zain, azkenean egotea bezala dela, eta, zentzu horretan, Alfonsok esaten du liburua idatzi zuenean Euskal Herrian sentitu zela. Guk nahi genuke norbaitek filma ikusten duen bakoitzean izan dadila sagarren denbora, Alfonso gurekin dagoelako, beste guztiak ere gurekin daudelako eta sagarren denbora gaurtik hasi behar dugulako.

Zelakoa izan da filmaketa? Jende nahikotxok lagundu dizue, ezta?

J. Martinez: Desastre hutsa bagara ere, badirudi jende askok nahi duela gurekin lan egin. Jendea inplikatu egin da, gustura egin du lan. Zentzu horretan pozik gaude, poliki-poliki taldea sortzen ari delako. Guretzat mugimen-

du txiki bat sortzea inportantea da. Horrexe-gatik animatu nahi dugu jendea honelako gauzak egitera, auzolanean posible baitira horrelakoak, baita beharrezkoak ere.

T. Larreategi: GITEk bidaiak ordaindu ditu. Inork ez du ezer kobratu. Oso diru gutxirekin eginiko filma da. Gaur egun medio gutxirekin –bideo formatuan, batez ere– lan egin daiteke; izatekotan, arazoa hedapena da eta horrelako mugimendua sortuko balitz, berez sortuko lirarteke zirkuituak.

Zelakoa izan da filmak izan duen harrera?

J. Martinez: 60 emanaldi egin ditugu *Itsasoaren alabarekin*, bakoitzaren batez bestekoa 80 pertsonakoa izan bada, jende asko da. Honekin ere, hiru emanaldi egin ditugu. Lehenengoan, Baionan [ekainaren 11n], 200 pertsona sartu ziren eta beste askok kalean geratu behar izan zuten. Dagoeneko 600 bat pertsonak ikusi dute. Jendea oso pozik ikusten dugu, bere burua ikusten duelako gertutik, ezagutzen duten egoera bat.

Mota guztietako leketan egon gara: zine aretoak, gaztetxeak, kultur etxeak... Nahi dugu apur bat zentralizatu horrenbeste emanaldi ez egiteko, geu guztietara joaten garelako, eta Kristiane ere bai. Polita da: komunio moduko zerbitu sortzen da. Nahi dugu hori egiten jarraitu.

Ikusleen parte-hartzea ere nahi duzue, posta elektroniko baten bidez nahi dutena konta dezatela, Alfonsori eta Kristianeri idatz diezaietela.

T. Larreategi: Filma deportazioa apurtzeko beste modu bat da. Hara eroan dituzte bakar-tuta egon daitezene, baina lortzen baldin badugu gurekin egotea, nahiz eta fisikoki ez egon, hori ere bada deportazioa apurtzeko beste modu bat. Argi dago, Alfonsok kontatzen duen bezala, nola sentitzen diren bortxaz kanpoan daudenak berriak jasotzean. Jendeak herriko berriak kontatzea, harremannari eustea, hemen edukitzeko beste modu bat da. Eta inportantea da. ■

AMAGOIA *i* ETXEKAR

Dendaldegi 7 · Urnieta (Gipuzkoa)

La Bretxa Merkatal Gunea

1. solairua, B 04 lokala (ostirala-larunbata)

Donostia (Gipuzkoa)

www.amagoiaietxekar.com

☎ 943 336 170 · 677 202 122



Diskoak

IKER BARANDIARAN

Ostia txarreko hard-rockaren loraldi berria



More circus than ever.
Cool Circus.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 46'12".
10 euro.

Arrasatearrak lozorrotik irten eta bigarren lana kaleratu dute, honako hau iraupen luzekoa. Aurretik hamar hatz-beteko biniloa kaleratu zuten eta gerora Ekonen agurreko bira zela-eta, geldirik izan dute proiektua. Orain indarberrituta datoz eta aurreko lanean erakutsi ziguten high-energy eskandinaviarrari lagun berria gehitu diote: Guns N' Roses-en sleazy jarrera erakutsi nahi duten hard-rock kantu itsaskorragoak eta 1970eko hamarkadako dinosauroen

distira eta gitarra landuak. Halakoetan tempoak bestelakoa bada ere, badira punk-rockaren bat-batekotasuna duten piezak ere. Eta, gainera, biniloko kantak gehitu dituzte. Badirudi punka eta hard-rocka batzearen formulak loratze berria duela. Eta, oso egun gutxitan grabatu badute ere, Jean Phocasen eskua eta etxeko lanak eginda eramatea antzematen dira.

www.myspace.com/coolcircus

Yago Goronaeta - Cool Circus

«Musikak frustrazio handiak ematen ditu, baina intentsitate handiz bizitzen dugu»

Rockak eta zirkoak gero eta antzekotasun handiagoa dute? Zertan?

Bai. Euskal Herrian rock talde bat aurrera ateratzea zirkoaren antzekoa da. Berez 1970eko hamarkadan bazirudien musikariak izarrak zirela, baina hastapenetara itzuli gara berriro: herriz herri ibiltzen ziren musikarietara, hain zuzen ere, aurrerantz ihesean. Gu ere horrela gabiltza.

Jean Phocasekin errepikatu duzue. Zer da berarengandik gehien gustatzen zaizuen?

Honako hau ere grabazio frenetiko samarra izan da, lau egunetan guztia egin dugulako. Lehenengo aldiz Elkarrera joaterakoan zalantzak izan genituen, baina oso gustura gelditu ginen eta errepikatu dugu. Phocasek esperientzia handia dauka, asko mimatzen ditu kantak eta, gainera, arriskatu egiten du. Profesionala da eta gainera oso tipo jatorra.

Punk-rocka guztia alboratu gabe, gero eta gehiago lantzen duzue

hard-rocka. Asmo betea zen?

Bai, aurretik pentsatua genuen. Txarrik ahots erregistro asko ditu eta pena ematen zigun berriro punk-rock kantuek egitea; pauso bat harago eman nahi genuen. Hala ere, biak batzea gustatzen zaigu: punk-rockaren bat-batekotasuna eta hard-rockak daukan ukitu bluesero, zikin eta probokatzailea. Bide horretan gabiltza.

Taldekide gehienek urte asko daramazue musika taldeekin gora eta behera. Zer ematen dizue rockak?

Poztasunak ematen ditu, baina baita frustrazioak ere. Lan handia dauka, ez duzu inoiz dirurik ikusten, baina intentsitate handiz bizi duzun zaleztasuna da: kontzertuak ematea, aurreko uneak, ostekoak... oso



bereziak dira. Dagoeneko odolean daramagu eta ez dakigu beste ezer egiten.

Heavytik zatoz eta hainbeste urte metala egiten ibili ostean, eroso zaude hard-rockean?

Oso heavy-thrash zalea izan naiz beti, baina gehiago disfrutatzen dut hard-rockarekin. Metala teknikoagoa da eta hard-rockak *feeling* handiagoa dauka. ■

ANA ZAMBRANO

TAULA ----- ESKUAREN BARNEKO ALDE	↓	URTETAN DESEGITE ----- NAFARROAKO MENDIA	↓	ARGIZAGI	↓	ONARRIZKO EDARI ----- BURURATU	↓	DUT, GIPUZKOAN ----- NIHAUR	↓	USO AR ----- IBILALDIA	↓	OSO ATSEGIN ----- IBAI, UR- KORRONTE	↓	
←		↓		ZORNEZ BETEA ----- ZAREN HORI	→	↓		↓		↓		↓		
... EMAN, ONARTU ----- PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA	→			↓				PERTSO- NAIAREN ABIZENA ----- POTASIOA	→					
↓								↓		ALOR, EREMU ----- EGOKI	→			
OSTRUKAREN ANTZEKO HEGAZTI	→	HERRI HIZKERAN, ZER ----- MAILU TXIKI							→		EZ EME ----- GIPUZKOAKO HERRIA	→		
↓		↓	AURKA						→	ETXEKO ERREGAI ----- INFIN., KONTATU	→	↓	AIAKO HERRITARRA	
EUSKALTEGI SAREA ----- NAIZEN HAU	→		↓						→				↓	
↓		OXIGENOA ----- AZKAR, KORRIKA	→						→	BEGIRUNE ----- ARRAS, ZEHAHO	→			
“ÁLFERRAK BI ...” ----- HUSKERIA	→	↓		PERTSO- NAIAREN IZENA ----- IHI	↓	OKA ----- SOBERA, GEHIEGI	↓	ZERO ----- MUGATUTA- KO DENBORA	→	ZAKURRA ----- BILO	→			
↓				↓		↓		↓		↓		KILOA ----- PALADIOA	→	
ZELATAN ----- BAKOITZAK BAT	→							MUKI MIN- TZETAN GER- TATZEN DEN HANDITSU ----- 500	→			↓		
↓				ORDAIN, TRUKE	→			↓		ARRAZA	→			

	O	U	I	U	D	U	J
A	H	U	Z	O	R	E	T
A	N	T	Z	A	E	T	X
A	L	T	Z	U	K	U	A
	Z	E			O	N	A
E	M				G	A	S
A	E	K			K	O	N
N	I	O			A	D	E
L	A	N	N	O	O	R	A
P	U	R	Z	I	L	K	E
	K	I	R	I	K	A	P
B	A	N	A	O	R	D	E
					E	N	D

Ezpalak

JON TORNER

Autoedizio topaketak antolatu ditu Galtzagorrik



GALTZAGORRI Elkartek antolatuta, *Marraz(i)Oak* Topaketak egingo dira azaroaren 4an eta 5ean Donostiako Artelekun. *Autoedizio Topaketak Artelekun. Ipuin tradizionalen tolesak: marraz-keia, gidoia eta edizio domestikoa* da topaketaren lema. Bigarren edizio honetan bost ilustratzaile eta beste hainbat idazle bikoteka lanean jarriko dituzte. Parte hartzeko

aukeratua den bikote bakoitzak Harkaitz Cano eta Ignasi Blanch irakasleek gidaturik euskal ipuin tradizional baten egokitzen bana osatuko du. Bi egunetako tailerraren ondoren, epe bat izango dute lana bukatzeko. Parte hartzeko dokumentazioa igortzeko epea irailaren 4an amaituko da.

‘Xahakoa’ pastoralak eskainiko dute Barkoxen

BARKOXEKO herriak nazien aurrean izandako jokaera bipila du ardatz Patrick Queheilleren *Xahakoa* pastoralak. Joan den igandean eskaini zuten lehen emanaldia, baina izango da aukerarik berriro ere ikusteko uztailaren 31n eta abuztuaren 8an. 2.200 ikuslerentzat lekua izango da eta Internet bidez eros daitezke sarre-
rak, www.xahakoa.org helbidean.

Joan Miró (Bartzelona, 1893-Palma, 1983) artista-ren 140 lan jarri dituzte Donostiako Kursaalako Kubo-Kutxa aretoan. *Miró. Poesia eta argia* erakusketa urriaren 12ra arte egongo da zabalik. Lan gehienak Mirók hil aurreko azken urteetan egin zituen, 1956 eta 1983 artean. Mallorcan (Herrialde Katalanak) eman zituen azken urteak.

Jose Luis Rebordinos izango da Donostiako Zinemaldiko zuzendari berria, datorren ediziotik aurrera. Mikel Olaziregik arrazoi pertsonalek bultzatuta utziko du kargua aurten. Rebordinos Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinema Astearen zuzendaria da egun.

Euskadiko Filmategiak 2.000 bobina jaso zituen 2009an dohaintzan, aurreko urtean baino bi bider gehiago. 6.245.329 metro pelikula ditu guztira. Jasotako bobinen erdia herritarrek emandakoak dira. Mikel Arregi zuzendariak herritarrek animatu zituen Filmo-
tekan beren grabazioak uzteko.

• **Iñaki Arakistain musikariak Berrian:** «Zoritxarrez, jazz musikarientzako musika bihurtu da. Baina, musikariok benetan nahi duguna entzun gaitzaten da: Baina, ez da erraza, jazzak berez konplexutasun maila bat dauka eta. Batzuetan entzuleari lehorra egiten zaio eta ulertzeko zaila. Baina, egia da, badagoela jendea berehalakoan bat egiten duena jazzarekin. Baina musikaria saiatu behar da entzulearekin bat egiten, nahiz eta nik ez dudana bereziki hori bilatzen. Ez dut hori bilatzen, baina jendearentzat entzungarriago den musika ateratzen zaib».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

ZIO

● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



gure
arteak
euskarak

Universidad
del País Vasco

BFA
DFB

BIZKAIA
BIZIA

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Charlie Kaufman gizagaixoa

Adaptation.

Zuzendaria: Spike Jonze. Aktoreak: Nicholas Cage, Meryl Streep. Gidoia: Charlie Kaufman.

Urtea: 2002.

114 minutu.

GIZAGAIXOA CHARLIE KAUFMAN, gizona dago, buru-soil geratzen ari da, urteak joaten ari zaizkio gidoigintzan lan arrakastatsurik egin gabe, *Orkidea lapurra* liburua zinemarako egokitzeke eskatu diote, eta burua lehertu beharrean ari den arren, ez ateratzen nola. Hori gutxi balitz: Charlie ez da moldatzen emakumeekin, soziopata samarra da. Oraindik nahikoa ez? Anaia bikia etxean sartuko zaio, gidoi bat idazten hasiko da eta hara, bukatu du, ondo pagatuko diote. Eta emakumeekin ere, Charlie gizagaixoa baino hobeto moldatzen da.

Adaptation galtzaile baten istorioa da. Bere burua etengabe zalantzan jartzen duen gizon heldu patetiko batena. Baita hori baino gehiago ere: sorkuntzaren —ez dut hitza sobera maite, baina...— gainera gogoeta, istorio bat eraikitzeke orduan izaten diren buruhausteen erretratu tarteka exageratu samarra, eta momentu batetik aurrera irrigarria.

Ezinak jota, Kaufman (Nicholas Cage) egokitzen ari den liburuaren egilearekin, Susan Orlean-ekin (Meryl Streep) obsesionatzen hasiko da. Eta anaiaren gomendioei jarraituz haren eguneroko bizimodua espiatzen hasiko da. Momentu horretatik aurrera, filmak thriller baten tankera hartzen du eta ez dira faltako droga trafikoa, pornografia, hilketak...

Eta itxoin, hori lehen buelta baino ez baita. Begiratu fitxa teknikoari. Zuzendaria: Spike Jonze. Akto-

reak: Nicholas Cage, Meryl Streep. Gidoia: Charlie Kaufman. Bai: gidoilariak bere burua bihurtu du protagonista. Eta horretaz jabeturik, pentsatzen hasten zara ariketa gogorra izan behar dela norberaz hain erretratu gupidagabea egitea. Zeure porrot profesional, sentimental, sozialak pantaila handira eramatea.

Baina *omnis homo mendax*, eta gidoilariak zer esanik ez. Dena da beloa, maskara, mozorroa. Charlie Kaufman, benetako Charlie Kaufman, arrakasta handiko gidoilari baina Wikipedian irakurtzen dugunez. Oscar saria irabazi zuen 2004ko *Eternal Sunshine of the Spotless Mind* filmarekin. Gizon argala, buruan kalpar osasuntsua. Zerikusirik ez filmeko Aginako zero horrekin. Anaia bikirik ere ez du, ederra ziria sartu didana. Baina, pentsatzen jarrita, inori interesatzen al zaio benetako Kaufmanen bizimodua? ■



Charlie eta Donald Kaufman, filmeko eszena batean.



Dive Tarpoen urpekaritza





Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoen@euskalnet.net
www.divetarpoen.com

Ihesi

Testua eta argazkiak:

UNAI BREA

Euskal Herria ezagutuz:
Lanestosa (Bizkaia)



Estu, baina lasai

Bizkaiko udalerri txikienak, Lanestosak, Bizkaiko udalerri handienarekin, Karrantzarekin, egiten du muga ekialdetik. Gainerako muga guztiak, eta harreman gehienak, Espainiarekin ditu, Kantabriarekin. Pixka bat Kantabria da, egia esatera, baina pixka bat Euskal Herria ere bai. Batez ere, Lanestosa da. Herri txikia, ederra, zaharra.





Erdi Arotik gaur arte bere horretan iraun du Lanestosako hirigune historikoak, harlauzazko zorua duten kale estuek osatua.

LANESTOSAKO kale guzti-guztietatik ibiltzeko ez da denbora asko behar, hain da txikia. Horregatik, luze gabe amaitu dut herriko hiru tabernetako batean, soziologia saio merkea egiteko asmoz. Han Celiak hartu nau, eta nire itaun-sorta gupidagabeari pazientziaz eta irribarre batez egin dio aurre. Basauritik orain dela zazpi urte etorri zen Lanestosara, hiriko zurrunbilotik ihesi. Guk ihesaldi bera egitea proposatuko dizuegu. Egun bakarrerako edo zazpi urterako, zuek aukeratu.

Euskal Herriaren mendebaldeko muturrean gaude. Tira, hau sekula Euskal Herria izan ez dela diotenak ere badira, bestela esanda, euskara ez dela inoiz izan bertoko hizkuntza. Ematen dituzten arrazoien artean, bada pisuzko bat: Lanestosan, Enkarterrietako mendebalde osoan bezala (Karrantza, Turtzioz, Artzentales), ez dago euskal toponimiarik.

Halako argudioak erabiltzen dituzte batzuek, euskara sustatzeko politikek hemen justifikaziorik ez

daukatela aldarrikatzeko. Herritar gehienek, bitartean, segitzen dute umeak Karrantzako eskolara bidaltzen, D eredura, hara ailegatzeko autobusak eguneroko gainditu behar duen mendeatea txantxetako ez izan arren. Herri osoan familia bakarrak hautatu du Kantabriako eskola hurbilenara doan bide erosoagoa. Hala dio Celiak.

Eskola kontuetan ez, baina gainerakoetan erosotasuna gailendu da. Lanestosa ipar-hego ardatza duen haran estuan eraikita dago, eta historikoki, noranzko bi horietara begira bizi izan dira bertakoak. Mendebalde eta ekialdearekiko harremanak, eta beraz Bizkaia-errekikoak, herria mugatzen duten aldatz gogorre

eragotzi dituzte, eta ondorioz, Euskal Herriaren eta Kantabriaren artean partekatuta dago herritarren nortasuna.

Bizkaiko hiribildu zaharrenetakoa

Herria lehenagotik existitzen zen, baina Lanestosak —arteana Fenestrosa edo Finestrosa izena zeukan— 1287an jaso zuen hiribildu-karta Lope Diaz de Haro Bizkaiko Jaunaren eskutik. Beren historiaren

AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com

AQUARIUM
CENTRO DE INVESTIGACIÓN



DANTZAN.COM

Ezkerrean, San Pedro eliza errenazentista, herriaren erdi-erdian. Haren atzeko aldean dago Plaza Berria; han biltzen dira herritarrek urtero, abuztuaren 5ean, *danza de varas* izeneko dantza tradizionala ikusteko. Goiko argazkian ikus daitekeenez, gizonezkoek bakarrik hartzen dute parte dantza horretan.

oparotasunaz harro daude herritarrek, eta ondo gorde dute Erdi Aroko hirigunea gaurdaino.

Harlauzazko zoruari cutsi dioten kaleetatik paseatzea iraganera bidaiatzea da. Kotxeak, argi-indar kableak, parabolikak, asfaltozko bideak... albo batera utzita, gutxi gorabehera gaur ageri den bezalako izango zen Lanestosa 1556an, Karlos V.a enperadoreak bertan gaua igaro zuenean. Laredotik (Kantabria) Yusteko monasteriora (Extremadura) egindako bidaia luzearen lehen etaparen amaiera izan zen hura. 2000. urtetik hona, irail guztietan, ehunka lagunek errepikatzen dute bidaiaren lehen zatia, Burgosko Medina de Pomar hiriraino, Celiak azaldu digunez. Taberna daukanez, ondo igarriko du, bai, ohiko lasaitasunaren haustura.

Herri zaharrean zaharrak gehiengo
Eustat-en arabera, Lanestosak 295 biztanle zituen 2008an. Baina Celiak, oraingoan kafe hartzera sartu den gizon batek lagunduta, benetan herrian bizi direnak gutxiago direla dio. Eta asko, jubilatutakoak. Behin, ni oraintxe nagoen barra

honetan bertan, horietako bi hasi ziren biztanle-errola buruz egiten, etxez etxe, eta ez ziren 200era iritsi. Lanestosar gehiago egon badago, baina ez dira bertan bizi.

Gauzak aldatuz doaz. Erdi Aroko kutsu magiko hori, Lanestosak hain ondo gordetzen jakin duena, pitzadurak agertzen hasita dago. Modernotasunak ez du barkatzen

Gauzak aldatuz doaz, baina. Erdi Aroko kutsu magiko hori, Lanestosak hain ondo gordetzen jakin duena, pitzadurak agertzen hasita dago. Modernotasunak, edo aurrerapenak, esaiozue gura duzuen moduan, ez du barkatzen. Mende asko ikusi dituzten kale horietako baten aldamenen pisuak eraikitzen ari dira; orain, herrira gerturatzean, garabiak nabarmentzen dira lehenik.

Demografiari bultzada eman nahiak garai hobeetara itzultzeko gogoarekin zerikusia ote dauka? Klean paratutako errotulu batean irakur dezakegu Lanestosan, 1900ean, 700 biztanletik gora, lau sendagile, beste hainbeste errota, eta hiltegi, kasino, antzoki eta eskola bana zeudela. Oparotasun hura indianoei zor zitzaien, neurri handi batean. Haien etxez beteta dago herria, batez ere Laredotik datorren eta herriko kale nagusia den errepidearen ertzak. Izan ere, bide hori Lanestosako zabalgune bihurtu zen indianoen eraikitze-sukarri esker.

'Danza de varas'

Celia lanez gainezka ibili ohi den beste data bat abuztuaren 5a da. Urteko jairik handiena ospatzen dute lanestosarrek egun horretan, Elurretako Ama Birjinaren omenez. Belaunaldiz belaunaldi gorde den *danza de varas* delakoa dantzatzen den eguna da. Arku-dantza mota hau oso ohikoa da Kantabrian; Lanestosan, goizez herriko kaleetatik ibiltzen den prozesioaren aurretik dantzatzen dute etengabe, eta



Zubi Zaharra, Calera ibaiaren ubidearen gainean. Uda oro guztiz lehortzen da Calera, ura lurzoruak xurgatzen du eta.

behin kalejira amaituta, Plaza Berrian. Hortxe elkartzen dira herri-tarrak hitzordu garrantzitsuetan.

Plaza Berritik metro gutxira, bien artean Errenazimenduko eliza dagoela, Plaza Zaharra dago, baina ez da berez plaza, eraikinen artean suertatu den gune zabala baizik. Hori da Lanestosaren benetako erdi-gunea, herriaren hauspoa. Erdi Aroko itxura daukaten etxe asko ikus daitezke hemen, Kantabriako ohiko balkoi eta guzti. Nekazari-

etxe izena ematen zaie, baina ez nahasi: batzuk indianoen etxeen maila berean daude, esan nahi baita garestiak direla. Eta Erdi Aroko itxura izanagatik, mendea pasatxo besterik ez du horietako batek baino gehiagok.

Kobenkoba

Erdi Aroa baino askoz antzinagora joan nahi duenak, udan lehor-lehor egoten den Calera ibaiaren bestaldera igaro eta Karrantzara doan

bidea besterik ez du hartu behar. Han, lehen edo bigarren kurban, ez naiz zehazki gogoratzen, Kobenkobako sarrera dago. Leize baten barruan kokatuta, paleolitoko artearen interpretazio zentroa eskaintzen du Kobenkobak. Iazko abendutik dago zabalik, eta sarrera Lanestosan duen arren, Karrantzako lurretan dago. Zin egiten dizuet, hala ere, ez dela asko ibili behar bertara iristeko. Lanestosa benetan txikia da, hori da kontua. ■

Atxurra Hotela


Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Hozte-sistematik gabeko infragorri-betaurrekoak

FILMETAN ikusi izan ditugu gauez ikusi ahal izateko betaurrekoak. Betaurreko horiek izpi infragorriak baliatzen dituzte beroa emititzen duten gorputzak ikusi ahal izateko. Baina funtzionatu ahal izateko tenperatura -193°C -ra jaisten duen sistema baliatu behar dutenez, oso garestiak eta astunak izaten dira. Alemaniako Duisburg hirian dagoen Fraunhofer Institutuko ikerlariek izpi infragorrien bidez eta hozte-sistematik gabe funtzionatzeko tresna garatu dute.




WWW.FRAUNHOFER.DE

Sistema horren bidez izpi infragorrien teknologia nanoteknologiazko bidea abia dezake, eta industri aplikazio ugari erabilgarri izan daiteke. Lehen erabilpenetako bat automobilgintzan aurreikusten da, batez ere gauez gidatu behar denentzako pertsonak eta animaliak detektatu ahal izateko. Beste erabilpen bat, epe motzean, sutea dagoenean etxeetan itxita geratu diren pertsonen detekzioa izan daiteke.

Super-eroankortasuna gero eta tenperatura handiagoetan

SUPER-EROANKORTASUNA joan den mendetik ikerlariek duten ametsa da. Super-eroaleak elektrizitatea oztoporik gabe garraiatzen duten materialak dira, baina egun, hori -270°C -tan baino ez da lortzen.



WWW.SCITECH.AC.UK

Munduan super-eroankortasunaz baliatzen diren sistemak eskasak dira, batez ere garestiak eta oso handiak direlako.

Erresuma Batuko Rutherford Appleton Laborategiko eta Frantziako ESRF Laborategiko instalazioak baliatuz, ikerlari talde batek metalez eta buckybolaz $-C-60$ karbono atomoz sortutako bolak osatutako material batean oso eroankortasun-maila ona lortu dute, tenperatura egoki samarrean.

Emandako datuak oso urriak dira. Ez dakigu zein material erabili duten, ezta zein tenperaturatan lortu duten eroankortasuna ere; antza, ikerketa aurreratu arte ez dute datu gehiagorik emango.

Erregairik gabeko lehen hegaldia gauez

HB-SIA eguzki-abioiaren prototipoak 26 orduko hegaldia burutu du Suitzan. Abioia 8.700 metrora igo eta, han, bere 12.000 zelula fotovoltaiok bateriak kargatu zituzten, gauean hegaldia egitea ahalbidetuz.

<http://ttiki.com/15322> (Frantsesez)

Europa iparraldeko gizakiaren arrastorik zaharrenak

Erresuma Batuko ekialdean, Happpisburgh-en, topatutako aztarnategietan 800.000 urtetik gora dituzten tresnak atzeman dituzte; silexezko 70 ale, hain zuzen ere. Tresna horiek eta oraindik aurkitzeko dagoena baliatuz, historiaurrea hobeto ezagutzea espero dute ikerlariek.

<http://ttiki.com/15323> (Frantsesez)

Mexikoko Golkoko dortokak salbatzen

AEBen inoiz egindako salbamendu-kanpainarik handiena egin nahi dute, dotokek Floridako eta Alabamako hondartzetan dituzten 800 habia baino gehiagotik arrautzak lekualdatuz. Guztira 70.000 arrautza aldatu nahi dituzte lekuz, eta jaio daitezkeen 50.000 dortokari bizitzeko itxaropena eman.

<http://ttiki.com/15325> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Zakurraren hagina

Zakurraren putza, zakur eztula, zakurraren biolina, zakurkeria, zakur zaharra, zakur alferra, zakur gosea, zakur zuria... eta zakurraren hagina. Tolosako hagin hau ederki menderatzen ari dira inguruko nagusien zakurren pixek. Zakur muturreko nagusiak txakurra paseatzera atera eta etxepeko haginari (*Taxus baccata*) pixa. Nagusiaren muturra izango du bai txakurrak, eta laster ihartuko den haginak ere bai.

Euro beltzak beltz

AROTZAK BEGIKO DU INTXAURRA, eskuko, hatzeko, mamiko. Izugarri estimatua izan da zurgindegiako bankuetan, lanerako mahai berezi horietan. Orgagintzan eta tornu lantegietan zur nagusietakoa izan da. Gerezia izango zen haren luxuaren aparren pare, baina lizarra, haltza, gaztaina, pagoa, astigarra, zumarra eta abarrak itzalpean zituen. Apar handikien beharrik gabe, haritza magikoa eta sekulako hagina besterik ez ditu izan nagusi.

Arotzak mamiko du intxaurra, baina, ba al da arotzik? Gaur egun ez duzu erraz topatuko arotz baten arrastorik. Badut nik lagun kuttun bat arotz, eta ero, burutik dago. Intxaurrak txora-txora eginda dauka. Azkenekoa ere ederra botea du, ez du bada intxaur beltzezko ohol erraldoia erosi! Bost metro luze, metro bete zabal eta sei zentimetro eta erdi lodi da erraldoia. Itxuragabe ordainduko zuen Portugalgo Bragança ingurutik abiatu eta batetik bestera ibili ostean Arabako zurgindegi batean atseden hartu duena. Ez diot galdetu zenbatean kitatua duen, baina asko balio du, badakit, milaka eta milaka euro. Antzeko neurriak dituen beste ohol baten berri banuen eta saltzaileari deitu diot, Castillara, eta mutur-muturretan bota dit: han bertan hartzera 12.000 euro. Luxuetan luxua. Paregabeko mahaia egin nahi duenik bada, ohole-rako bidezidorra erakutsiko diot.

Arma luzeen kaxak edo ipurdiak egiteko ere ohiko gaia da intxaur beltza. Eskopeta, fusil eta antzekoen ipurdi edo kirten hori egiteko behar den intxaur puxketa beltz ordaintzen da. Ordainetan zera eskatzen zaio egur zatia: lanerako, burdinari lotuko zaion aldean beta zuzenak, tiroarekin zartatzeko arriskurik ez izateko eta aldamenekoan aurrean finolatzeko, atzeko alde zabalenean eta kanpoko aldera begira beta-lore ahal den ikusgarrienak. Salneurria? Mila eurotik gora erraz ordain daiteke, intxaur puxketatxo soilak!

azkonobieta
basogintza lanak

baso-berritzeak
kimatze lanak
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g
20159 Asteasu (Gipuzkoa)

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Agurea eta Artetxe

DONOSTIA, 1960KO ABUZTUAREN 21A. Ernest Hemingway eta Jose Artetxe Maria Cristina hotelean bildu ziren. 1952ko irailean idazle estatubatarrak *The old man and the sea* nobela lehenengoaz argitaratu zuen eta, zortzi urte geroago, Artetxeren asmoa Hemingwayk nobelaren egile eskubi-deak doan ematea zen. Idazleak baiezkoa esan zuen eta 1963an, Itxaropena argitaletxeak *Agurea ta itxasoa* kaleratu zuen, Anjel Goenagak itzulita. Edizio horren hitzaurrean Artetxek berak Maria Cristina hoteleko bilera haren nondik norakoak jaso zituen.

“Esku artian daukazun itzulpen onekin ba det zer ikusi”, idatzi zuen Artetxek. “Patxi Itxaropenak etziran pakerik ematen udaberritik.

– Joan ari Hemingway'rengana eta eskatu akiok baimena bere nobela euskeraz argitaratzeko”.

Zezen zalea izanik, Hemingway Maria Cristina hotelean geratzen zen zezenketa egunetan. Horieta batean Artetxeri idazlea han izango zela abisua eman zioten eta “joan nintzan astiro hotelera. Bertako saloi zabal eta ederrak utsik zeuden. Udara

igande arratsalde artan inor etzan agertzen. Denak noski korridan ziran”. Lehenik “toreadore” bat sartu zela dio Artetxek, gero beste bat eta “alako batian Hemingway bizarduna agertu zan. Doña Maria'k [hoteleko zuzendariak] gerturatzeko kiñu egin ziran. Baño etzan errexia idazlearekin alkarizketa. Ez bai nintzan ni bakarik bere zai”.

“Ate ondoan jarri nintzan ausarki. Eta aterako zan une artantxe bertartu nintzaion. Baita ere itz gutxitan esan bear zana.

– Mendi inguru oetako izkuntzan agertu nai litzake zure *El viejo y el mar*. ¿Baimena ematen al-dezu?

– Nik ez daukat ezer euskaldunen kontra (Yo no tengo nada contra los vascos) –erantzun ziran ia berbertan begirazun adiskidetsu biguin batez biltzen nindularik.

Eta berialaxe:

– ¿Ondo egiña al-dago traduzioa?

– Bai, oso ondo gañera.

– Egizue ba nai dezutena. Nere abogaduari eskribitu akiozute.

– ¿Nora eskribitu bear da?


Eta eiskeñi nion pluma eta baita Buenos Airesko eguneroko bat, beste paperik esku artian ez nuan da. Baita berak azkar asko eskribitu ere paper ertziar: ALFRED RICE 640. 5th AVENUE.

– Eskerrik asko.

Alkarri eskua eman genion eta estutu. Eta an joan zan beste lagun batekin arrimaillpean atea irikita zai zeukan automobil distikorrera”.

Hemingway hurrengo udan hil zen, “nobela euskeratuta” argitara eman baino lehen.

Ernest Hemingway 1953an, nobela idatzi eta gutxira.



Arrastoak

Nankineko sarraskia eta zentsurarena

BIZIAREN ETA HERIOTZAREN HIRIA Lu Chuan txinatarraren filmak Urrezko Maskorra jaso zuen iazko Donostiako Nazioarteko Zinemaldian. Bere herrian, aldiz, sariak jaso beharrean, zentsura jasan behar izan du. Filma zinema aretoetatik kentzea erabaki du Txinako gobernuak, interbentzionismo kultural zorrotza agerian utziz.

Filmak 1937ko Nankineko sarraski ikaragarria du hizpide. Sarraskia japoniarrek txinatarraren aurka burutu zuten. Gaiak, horrenbestez, ez dirudi “dese-gokia” txinatar agintarientzat.

Baina zuzendariak ikuspuntu objektiboa erabili nahi izan zuen Nankinen gertatutakoa kontatzeko; txinatarraren eta japoniarren ikuspegiak jaso zituen. Hori izan da, nonbait, gobernuari gustatu ez zaiona.



Donostiako Zinemaldian saritutako eta Txinako Gobernuak zigortutako filmaren kartela.



Bakerako hezkuntza

Alderdikerien azpian, sendatu beharreko zauriak

Medioetan sututako polemika baino askoz sakonagoa da eskoletan gatazkak bideratzeko eta elkarbizitza hobetzeko egiten den lanketa. Hezkuntzako adituei geletan ikusitakoak erakusten die ikasleekin ibilbide bat eginda edozein gai aztertzeko mamurik ez dagoela. Estrategia eta helburu politikoak utzi, eta pertsonen esperientzietatik ikastea da kontua.

ESTITXU EIZAGIRRE

BAKEAREN eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana (2008/2011) nola sortu zen jakiteak pista asko ematen ditu, beronen birformulaziotzat aurkeztu den Biziki-detasun demokratikoa eta indarkeria deslegitimatzea (2010/2011) planaren nondik norakoak ulertzeko. Gorka Ruiz Bakeolako koordinatzaileak kontatu digu prozesua. Bakeola EDE (taldeko gatazketarako bitartekaritza zentroa) fundazioko kide da eta bakerako hezkuntza lantzen du, hezitzaileekin, eskolekin eta administrazioekin harremanetan. Bere hitzetan, 1998an elkartu zituz-

*ten lehen aldiz administrazioiko erakundeek bakearen inguruko elkar-teak, hezkuntzan zerbait egiteko. Dokumentu bat egin zuten, *Educar para la paz en Euskal Herria*(...). Lehendakaritzak koordinatu zuen dokumentu hau, baina elkarte eta gizarte mugimendu pila batek hartu zuen parte. Hortik, 2002an hezkuntza arautuari buruzko diagnostikoak egin zituzten ikastetxe eta elkarreetan, gai hauek nola zeuden neurtzeko: giza eskubideak, elkarbizitza... Bi dokumentu horietan agertzen da interesgarria litzatekeela EAEko bakerako plan bat egitea.*

Ruizek gogoratzen duenez: “Jon Mirena Landa sartu zen Giza Eskubideen zuzendari, eta elkarreetatik esan genion komeni zela bakerako euskal plan bat egitea, behetik, gizartetik ehundua eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutakoa. Landak horren aldeko apustua egin zuen”. Hamalau hilabeteko prozesu parte-hartzailea izan zen planaren aurrekaria: lan egin zuten elkarreetekin, Eskola Kontseiluarekin, Arartekoarekin, Nazio Batuekin, Europako Kontseiluarekin, ikastetxeekin, erakunde denekin (Eusko Jaurlaritza-Foru Aldundiak-Eudel-udaletxeak)... eta denen



JON C. HODGSON



JON C. HODGSON

Jon Mirena Landa eta Gorka Ruiz.

artean eraiki zituzten diagnostikoa eta planaren ildoak. “Plana iritsi zenean adostasun handikoa zen” baieztatu du Ruizek.

“Hor hasi zen polemika”

2006an hasi zen diagnostikoa, plana 2007ko abenduan onartu zen, eta 2008-2011 eperako jarri zen martxan. Ruizen hitzetan, “hor hasi zen polemika. Orduan jada oposizioa alderdiek oraingo azentuak egin zituzten: besteak beste ETaren indarkeriaren gaia diluituta geratzen zela...”. PSEk ekarpen horiek lan prozesuaren barruan egin zituen, eta integratu egin ziren planean. “Baina publikoki oposizioa desmar-katu egin zen”. Ordea, Plana onartu egin zen Gobernu Kontseiluan, oposizioak “babes kritikoa” eman ziolako.

Plana martxan jarri zen eta honen barruan garatu zuten *Bakera-ko urratsak*, biktimen testigantzak biltzen dituen unitate didaktikoa. Giza Eskubideen Zuzendaritzak gidatu zuen, eta Hezkuntza Saileko teknikariek landu zuten alde pedagogikoa. Emaizten ebaluazioa kan-poko agente independente batek egin zuen, EHuko Maite Garaigordobil buru zela, eta emaitza hauek argitaratu egin ziren, unitate didaktikoa hobetzeko. Sei eskoletan aplikatu zen bi urteko esperientzia pilotuaren ostean, materiala prest zegoen eskola denetara zabaltzeko. Eta Berritzeguneetako Garatu programan (irakasleak trebatzeko) eskaintzeko irakasleentzako materiala prestatzen ari ziren. Jon Mire-

na Landak, orduko Giza Eskubideen saileko zuzendariak dioenez, “ia dena eginda zegoenean”, Gobernu aldaketa etorri zen, eta “jarraipena eman beharrean lan hori dena pikutara bidali eta beste planteamendu bat egin dute”.

Ruizek dioenez, “Gobernu berria sortu zenetik jakina zen plana birformulatzen ari zirela. Baina ez da prozesu parte-hartzailerik izan. Lehen zirriborroa iritsi zitzaigunean Eskola Kontseiluak, elkarteak, eta erakunde batzuek hitza hartu genuen esateko beharrezkoa zela aurreko plana kontuan hartzea, prozesu parte-hartzailea beharrezkoa dela... Alegazioak egiteko 15 eguneko epea ireki zen, tartean Aste Santua zegoela”. Denbora horretan egin zituzten euren ekarpenak entitateek eta eskatu zuten prozesu zabalago bat ireki zedila. “Azkenik, maiatzean epea luzatu zen, eta bakerako 34 entitatek osatzen dugun Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarten foroan dokumentu landuago bat egin genuen”. Planaren birformulazioan erakundeek egindako ekarpen batzuk kontuan hartu zituzten.

Birformulazioa nola onartu zen azaldu du Ruizek: “Gobernuak argi zuen aprobatu egin nahi zuela eta EAJrekin negoziatu zuen. EAJk lortu zuen birformulazioan txertatzea aurreko planaren zati handi bat. Maiatza bukaeran, bake jardunaldi batzuetan bota zuten ‘badugula akordioa!’. Hori komunikazio formalaren bezperan izan zen. EAJk egun horretan esan zuen

baietz, ados zegoela ildo nagusiekin, baina Gobernuak Kontseiluan aurkeztu zuenean, EAJk “babes kritikoa” azaldu zuen, alegia, PSEk Plana onartzeko erabili zuen formula bera. Alderdi politikoen jokoa da”. Ruizek salatzen duenez: “Ojala indar hori jarriko balitz ekintzetan, irakasleen prestakuntzan... hilabeteak eta urteak pasatzen direlako polemikan, eta ez delako aurrera egiten”. Gaia “arduragabekeriak” eraman dela gehitu du: “Horrelako gai sakona, serioa, eta sekulako karga duena, ezin du erakunde batek pentsatu hain era sinplean konponduko duenik. Horrela gertatu da gertatu dena. Desastrea izan da. Prozesua burugabekeria bat izan da”.

Emaitza: Izenburu berria

Planari izena aldatu badiote ere, horrela baloratzen du Ruizek: “Zabor mediatiko eta politiko partidistaren azpian, benetan gelditu dena da aurrekoa bere horretan, gehi Gobernu berriak gehitu dituen hiru azentu” (hurrengo atalean aztertuko ditugu). “Aurrekoaren *kor-taipega* da, birformulatutako dokumentuaren zati handi batean, ‘bake eta giza eskubideen hezkuntza’ jar-tzen zuen lekuan eman diote F5 teklari (aldatu aginduari) eta jarri dute titulua ‘bizikidetasun demokratikoa eta indarkeria deslegitimatzetza’”. Aurreko ekintza askori titulua bakarrik aldatu bazaio ere, hiru azentuak antzematen direla dio, “ez dira literatura hutsa”. Izen aldaketaren atzean dagoen ikuspegi aldaketa azaltzen du birformulazioaren Sarrerak (5-6 orriak): “Gobernu berriaren balorazioa da bakearen aldeko hezkuntza ‘disolbatua’ geratu dela giza eskubideetarako hezkuntzan egindako lanketa orokorrean (...)Euskadik bizi duen errealitatea aintzat hartuta –biolentzia terroristaren zartadak eta biolentzia legitimatzen dutenak jasan behar ditu oraindik–, komenigarria da arreta eta lehentasun osoa ematea bizikidetasun demokratikoaren arloan eta biolentzia deslegitimatzearen arloan egin beharreko esku-hartzeari”.

Jon Mirena Landak dioenez, “Itxuraz aurrekoaren birmoldaketa denak, egiten duena da aurrekoa txi-

Antonia Ozcariz, Hezkuntza sailburuordea "Plana jada aplikatzen hasia dago"

Biktimak gelan: Eskola bakoitzak zer gutxieneko bete beharko ditu eta zer aukeratu?

Pairatutako sufrimenduaren kontaketa baliabide pedagogiko baliotsua da, Euskadiko Eskola Kontseiluak esan zuen bezala. Nola egin erabakitzeke, zuzenean edo bitartekoekin, ikastetxeei autonomia handia aitortzen zaie. Horrek dakar berarekin ikastetxeek erantzukizun handia dutela zentro eta ikasle guztientzat jarritako helburu hauek lortzeko.

Plana egitetik gelan aplikatzera: zer puntutan dago prozesua?

Plana jada aplikatzen hasia dago: curriculumarekin erformatu egin da; udan hasi dira lehen formazio ekintzak, ikasturtean zehar jarraituko dutenak; lanean ari gara aurreko planean aipatzen ziren material didaktikoak birformulatzeke; baita elkarbizitzarako behatokia hobetze-



ko ere; eta iritsi gara bukatzera ikastetxeetako elkarbizitza planak orientatzeko balioko duen informea. Informe hau ibilbide luzeena duten ikastetxeen arteko lanketa zehatz baten ondorio da... finean, martxan gara.

Nola zabalduko duzue Plana irakasleentara?

Hezkuntzako profesionalek bereiz ditzakete argi zein diren plan hau egikaritzean lortu beharreko helburuak. Horretarako, komunikazio zuzen eta jarraia ahalbidetzen duten espazioak ugaritzen ari gara, ahaztu gabe hezkuntza egiturak dituen bideak (Berritzeguneak, ikuskaritza...), eta ohiko informazio espazioak. Bide batez, plana ezagutu nahi duen edonork egin dezake kontsulta eta bere iritzia eman www.irekia.euskadi.net gunean, herritarren parte-hartzea bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak irekitakoan.

kitu. Aurrekoak giza eskubideekin zerikusia duen dena arautzen zuen. Honek beste bihotz bat du, eta beraz beste izaki bat da. Baina hori egiteko kontsentsua behar da, ezin du Gobernuak bakarrik erabaki. Ez da arrazoi morala eskuratzeko lehia, denok onartutakoa behar du".

Hiru azentuak

Aurreko planarengandik bereizten dituen, hiru azentu edo printzipio dira: "Indarkeriaren biktimak planaren erdigunea izatea, erakunde demokratikoen aldarrikapena eta terrorismoa eta zilegi ez diren gainerako indarkeriak deslegitimatzea".

Indarkeriaren biktimek zer ulertzen duen azaltzen du birformulazioak, 38-39. orrietan: "(aurreko Planean) ez da terrorismoaren biktimak gisa duten bereizitasuna aintzat hartzen, eta 'indarkeria sufritu edo sufritzen duten pertsona' gisa hartzen dira. Hori, bada, nahasgarria da indarkeria-forma bakoitzaren bereizgarritasunari dagokionez. Horren aurrean, beraz, proposatutako berrikusketan argi utzi behar da indarkeria terroristak jasoko duela hezkuntza-arreta espezifikoa (dagozkion espazio eta moduekin), hark sortutako biktimei laguntza

emanez". ETaren biktimek zehaztasuna irabazi duten bitartean, aipatu ere ez ditu egiten planak gainerako biktima politikoak. Planaren birformulazio honi erantzunez, Baketikek zera eskatu du *Bi ekarpen* dokumentuan, "Giza eskubideen urraketan osoko ikuspegi aldeanitzaren lantzea anitza izan beharko du, doakoa eta bakoitzaren arrazoi edo posizionamendu politikoetatik at garatua".

Bigarren azentuaz galdetu diogu Ruizi eta bere ustez, "Erakunde demokratikoen errespetua eta defentsa eta abar, hori alderdi politikoaren mezua da, ulertzen dutelako ETaren inguruak erakunde demokratikoen kontra egiten duela. Bake hezkuntzarako planean desenkatuta sartu dute. Zeren lantzen baditugu gatazkei aurre egiteko gaitasunak, enpatia, etsaiaren irudiaren deseraketa, humanizatzea, indarkeriarik eza... Lanketa horrekin beste esfera batzuk –demokrazia, parte-hartzea, erakundeak– indartuta aterako dira. Eta gainera, erakunde demokratiko baten aurka egoteak, ez du zertan biolentzia izan".

Hirugarren azentuan sartuta, Baketikek *Bi ekarpen* dokumentuan

agertzen du "indarkeriaren zilegitasunik eza onartzeak bere arriskuak" izan ditzakeela: "Arazoa da erabakitzea nork zehazten duen zerk legitimatzen duen indarkeria edo zerk kentzen dion zilegitasuna. Eta hemen topo egiten dugu arriskuekin eta norberaren aldeko interesekin. Kontzeptuaren erabilera anbiguoak edozeinek norberaren ideiekin bat egiten ez duten proposamen, diskurtso edo ekimen horiek indarkeriaren zilegitasunaren aldeko faktoretzat hartzea ahalbidetzen du. Horrela, premisa positibo batetik abiatuz, indarkeriaren zilegitasunik eza onartzea den bezala, norberaren interesak defendatzen dituen terrorismoaren erabilera politiko interesatuaren beste erabilera modu batekin egiten dugu topo. Bakea, askatasuna, justizia edota berau bezalako kontzeptuek beti dute perbertsio honen arriskua".

Barne Sailak idatzia, eragileek leundua


Birplanteamenduaren Sarrerak Gobernuaren egitasmoan kokatzen du hezkuntzako plan berritua: "Gobernu honek, terrorismoaren aurkako borroka, elkarren osagarri diren hiru esparrutan oinarritzen

du: terroristak jazartzea eta atxilotzea; terrorismoaren bortizkeria babesten eta justifikatzen duten jarraera eta jokabideak kritikatzeko eta horiei aurre egitea; eta balio demokratikoak sustatzea eta orokortzea”.

“Agiri hau egiteko arrazoiak” atalean adierazten da, batetik aurreko planaren bi urtez behingo ebaluazio eta egokitzapena egitea tokatzen zela, baina bestetik, bi gertakizunek ekarri dutela berrikusketa: bata da Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legea, eta bestea, 2009an Eusko Jaurlaritza aldatu izana. Jon Mirena Landak argi du politikatik hezkuntzarako egindakoa dela. Idazkeran ere nabari du hori: “Luma desberdinak antzematen dira, badira luma gogorrak Barne Sailak idatziak, eta beste luma batzuk leunagoak”. Birplanteamenduaren zirriborroa azkenik onartu denaren laurdena baino ez zen luzeraz, eta edukiz hiru azentuak azaltzera mugatzen zen. Zirriborroari egindako alegazioen emaitza izan da aurreko plana ia osorik gehitzea, lehen azaldu dugun bezala. Hizkeraz ere gordinagoa zen: zirriborroa ezezkotz adierazia zegoen, onartu dena, aldiz, baiezkotz eta leunduta, nahiz eta gizartearen definizio negatibo batzuk mantentzen diren, adibidez, 8. orrian: “intolerantziarekin, gorrotoarekin eta indarkeriarekin luzaroegi bizi izan den herria”.

Zer egin da orain arte eskolan?

Joxe Mari Arakama Elkarbizitza mintegiko koordinatzailea da, Lasarteko Berritzegunean. Azaldu digu elkarbizitza positiboa lantzen dela eskoletan: “Elkarbizitza positiboaren filosofia da gatazka aukera bezala hartzea bizitzeko eta elkarbizitzeko ikasteko”. Legez eskola bakoitzak bere *Elkarbizitza Plana* egin behar du, eta organo berri bat sortzen da ikastetxe bakoitzean: Behatokia. Honek ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostiko bat egiten du, eta egoera sakon aztertu ondoren, sektore guztien partaidetaz egiten du bere Elkarbizitza Plana. Normalean, elkarbizitza planean lantzen dira hainbat gizarte trebezia: gatazkak konpontzea, adimen emozionala, bitartekaritza,



Bai kartel hau eta baita erreportajea ireki duen “Denon artean bakea!”, Zarauzko Udalak antolatutako “Irudikatu zure mundua” lehiaketan parte hartu duten bi dira.

negoziatzea, entzuten ikastea...

Ruizek oso positibo baloratzen ditu *Elkarbizitza Planak*: “Makrogatazka bat landu nahi izatea, askotan ez dugunean gaitasunik gure gatazkei aurre egiteko klasean, etxean eta abar, hegan egin nahi izatea da. Elkarbizitza Plana oso oinarri ona da, egunerokotasunean ditugun gatazkak lantzeak ahalbidetzen duelako dimentsio eta plano konplexuagoetako gatazkak lantzea”.

Eskola bakoitzeko *Elkarbizitza Planaz* gain, lehen aipatutako *Bakerako urratsak* unitate didaktikoa nabarmendu daiteke: 120 ekintzen sorta biltzen du, sekuentziaz sekuentzia, giza eskubideetatik hasi eta biktimekin bukatu arte. 12 orduko unitate didaktikoa da, eta azken 2 ordutan ETaren eta GALen biktimen testigantza jasotzen du.

Zaila baina landu beharrekoa

Ruizek dioenez: “Lehenik planteamendu orokorrako batetik landu behar da indarkeria eta biktimen gaia, baina gero errealitate zehatzei erreparatu”. Hori bai, helduak aurretik: “Helduek konpondu gabe dituzten gatazkak gelara eramatea, hasi aurretik jada porrot ziurra da. Nola dinamizatu du irakasle batek aktibitate edo klasea, berak ere maila pertsonalean erantzun gabe, itxi gabe edo pausatu gabe badu gaia? Irakasleagoa ez dela ausartzen? Eta nola ausartuko da ba! Hau ez da torlojuak egitea, hau

da tematika sozial konpondu gabe bat lantzea, gizartearen kontsentsurik ez duena, eta identitatea eraikitzen ari diren gazteekin gainera”.

Baina landu beharreko eremua ikusten du: “Gizartearen zerbait partekatzen badugu, dira oraindik bizirik dauden sufrimendu errealitate desberdinak. Pedagogiaren eremuan, hor ematen da pertsonen arteko konexioa. Historia bera eraiki eta ados jartzea ezinezkoa da. Baina memoria partekatua egitea, zure kontakizunak eta nireak gehitzea, eta onartzea izan ditugun bizipen desberdinak eta hortik aurrera begiratzeko, hori Euskal Herrian noizbait egin beharko da. Eta egiten ez badugu, beste trantsizio espainiar batean egongo gara, ‘bakearen izenean, amen; denok egin ditugu akatsak eta ez diezaiegun begiratu’. Baina Euskal Herrian aukera dugu atzera begiratu eta esateko ‘honetan guztian hanka sartu dugu, eskubide hauek urratu dira eta egin genituen barbaritateak. Egia da. Eta konpromisoa hartzen dugu errepikatu ez dadin. Eta orain begiratu dugu aurrera’. Hori landu daiteke ikasleekin gelan”.

Ariketa horren beste muturrean dauden gizarte mekanismoak salatzen ditu Ruizek: “Erlatibotasun moralak dago hemen. Hil duten pertsona berdez bazihoan ongi, eta urdinez bazihoan gaizki. Hori aberrazio etikoa-moral izugarria da. Eta korporatibismoa dago Giza Eskubideetan. ‘Giza Eskubide denak

"Pentsatu nahi dut irailean iritsiko zaigula proposamen zehatza Berritzeguneetara. Oraindik ez daukagu"

JOXE MARI ARAKAMA

pertsona denentzat, eta egoera denetan' ideia hori ez izatea gauza denen zutabe, oso larria da. Nire eskubideak urratzen badira oso larria iruditzen zait, baina beste aldearenak direnean, hor konpon... Deshumanizazio handia dago".

Gaia lantzeko metodologia

M11-ko atentatua DBHko ikasleekin lantzeko unitate didaktikoak prestatu zituen Bakeolak, Eusko Jaurlaritzak 12 ikastetxetan paratu zuen erakusketari lotuta. Hiru pausoko ibilbide pedagogiko honek euskal gatazka lantzeko ere balio leza keela dio Ruizek: "Enpatizatzea, etsaiaren irudia deseraikitzea eta egoerak humanizatzea, hori da edozein unitate didaktikok egin behar duen ibilbide emozionala". Hauek dira unitate didaktiko haren urratsak:

1.- Gertakizunen analisia egitea. Ikusmen fokoa zabaltzea, ulertzea. Atentatu batek biktimak utzi ditu, baina zergatik gertatu da?

2.- Jarreraren lanketa. Nola kokatzen naiz ni errealitate horren aurrean? Ikuspegi sozio-afektibotik, emozioetatik lan eginaz, bizipenetatik, enpatiatik. Horrek humanizatu egiten du egoera. "Beste"aren irudia izatetik zure errealtatera ekartzen duzu gaia. Sorrarazi dituen sentimenduak bideratzen dira. M11ko kasuan, "Biktimek bideo eta argazkietan kontatzen zuten nola bizi izan zuten egun hura eta hurrengoak. Ikasleei proposatzen genien bost zentzumenen bidez itzuli zezatela sentitu zutena. Itzela izan zen. Askotan ez dugu gaitasunik adierazteko egoera horrek sorrarazten digun emozioa. Paneletan bakoitzak nahi bezala adierazi zuen; hitzez, marrazkitan..."

3.- Norberaren konpromisoa. Zer egin dezaket nire egunerokotasunean, egoera horiek eman ez daitezen laguntzeko. Bizi izan duen hori eta norberak ateratako ondorioak praktikara eramatea da kontua.

"Memoria partekatua egitea, zure kontakizunak eta nireak gehitzea, onartzea izan ditugun bizipenak eta hortik aurrera begiratzea, hori noizbait egin beharko da"

GORKA RUIZ, BAKEOLA

Biktimak nola eraman gelara?

Ekintza zehatz hori pedagogikoki egoki ikusten duen galdetu diogu Ruiz: "Testuinguruz kanpo, hezkuntza programaz kanpo eginez gero, desastrea izan daiteke. Eta alderantziz: ongi landutako ikasle talde batean, gehien sufritu dutenek balio handiko ekarpena egin dezakete, baldin eta min hori bakerako potentzial eraikitzaile bihurtu badu biktimak". Baldintza batzuk beharrezko ikusten ditu: "biktimak dolua burutua izatea, oinarrizko planteamendu pedagogikoa izatea, maila etiko eta moralean kategoria humano nahikoa izatea, alderdikierietatik kanpo kokatzea, eta trebetasun komunikatiboak izatea". Baldintza horietan dago arriskua: "Hau izango bada lehen lerroko biktima mediatikoa halako gelara eraman eta argazkia ateratzera... Horrek balio sinboliko politiko mediatiko handia du. Baina heziketarako ez du baliorik". Zer den gertatuko dena? Bada bi aukerak ikusten ditu posible: "Kontziente gara biktimen zuzendaritzak eta Hezkuntza Saileko teknikariek apustu egiten dutela lan hau egin dadin bigarren edo hirugarren lerroko biktimekin (mediatikoki ezagun ez direnekin). Baina alderdien arteko lehiak dakar posible dela medioetan lehen lerroko biktimak eskolan agertzea. Eta hau ezin da onartu. Indarkeriaren erabilera alderdikoiak min handia egiten du, eta eskolari ere bai".

Gelako ikasleekin zer gertatu daitekeen galdetu diogu, hauetako askok etxean bizi baitituzte beste aldeko indarkeriaren ondorioak: "Planak onartzen dio eskolari ekintza hori egin edo ez erabakitzeke autonomia. Baina ez dut sinesten ongi landutako talde batek ez har-

"Itxuraz aurrekoaren birmoldaketa denak, egiten duena da aurrekoa txikitu. Hori egiteko kontsentsua behar da, ezin du Gobernuak bakarrik erabaki"

JON MIRENA LANDA

tzea errespetuz eta goxotasunez sufritu duen pertsona bat. Edozein delarik ere sufrimendu horren jatorria. Ez da posible neurri horretako deshumanizaziorik. Nahiz batek besteari tiroa jo buruan, edo besteak bata torturatu. Ez dut sinesten bi pertsonen elkar ezagutu badute emango denik blokeo egoera edo konfrontaziorik. Pertsona izaerak ez garamatza horretara. Ez dut sinesten lanketa zaindu bat eginda geletan, ez garenik iritsiko errespeta eta minarekin bat egitera".

Hezkuntzako profesionalek ez dakite nola aplikatuko den

"Zehazgabetasuna" da hezkuntzako adituek plana definitzeko darabilten hitz gakoetako bat. Oraindik garpena falta duela, asmo horiek denak gelara nola eramango dituzten zehaztea. Ruizen hitzetan: "Metodologikoki oraindik ez dakigu nola dagoen planteatuta plana, eta dena da nola egiten den. Planek askotan ez dute ezertarako balio ez badira euskarriak garatzen (unitate didaktikoak eta gainerakoak), eta egiteko moduak ez badu koherentziarik mantentzen". Joxe Mari Arakamaren lana da irakasleen formakuntza- ren bidez bizikidetzarekin lotutako programak eskoletara zabaltzea, eta berak dioenez: "Pentsatu nahi dut irailean iritsiko zaigula proposamen zehatza Berritzeguneetara. Oraindik ez daukagu". Jon Mirena Landak zailtasunak ikusten ditu datorren ikasturtean geletan martxan jartzeko: "Hau modu sistematikoan egiteko ehunka pertsona behar dira. Eta proiektu pilotua egiteko zail dute, urtebete behar baita prestatzen. Seriotasuna eskatu behar da". ■

argia.com Dokumentuak eta erakunde-
deen loturak.

Patxi Baztarrika

Babeli gorazarre (Alberdania) liburuaren egilea

«Elebitasunetik dator hizkuntza askatasuna gauzatzeko aukera»

Baztarrikarentzat (Ataun, Gipuzkoa, 1958) Babel ez da madarikazioa, baina ez du ukatzen gurean hizkuntza gatazka dagoenik. 2005-2009 legealdian Hizkuntza Politikarako sailburuorde izan zenak bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra proposatzen du.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Dani Blanco

ANDOAINGO UDALETXEAN elkartu gara, bertako Euskara Zerbitzuko arduraduna baita. Elkarrizketak luze jo du. Hala ere, galdetu diogu ea beste zerbait aipatzeko baduen. Esan digu elebitasun pasiboaren gaia ez dugula mahai gainera atera, eta berak berebiziko garrantzia ematen dio kontu horri. Eskatu digu mesedez elkarrizketan horren berri emateko. Baztarrikak ez du itxaropenik herri-tar guztiak euskaldunduko direnik, horregatik erdibideak probatzearen aldekoa da. Erdal hitzuna euskara ulertzera jarriko balitz, euskal hitzuna aukera luke euskaraz aritzeko, eta era berean, erdal hitzun batzuentzako hain urruna den euskal mundua gertuago egongo litzateke. Andoaingo Udalean lankideekin ari da elebitasun pasiboa praktikatzen.



“Euskarak behar duen mobilizazio sozial bakarra erabilia izatea da”.

Euskararen iraupena eta hazkuntza segurtatzeko hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra, eta aukera-berdintasunezkoa behar dugula diozu. Zer esan nahi dute adjektibo horiek?

Hizkuntza politika guztiak ez dira baleko. Badira hizkuntza politika zilegiak eta eraginkorrak ez direnak. Hizkuntza politika zilegi eta eraginkorraren metroa ez dago tolerantzian, metroa berdintasunean dago. Berdintasuna ez da bitartekoa, helburua da. Hizkuntza batean eta bestearen dauden hiztunek aukera-berdintasuna edukiko baldin badute, ahulezia dagoen hizkuntzaz baliatzen den hiztunari eman beharko zaio tratatu desiguala. Hori da tolerantziaren mozorropean ezkututzen diren politikek egiten ez dutena. Horregatik gertatzen dira praktikan, askatasunarentzako eta berdintasunarentzako traba, hizkuntza bat hautatzeko benetako aukera elebidunak daukalako, eta sekula ez elebakarrak. Elebitasunetik dator egiazki hizkuntza askatasuna gauzatzeko aukera. Zein da hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra? Hizkuntza askatasuna eta berdintasuna egiazki errealitatea izatera iristeko bidea ematen duena. Azken batean hegemonikoak ez diren hizkuntzen erabilera bultzatzen eta sustatzen duten hizkuntza politikak. Gainera, arrazoi klabe bategatik dira zilegi: herritarren gehiengoak gizarte elebiduna izan dadin nahi duelako.

Batzuek askatasuna aldarrikatzen dute.

Ez dago mugarik gabeko askatasunik gizarte librean, beti indartsuena gailenduko litzateke. Eskubide guztiek dute beraiekin batera betebeharrak. Betebeharrak eta eskubide horiek gizarte ereduaren arabera zehazten dira, eta gizarte ereduak gizarteak berak aukeratzen du. Euskal gizarteak nahi duen ereduak gizarte elebiduna da, baina gizarte bakarra, hizkuntza aniztasuna izango duena, eta ez bi hizkuntza komunitate bata besteari bizkar emanda.

Batzuk ari dira planteatzen elebakartasuna eskubide dela. Gizarte eleanitzean elebakartasuna ez da inondik inora eskubidea, muga baikik, muga galanta norberarentzat eta traba galanta gizarte kohesiorako.

Horrekin esan nahi da elebakarra kastigatu egin behar dela? Ez, esan nahi da gizarte balio bezala elebakartasuna eta elebitasuna gauza bera balira bezala ezin direla adierazi.

Elebakartasuna muga bai, baina elebidunak egiten du euskaratik gaztelanirako aldaketa, nahi ezta ere.

Diskurtso horrek ondoan darama ditxosozko inposizioa. Baina ez da inposizioaz ari, ni inposizioaren

“Hizkuntza hegemonikoak onartu behar du modurik normal eta naturalenean gaur baino askozaz leku gehiago egin behar diola euskarari”

kontra nago. Inposizioa da, herritarren gogoaren kontra hizkuntza inposatzea. Nahiz eta hizkuntza hori hemengoan izan herritarrek hori ez badute nahi, eta beren gogoaren kontra gizarte honetan hori ezarriko balitz, ni horren kontra egongo nintzateke.

“Euskal gizarteak nahi duen ereduak gizarte elebiduna da, baina gizarte bakarra, eta ez bi hizkuntza komunitate bata besteari bizkar emanda”

Baina kontuz, inposizioaren kontra nagoelako nago inposizio pasiboaren kontra. Alegia, euskara legalki eta formalki ez eragotzi arren—baizik eta erabiltzeko eskubidea aitortu—, praktikan erabiltzeko aukerarik ez dagoelako erabilera eragozteari deitzen diot nik inposizio pasiboa. Nola euskal elebakarrik ez dagoen, komunikazioa berma dadin automatikoki pasatzen zara hizkuntza hegemonikora. Hizkuntza hegemonikoa inposatzen da, nahiz eta ez den aktiboki inposatzen.

“Euskarak behar adinako tokia” lortu behar duela diozu. Zein da toki hori?

Hizkuntzak biziko badira erabiliko diren esparruak behar dituzte, hain da sinplea! Batzuek egiten duten erlazioa da estatu bat-hizkuntza bat, alegia Espainia=espainiera eta beste batzuek: nazio bat-hizkuntza bat, hau da, Euskal Herria=euskara. Paradigma hori gainditu behar dugu. Horrela ez baldin bada nola egiten da? Bizikidetzaren klabeetan. Euskararentzako konponbidea izan litekeen modu bakarra da.

Praktikan esan nahi du, guztiok onartu behar ditugula bi hizkuntzak bertako hizkuntza bezala, modu normal eta naturalean. Etxeko hizkuntza euskara dugunok nahiz gaztelania dutenak lehen hizkuntza, utz diezaiozun bakoitzari izaten garen bezalakoak, garbi izanda komunikazio tresna ez den hizkuntza desagertu egiten dela. Onar ditzagun modu naturalean euskararentzako erabilera esparru eta funtzioak.

Bestalde, guk ezagutuko dugun Euskal Herrian ez dut kontenplatu euskara toki guztietan, funtzio guztietan eta pertsona ia guztientzat nagusi izango den egoera bat, ez da errealia, beraz ez da soluzioa. Gainera, ez dut uste zilegi izango litzatekeenik ere, arrazoi bategatik: gure herrikideetako askok eta askok ez dutelako hori nahi. Horrek ez du esan nahi gaztelaniak leku guztietan, funtzio guztietan, ia pertsona guztientzat hizkuntza nagusia izan behar duenik.

Hizkuntza hegemonikoak, gaztelaniak, zerbait galdu beharko al du?

Onartu beharko dugu zenbait esparrutan, zenbait funtziotan euskara izango dela hizkuntzarik erabiliiena, eta beste zenbait esparrutan euskarak ez duela lortuko gaztelaniak duen indar mailarik. Onartu beharko dugu zenbait pertsonentzako euskara izango dela esparru ez formaletan puri-puriko hizkuntza eta beste zenbaitzarentzat ez dela horrela izango. Alabaina, berdinkidetasunaren ikuspegitik, batarentzako edo bestearentzako inolako trabarik jarri gabe, bizikidetzaren antolatze beharko da.

Hizkuntzen funtzio banaketak zer esan nahi duen? Bistan da, hizkuntza hegemonikoak onartu behar du modurik normal eta naturale-

nean gaur baino askosaz leku gehiago egin behar diola euskarari. Gaur hezkuntza sisteman euskara da, kolorerik gabe, erabilerarik aldetik hizkuntza nagusia. Ezin ote da hori, gatazkarik gabe, normaltasunez onartu?

Bide berria, eredu berria asmatu beharra daukagu eta estrategia berri horren muina erakargarritasuna da.

Zer esan nahi du erakargarritasunak?

Pentsatzen baldin badugu strategiaren muinak izan behar duela —karikaturan esanda— Euskal Herrian gaudenez, bazter guztietan euskaraz egingo dugula eta kito, hori ez da baleko estrategia izango. Testuinguru eleanitzetan, ondoan diren hizkuntzak norberarena baino indartsuagoak direnean, erakargarritasunik ez baldin badago jai daukagu, arauak arau. Erakargarritasuna nahiko abstraktua izan daiteke, baina garbi izan behar dugu gauza bat, euskara eta euskaraz egiten denak, lehenik eta behin, erakargarria izan behar du euskal hiztunontzako.

Beldur naiz ez ote dugun “Euskara, hator etxera” esan behar. Euskararen erabilerak gora egin du, baina euskararen ezagutzak gora egin duelako, ez elebidun direnek atzo elebidun zirenek baino gehiago erabiltzen dutelako. Gainera, euskararen erabilerak gora egin du espazio publikoan, askozaz motelago egin du gora lagunartean, eta etxeko salan ez du gora egiten.

Hizkuntza gutxituak sustatzeko hiru zutabe aipatu dituzu: lege babesa, hizkuntza politika eraginkorra eta herritarren atxikimendua. Hirugarrena lehenetsi duzu.

Ez daukat zalantzarik, herritarren atxikimenduari ematen diot lehenetasuna, besteak beste, arauak arau, zaila delako herritarren atxikimendua sendoa denean horien borondatea ezabatzea. Ahultzea bai, higa-



“Euskara legalki eta formalki ez eragotzi arren —baizik eta erabiltzeko eskubidea aitortu—, praktikan erabiltzeko aukerarik ez dagoelako erabilerari eragozteari deitzen diot nik inposizio pasiboa”.

tzea ere bai, baina herritarren atxikimendua zenbat eta sendoagoa izan orduan eta mugatuagoa da beste faktoreen eragina. Eta bestetik, herri atxikimendua zenbat eta handiagoa, orduan eta hizkuntza politika publiko aktiboagoak eta lege babes egokiagoak dira posible gizarte demokratikoan. Herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua oso baxua baldin bada, ez litzaiteke posible izango Euskararen Legea bezalako lege bat.

Eta alderantziz, hizkuntza politikek eta lege babesek eragiten dute herritarrengan.

Elikatu egiten dute herri atxikimendua, dudarik gabe. Baina giltzarria herritarren gogo da. Horrek ez du esan nahi egiteko guztiak hasi eta bukatzen direnik herritarrengan. Mundu guztiak du egiteko eskema horretan, herri aginteei dagokie erabilerari eta ezagutza segurtatzea, besteak beste hizkuntzak erabiltzeko aukerak sortzen jardun behar dute. Hizkuntza politikan aitzindaritzat

sendoa eraman behar dute atzerapausorik gabe.

Herritarrei dagokie hizkuntza erabili ahal izatetik erabili nahi izaterako jauzia egitea; eta erabiltzea. Mitxelenak esan zuen “hiztunen axolagabekeria dela euskarak eduki dezakeen etsairik handiena”. Horri tira eginda, esango nuke ez diogula inolako mesederik egiten euskararen etorkizunari, gizartean zabalduko genukeen iritzia ondo-koa balitz: “Euskara ikasteko ahalegina egin dutenei *chapeau*. Etxetik euskara dakigunok, euskal hiztun garenok euskararekikoak egin ditugu, guk egin beharrekoak eginda dauzkagu eta azkarrago ez baldin bagoaz da marko juridiko-politiko behar beste aldekoa ez delako, herri aginteei behar bezalako neurriak hartzen ez dituztelako...”. Egon daiteke hobetzeko nahi dena, baina ez diezaiozun mezu hori eman herritarri,

berau desmobilizatzen arituko baidakara. Euskarak behar duen mobilizazio sozial bakarria erabilia izatea da. Erabiltzeko klabeak: atxikimendua eta euskararen munduak erakargarri izatea.

Euskarak aurrera egiteko gako nagusiak erabilerari, gogoari eta gizartearen adostasuna direla esan duzu liburuan. Adostasuna azken urteotan pataldu egin dela diozu.

Adostasun sozial eta politikoa ezin besteko baldintza da hizkuntza politikan etengabe aurrera egiteko. Gizarteak nahi ez duenik ez du egiten, gehiengo adosteko kapaz ez den hura ez da aurrera ateratzen.

Eta patalduta diozu? Euskara ez dago hilzorian, baina atzera egiteko arriskuak baditu eta beraz, neurriak hartu behar ditugu. Neurriak hartzeko gaur daukagun adostasun sozial eta politikoa ez da behar bestekoa. Egin dena egiteko balio izan du, baina egin denak ekarri gaitu honaino, horrek ez digu esaten etorkizuna zer izango den. ■

Gogoeta-iturri

Iñaki Martinez de Luna

ETSAIAK EGITEN HASTEKO arriskuan nago *Babeli gorazarre* irakurtzean buruan zebilkidarenarekin: Mitxelena eta Txepetxen lanak salbu, bertako hizkuntzen bizi-baldintzez ez dela horren gogoeta mamitsurik (aspalditik) egin. Barka ditzaten hitzok ur sakon eta emankorretan murgildu diren gainontzeko egileek, baina esandakoa da zinez burura behin eta berriz etortzen zitzaidana.

Eta Mitxelena aipatzen hasita, horra hor bere —eta Baztarrikak jasotako— ideia mamitsu bat: “Ezin fida daiteke (...) dekretuaren ondorio miresgarrietan, ezta ofizialkidetasun nahiz ofizialtasunezko aitopentetan ere. Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Beste nonbait esan eta idatzi dudan bezala, diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela, ez gaitezela ghettoaren infernuan eror. Hizkuntza integrazioa beste ezein bezain beharrezkoa dugu”.

Beldur naiz Mitxelenaren hitzoi entzungor egin zaien modu berean, Baztarrikaren lana ere baztertuta ez ote den geldituko. Izan ere, euskalgintzaren parte baten planteamendua handikeriatan erori izan da denbora luzez, horren ondorioz errealitate gordinarekin estropezu eginez behin eta berriz. Mitxelenaren ikuspuntu zentzudunak hainbat urtetan oihartzun handirik izan ez duen arren, bada garaia harenak



ALEX LARRETXI

“Ajeak aje, euskalgintza sasoiko dago eta orain bada gai hizkuntza-diskurtso zaharkituak beharrezko duen berrituari ekiteko; horretarako, iturburu ezin egokiagoa du Baztarrikarengan”

bezain proposak izan daitezkeen hausnarketei erreparatzeko. Baztarrikaren eskutik, adibidez.

Badira, noski, *Babeli gorazarre* liburuaren ideia guztiekin ados ez egoteko arrazoiak, balorazioa zein planteamendutatik egiten den. Batzuentzat desegokia izango da,

garatzen duen tesia antolaketa instituzionalaren baitan kokatua dagoelako —hala ere, planteamenduak ez du muga horien barruan zertan gelditu behar—. Beste batzuei, aldiz, euren —espainiar zein euskal— nazionalismo linguistiko zurrunik ez die betarik emango halako ideiarik onartzeko. Arrazoiak arrazoi, idazlanaren irakurketa kritiko bati ez nioke inoiz uko egingo, jarrera kritikoa beti dugu-eta beharrezko. Onartezi-na litzaidakeena, aldiz, hauxe da: bestelako interesak ezkutatzen dituzten kritika interesatu edo mami gutxiko deskalifikazio errazak eginez, liburua aintzat ez hartzea.

Hala ere, nolabaiteko itxaropena badut. Izan ere, atzeak erakusten dio aurreari nola dantzatu eta, urteotako eskarmentuen poderioz, euskaltzale gehienek jarrera soziolinguistikoa askoz helduagoa da, gaur egun. Baztarrikaren lana aintzat hartzeko behar bezain irekia, alegia.

Bestalde, eta ajeak aje, euskalgintza sasoiko dago eta orain bada gai hizkuntza-diskurtso zaharkituak beharrezko duen berrituari ekiteko; horretarako, iturburu ezin egokiagoa du Baztarrikarengan.

Tamalez, espainiar nortasundunek ez dute iturri horretatik oso gustura edango —erdaraz ere argitaratuta dagoen arren—, beren hizkuntza-egoera erosoaren zutabea zalantzan jartzen duelako. Pena litzateke, baina errealitatearen egoskortasunaz jabetu beharra dago, beti. Onerako zein txarrerako! ■

Babeslea: Getxoko Udala



Babelgo eskailerak

Pello Salaburu

BETI PENTSATU izan dut Babelgo kaskora gailurtzeko motor indartsu bat beharko nukeela, bestela erdiko mailetan galdurik geratuko bainintzateke, hizkuntzen artean trabatua. Esku artean duzun liburu honek erakutsiko dizu ezetz. Ez nahitaez ezetz, bederen. Patxi Baztarrikak bere astia hartu du, politika kontuak utzi ondoren, liburu luze eta mardul hau idazteko. Idatzi ere, patxadaz eta lasaitasunez idazteko, gaiak behin eta berriz landuz eta orraztuz.

Gure bihotzeko Euskal Herri honetan jende gutxi aurkituko da hizkuntza kontuetan beste aldera behatzen duena. Denok bai baititugu gure ideiak, gure esatekoak, zein baino zein hobea eta egokiagoak hizkuntzaren inguruan. Horrela, batzuen ustez, euskararen arazoak bukatuko lirateke denok gaztelaniaz edo frantsesaz egingo bagenu, hau da, denok "komuna" den hizkuntza erabiliko bagenu. Eta neurri batean egia da: "Hil da mandoa, eta akitu da errabia". Beste batzuen ustez, alderantzizko bidea da egin behar dena: denok euskaraz egingo bagenu, hizkuntzak ez luke politikarik behar.

Badira, izan, uste dutenak, hizkuntzen kontua diru kontua eta agintarien borondatea besterik ez dela. Dirua izanik, eta agintari egokiak izanik, horrek segurtatuko luke, nonbait, euskararen etorkizuna. Gauzak, ordea, ez dira hain sinpleak. Dirua behar da, eta agintari euskaltzaleak ere bai, egia. Agintariek egiten dituzten euskararen aldeko legeak ere ezinbestekoak ditugu. Baina hori guztia eskura izanik ere, hiztunek mintzatzeko borondaterik ez badute, jai dugu. Eta arrazoi asko izan daitezke borondate hori izateko edo ez: adibidez, hizkuntza, eta hizkuntzaren ingurukoa batez ere, erakargarria



IÑIGO AZKONA

ez izatea. Orduan, nahi den eperabada ere, sobran ditugu diruak, sobran ditugu legeak eta alferrekoak dira agintariak. Behin purgatoriotik ghetitora erori ondoren ez baikaitu inork ere handik aterako.

"Dirua behar da, eta agintari euskaltzaleak ere, egia. Baina hori guztia eskura izanik ere, hiztunek mintzatzeko borondaterik ez badute, jai dugu"

Ez du maite Patxi Baztarrikak diskurtso sinplea: ñabardurak egin behar dira han, zehaztapenak hemen. Hortaz, liburuak informazio oparoa ematen digu munduko hizkuntza txikiei buruz (haien inguruko politikari buruz), informazio handia Espainiako hizkuntza eta araudi kontuez, eta azkeneko 25 urte honetan munduan nola ibili diren gauza hauek guztiak ikusi nahi badu norbaitek, liburuan aurkituko du informazio zehatza puntu askoren inguruan, euskaltzaleok gogoan izan ditugun galdera anitzen inguruan. Alde horretatik bakarrik, liburua eskertzekoa da. Baina kontua ez da hori bakarrik:

Baztarrika konbentzitua dago (eta ez da bakarra), euskararen auzia ez dela euskara edo gaztelania, euskara edo frantsesa, baizik euskara eta gaztelania eta frantsesa, zein bere tokian. Mundu konplexu batean bizi gara, interes eta bizipen gurutzatuekin, beste hizkuntza batzuek ere aurkitu nahi dute beren zirrikitua, eta gure kaleetan gero eta errazago ikusiko ditugu etorkinak. Euskarak, hortaz, bere tokia aurkitu behar du egoera berri honetan.

Jakina babesa behar duela, jakina ezinbestekoa duela sustapen berezia, baina onartu behar dugu hola koetan mugak zedarritzeak diskurtso landuxeago eta arrazoibide sakonagoak eskatzen dituela. Eta ezinbestekoa da hori modu egokian, euskararen mundutik nahiz erdararen mundutik onarturik, egin behar dela. Hori baita, gainera, gizartea kohesionatzeko ezinbesteko baldintza. Diskurtso mota hau eraikitzeak orduan, han eta hemen esandakoez baliatzen da, perla bitxi asko ekarriarik orrialdeetara. Liburu egokia, hortaz, eta aski baliagarria, pausaldia egin eta gure buruari galdetzeko: zer egin dugu? Zer egin behar dugu?

Badu akats bat, nire ustez, handi samarra: luzeegia da. Hori ez da ona, presaz betetako mundu honetan, batez ere gauzak behin eta berriz errepikatzen direlako –aipamen batzuk ere–. Arrazoibide bertsuak laburrago adieraz daitezke. Eta badira liburuan topiko batzuk –hizkuntza zaharren kontua berriz ere, nahiz puntu honetan darabilen argudioaren gorabeherekin bat natorren–, baztertu beharko genituzkeenak. Ez dut dudarik, hala ere, hori, edukiarekin erkatuz gero, bigarren mailako kontua dela. Baduzu, irakurle, zer ikasi hemen, ez izan dudarik. ■

Nairobitarra ^{rekin} bidaia jolas

"Nairobitarra: mundua
ezagutzeko jolasa" k
tokian tokiko
bitxikeriak
ezagutzeko aukera
eskaintzen dizu.

33 €

Harpidedunek:
-15%

Aukeratu
kontinentea,
ibilbidea, bota dadoa
eta ekin bidaiari.

8 urtetik
gorakoentzat

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

 **argia**



559.759 sinadura

ACCIO CULTURAL del País Valenciá aurtengo urtarrilean Mugarik Gabeko Telebistaren aldeko kanpaina hasi zuen. Valentziarrek arazoak dituzte Kataluniako telebista katalanak ikusteko eta Gobernuak, aukera babestu baino, hesiak jarri ditu azkenaldian. Katalan hiztunek bezala, euskara eta galiziera hiztunek ere arazo berak izaten dituztenez, kanpaina gehiago zabaldu zuten. Sinadurak eskatu zituzten hizkuntza gutxituetan emititzen duten telebista publikoak nonahi ikus ahal izateko lege proiektua proposatzeko. Espainiako Hauteskunde Erroldaren bulegoak 559.759 sinadu-

ra onartu ditu eta beraz, Acció Cultural elkarteak lege proiektua onar dadin lanean hasiko da.

EEPri oniritzia

BARNE, Kultura eta Hezkuntza Ministerioen izenean etorri dira Frantziako ikuskariak, eta Euskararen Erakunde Publikoaren sei urteko ibilbidea ontzat jo dute. Ikuskariek Gobernuari beste sei urtez EEPren jarduna luzatzeko eskatu diote eta erakundearen egituratzea, hizkuntza politikaren hezurdura, garatutako ildoak eta elkarkidetzak eredu goraipatu dituzte.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN**Kosta ahala kosta**

Espainiako Gobernuak finantza eta ekonomia krisiaren aurrean duen jarreraz nahi dena esan liteke. Baina inork ezingo du esan krisiaren kontrako bere politikak "elektoralistak" direnik. Boterea galtzea ekar dakioke. Berak jadanik esan du: "Krisia gainditzeko erreformak eta neurriak aurrera eramango ditut kosta ahala kosta". Aldiz, oposizioan dauden eskuineko gainerako alderdiak –batez ere PP, CIU eta EAJ– dira "politika elektoralistak" egiten ari direnak. Izan ere, Zapateroren krisiaren kontrako erreforma berdina ez, drastikoagoak eta okerragoak jarriko lituzkete. Kontua da, hauteskundearen aurrean, eskuineko alderdiei hobe datorkiela langileen, pentsionisten, funtzionario publikoen eta langabetuen "ordezkari" itxurak egitea. Zapatero leiala izaten ari da orain finantza merkatuekin, prezio bat exigitzen baitiote Espainiako Estatuko zor subiranoari. Eskuineko oposizioa oraindik eta leialagoa eta konplizeagoa izango litzateke merkatu horiekin! Nolako hipokrisia eta fariseismoa espainiar, katalan eta euskal eskuinarena!

Zapaterok alderdi sozialdemokrata ordezkatzan du eta bere printzipio ideologikoei traizioa egin die, finantza merkatuekin hain leial izanik. Muturrera eraman du bere "kosta ahala kosta". Zeren eta, har zitzakeen neurri ez hain grabatzaileak langile eta herri sektoreentzat eta gogorra- goak enpresari eta bankarientzat. Oraingo, krisiaren ondorioak langileen eta herri sektoreen bizkar baino ez ditu utzi. Zain gaude ea zer egiten duen aberatsenentzako zergekin, ea egungo krisiaren zama banatzen duen. Eta batez ere, ea zer egiten duen paradisu fiskalak desagerrarazteko, estutzen gaituen zorra konpon dezaketan Espainiako Estatuko eta Euskal Herriko dirutza ugari atsedean hartzen baitu haietan. Krisia gehiago kosta dakiela gehiago dutenei!

Juan Mari Arregi

BAHEA

Juanjo Olasagarrek *Diario de Noticiasen*: "Nekagarria egiten zaidana da Nafarroan euskalduna izateak dakarren aire pobrea. Jon [Arretxe] eta biok Nafarroan ez gara inor ere. EAEn bizi bagina, egoera pixka bat ezberdina izanen litzateke. (...) Badakigu Nafarroako Gobernuaren lehen tasun bat dela euskara desagerraraztea, inongo lotsarik gabe. Neurri batean horrekin bizitzeko ikasi dugu. Ezin gaitzke egunero haserretu, burugorriak izan behar dugu, nafarrak horretarako onak zarete, eta geure hizkuntzari eutsi behar diogu Nafarroan ere".

Jon Arretxek: "Aldi berean EAEko irakurleentzat Iparraldekoa edo Nafarroakoa izateak balio erantsia izan dezake. Gehiago lagundu behar dizutela ikus dezakete edo puntu exotikoa izan dezake batzuentzat".

Itziar Hormaza ingeles irakasleak *Berrian* esandakoak:

Kazetariaren galdera: Badago susmoa hirugarren hizkuntza batean kontzentratzeak euskara are gehiago bazter dezakeela. Zure ustez, zein ekarpen egin diezaioke, eta zein kalte?

I. Hormaza: "Nik ez dut inolako kalterik ikusten. Hizkuntzek ez diote elkarri lekua kentzen, gehigarriak dira. Gure kasuan gertatzen dena da, gure hizkuntza minoritarioa eta gutxitua denez, oso kontuz ibili behar dela proiektu linguistikoak garatzeko. Are gehiago, horretarako eskualde bakoitza aztertu beharko litzateke, eta proiektu oso pertsonalizatuak diseinatu, eskola, auzo eta herri bakoitzaren premiei erantzuteko eginak. Beti izan behar dugu kontuan erdaren presentzia handia dela eta geurea dela hizkuntza gutxitua".

Krisia ate joka... diru-laguntzak behera

ARGIA-KO kazetari gehienok abuztuan egiten dugu opor, gure irakurleak ezagun duen moduan hilabete honetan ez baita aldizkaririk kalera-tzen. ARGIA.com-ekoak geratzen dira lanean. "Deskonektatu eta indarrez itzuli", luzatzen diogu elkarri. Hala behar du eta horretan saiatuko gara, baina uztailan egin dugun akziodunen batzarrak ez du ahozapore onik utzi. Krisia ate joka da.

Gure diru sarreretan hiru zutabe nagusi ditugu: aldizkariaren salmenta, publizitatea eta diru-laguntza publikoak. Publizitate sailean %25eko beherapena aurreikusi genuen urte hasietan eta, hala ere, borroka latzean ari gara helburuetara iristeko. Baina gogotik lan eginez gero, eremu pribatuak oraindik ere erantzuten du; sektore publikoan ez dago borrokatzerik, ez ei da dirurik –guretzat behintzat– eta listo.

Aldizkariaren salmenta aurreikusitakoaren arabera doa, ez dago etxafuegorik botatzerik, baina ezta hondamendirik ere. Krisia krisi, hor eusten ari gara, berriz ere gure irakurlearen fideltasun itzela argi frogatuz. Zenbait gauza ondo egiten ari garen seinale ere bai seguruenik, eta hori poztekoa da.

Oraingoz behintzat hirugarren hanka da kale egin duena, diru-laguntzena. Eremu honetan gurean bederen bi iturri dira nagusi: Eusko Jaurlaritzarena da handiena eta ondoren Gipuzkoako Foru Aldundia-rena. Aurten Jaurlaritzak eutsi egin dio hedabideen artean banatu beharreko diru kopuruari eta hori bera, basamortu giro honetan, ez da gutxi. Baina komunikabideok oraindik ez dakigu bakoitzari dagokiguna, banaketa ez baita publiko egin oraindik. Zain gaude, beraz.

Tsunamiak Gipuzkoako Foru Aldunditik (GFA) iritsi zaigu aurten: 2009an

71.000 euro jaso genituen eta aurten 26.000, hau da, %63 gutxiago, 45.000 euro gutxiago. Pentsa daitekeenez, gu moduko 21 langileko enpresarentzat kolpe itzela da hori. Krisi doinuekin akaso beherapenak izan zitezkeela pentsa zitekeen. Jakin zenean Diputazioko departamentu guztietatik 2010eko aurrekontuetan Kultura eta Euskara sailak izan zuela mozketarik handiena (%23), gu ere tankerako beherakadarako prestatu ginen. Baina ez, %23 ez, %63 murriztu zaigu laguntza. Murrizketa orokorrak denok kaltetu gaitu, baina batzuk bereziki, eta horiek prentsa orokorrekoak gara. Berbarako, Gaztezulok %81eko beherakada izan du eta Jakinek %69koa.

Zergatik? Nola ulertu hori? Non zigorraren arrazoa? Eta hori galdeztera joan ginen Diputaziora. "Ez dago dirurik, sentitzen dugu" (Eta guk, besteak beste, AHT buruan, erraustegia, Realari emandako 1,2 milioi extra horiek...). Ez gurela ulertzen, beste hedabide asko ere ari zela %25eko murrizketaren bueltan, baina aldizkari orokorretara

jauzia sekulakoa zela. Eta orduan azaldu ziguten banaketa irizpideak aldatu zituztela: diru gutxi zutela eta poltsaren banaketa hala egitea erabaki zutela: %60 herri aldizkari-entzat, %25 eskualdekoentzat eta %15 orokorretzat. Eta hori guztia diru-laguntza deialdian ezer jakinazari barik edota alde zurretik inongo jakinarazpenik egin barik. Ez idatziz ez ahoz.

Erantzuna izan zen Jaurlaritzak arduratu behar zuela aldizkari orokorrean. Eta guk "ea haiekin hitz eginda zegoen horren gainean". Ezetz, datorren urterako koordinatu beharko zutela. Eta gu zur eta lur emandako erantzunekin. Ez litzateke leiala gure agintariekin izandako bilera pribatueta esandako guztiak publiko egitea, baina aipatutakoa bederen bai, hor dagoelako banaketaren gakoetako bat eta hori, gutxien-gutxienez, alde zurretik publiko egitea edo jakinaraztea litzateke garbiena.

Aurten ARGIAk Ricardo Arregi Kazetaritza Saria jasotzerakoan esandako berbok balio dute oporretara joan aurreko artikulua hau bukatzeko: "Askotan konplexua sortzeraino entzun behar izan ditugu kultura eta hizkuntza subentziona- tuarena, artifizialki bizitzearena eta gisakoak. Eta orain zer eta gober- nuek bankuak salbatzen dituzte. Eta milioika euro bideratzen dira autoen lantegietara, altzarien sal- mentara, eliteko kirola bultzatzera, azpiegitura erraldoietara... Eta gu ginen diru-laguntza publikoetatik bizi ginenak". Bai, zalantzarik ez, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia oraindik ere indarrean dagoenean, gobernantza eta 2.0-ren garaian, guk ere sukaldeko garbigai- luak beste izan nahi dugu. Zeuretzat ere opor on irakurle.

"Tsunamiak Gipuzkoako Foru Aldunditik iritsi zaigu aurten: 2009an 71.000 euro jaso genituen eta aurten 26.000, hau da, 45.000 euro gutxiago"



Soroa bizi-arazteko zuhaitz adaxkak: BRF sistema

Adaxka-egur birrinduz (*Bois Rameal Fragmenté* frantsesez) ortuko lurzorua aberastea, horra duela 30 urte Kanadako Quebecen sortu eta munduan zabaltzen ari den teknika iraultzailea. Landarea ez baino zorua elikatzean datza gakoa, horretarako baso eta hesietako zuhaitz eta arbolen adar txikiak birrinduta lurrarekin nahastuz.

BASOAN DA SOROEN ETORKIZUNA, agian horrelaxe laburbildu beharko litzateke BRF (Zuhaitz-Egur Birrindua, frantsesezko sigletan) teknika-ren mamia. Teknika? BRFaren aldarrikatzaileen aburuz nekazaritzako teknika izatetik askoz urrunago doa: lurgintzaren paradigma berria da.

Joan den ekainaren 17 eta 18an Okzitaniako Tolosan BRFaren garapenaz burutu jardunaldietan –*Developper les BRF*– nekazari, unibertsitateko irakasle, laborantzako aditu eta administratzioko kargudunek hartu zuten parte, eta hartan ikusi zen sistema berriak urte gutxitan bederen Frantzia zer nolako oihartzuna lortu duen.

Aspaldikoa da makinerian, mono-laboreetan eta botika gehi ongarri kimikoetan oinarritutako laborantza industrialaren kontrako kritika. Haren aurrean, bai bizibidea lurgintzan daukaten baserritarrek eta bai ortua modu garbi eta organikoan landu nahi duten amateurrek alternatiba ezberdinak landu dituzte: ongarritzat konposta erabiltzea, botiken ordez fitoterapia eta erremedio naturalak, goldaketarik gabeko baratze-gintza, biodinamikoa, nekazaritza naturala...

BRFak planteamendu aldaketa nagusi bat dakarkie guztiei. Lurrean ongarriak zabaltzeko ordez, adar-egur birrindua erabiliz basoko lurzo-

rua berregin nahi du soroetan. Nola? Funtsean, zuhaitz hostozabalen adar meheak zati txikitik xehatu, lurrean bost zentimetro inguruko geruzan zabalduta lurrazalarekin arinki nahastu eta onddoei lan egiten utziaz.

Teknika honek eragin nahi du onddoak –basidiomizetoak aipatzen dituzte– lanean jarri eta soroan oihanean bezalako humifikazio prozesua abiaraztea, konpostarekin eta beste-lako ongarriekin –bakterioak tarteko– lortzen den mineralizazioaren ordez. Horretarako, udazkenean inguruko zuhaitzen 7 zentimetro baino meheagoko adarrak 2-3 zentimetroko zatitxoetan birrindu eta lurrari nahasten dizkiote.

Zuhaitz eta hesietako adar biziak badituzte osagai asko, baina zorua-
ren berritzeko garrantzi handia ematen diote ligninari. Energi iturri baina erabilgaitza den lignina desegiten hastean ugaritu eta hasiko dira lanean oihaneko onddoak, nekazaritzak agortutako lurrari gorputz berria emango diotenak.

BRFaren defendatzaileek dena aurkitzen diote etekinezko. Lurzorua-
ren PHa azidotik neutroa ekartzen omen du. Adaxka birrinduz eraldatutako soroak besteek baino askoz ur gutxiagorekin hauek banozta askoz hobea ematen omen dute, fruitu eta barazki mamitsu eta

Ezkerreko argazkian (*La Depeche du Midi* egunkaritik hartua) Jacky Dupety ageri da eskuetan bere soroan zabaldutuen adaxka birrinduak erakusten. Frantziako erdialde idorrean, Causses du Quercy eskualdean, 2004tik BRF sisteman darabil etxaldea. Laborariz gain Dupety Frantzia osotik dabil hitzaldiak ematen, eta berea da gaiari buruz Europar plazaratutako liburu-
tako bat: *Le BRF, vous connaissez?* (Adar-egur birrindua, badakizu zer den?). Eskuineko erretratukoa da Gilles Lemieux irakasle eta BRFaren teoriko nagusia, 2009an hila. Gizakiak oraindik zorua-
ren sorrera-bilakaera-hondatzeaz oso gutxi dakiela eta, Pedogenesia deitu diziplinan sakondu beharra aldarrikatu zuen azken urteetan, lurrean aberastearen kontzeptutik harago joanez. Haren ustez, gaurko soro eta baratzeak antzinako oihan higatuak dira eta BRF bezalako teknikekin bizi berria eman dakieke.

zaporetsuagoak emanez. Arbola ahulduak biziberritzen ditu. Lana arintzen dio baserritarrari.

Baldarki eraili izanagatik pobretutako alorrak eta desertifikazioak bizi barik lagatakoak berriro emankortu omen daitezke horietan adaxka birrinduak nahasita. Egia da Saheleko herrialde batzuetan egin direla esperientziak BRFaz, emaitza oso onak bilduz.

Landareak ez, lurra elikatu

Basoko adaxka eta sasi txikituekin 1970eko hamarkadan esperimentuak eginak zituen Jean Pain frantsesak, oraindik badira haren sistemarekin ari direnak. Baina gai honetan erraldoiaren urratsa Gilles Lemieux irakasle quebectarrak egin zuen, itsasoa-
ren beste aldean.

Garai Kanadako Quebec krisi sakonean murgildua zen; gobernu herrialderako jarduera eta produktu berrien bila zebilen. Nekazaritzako ministerioan goi kargua zen Edgar Guay izan omen zen hango basogintzan zegoen soberakin-
etako bat –nora bota ez zekiten milaka tona adar– lurgintzan nola probestu esperimentatzen hasi zena.

1980ko hamarkada hasieran Guayk bultzatu zuen Gilles Lemieux ikerketa talde bat antolatuz. Laval-eko unibertsitatean oihaneko zientzietan doktorea zen Lemieux gogo



txarrez hasi bazen ere, gero hil arte-raino ariko zen gai honen inguruan beharrean. Lavaleko unibertsitateak Interneten ipinita dauzka Lemieux-en artikulua andana, gehienak frantsesez baina gaztelaniaz itzuliak ere badira.

Quebecoko emaitzekin berotuta, Lemieuxen taldeak beste herrialde askotan egin zituen probak, Ukrainan, Bolikostan, Senegalen eta beste. Eta berretsi zuten adaxka birrinduek herrialde epeletan baino are lan hobea burutzen dutela tropikoetan, non oihasen oinpeko zorua askoz ahulagoa den.

Europar duela 15 urte inguru hasi zen BRFa aipatzen eta azken aldian ugarituz doaz horri buruzko webguneak, hitzaldiak eta liburuak.

Interesgarrien loturak bildu ditugu paper honen Interneteko bertsioan. Gilles Lemieux, berriz, 2009ko apirilean hil zen. Munduko Bankuak eta beste erakunde handiek ikerketa seriotan hartzerik ez zuen lortu, baina ordainetan jaso zuen mundu osoko laborari aitzindarien onarpena eta esker ona.

Uda honetan bortuko lizarraren gerizpean bezala hondartzako parasolaren babesean nekazaritzako paradigma berri honetaz gehiago jakin nahi direnak, on luke irakurtzea Lemieuxen artikuluetatik hau: *El mundo oculto que nos alimenta: el suelo viviente*, Lavaleko unibertsitatearen gunean PDFan dohainik eskuragai dagoena.

Paper horrek biltzen du Lemieux-

xen mintzaldi argienetako bat, bere 16 hipotesi famatuekin. Lemieuxek dioenez, milioika urtez oihasetako lurzoruan ugaltu da lehorreko bizitza eta nekazaritza basolur horien gainean hazi zen. Gaurko soroak antzinako basolur hondatuak baino ez dira. Adaxka-egur birrindua usatuz lehen degradatutakoa *agradatzea* –bertsolariak esan lezake “hondatutakoa ontzea”– da helburua, ongari edo kanpoko laguntza gehiago gabe modu iraunkorrean funtziona dezan.

Baina BRFan hostozabalak usatzen dira, nekazaritza bera hostozabalen oihasetan sortu zelako. Munduko baso zaharrenak koniferoenak dira, baina hauetan aniztasuna oso murrizta da. Hostozabalek, aldiz, oso bestelako logika darabilte, haien basoetan aniztasunik handiena piltzen da. Horregatik nekazaritzako birrindutako adaxketan gehienez ere %20 egon behar dute pinukiek.

Lurraren emankortasunetik askoz harago doazen ondorioak dakartza BRFan paradigmatik. Hasteko, hiri eta bide bazterretako kimaketak ez dira begi berdinekin ikusten, eskema berrian horietan aberastasun asko baitago.


Laborantzan, berriz, soroaren eta basoaren arteko harremana aldatu daiteke fite. Zuhaitzak ez dira gehiago laboreen etsai. Alorren kontzentrazioarekin galdu diren hesiak berriz aldatzea pentsa genezake. Paradigma berria ez dugu landarea elikatzen, lurzorua dugu elikatu behar. Bakterioen eta mineralen erdian onddo xumea da errege.

Neolitikoak sortutako mitoak ere berridatzi beharko ditugu. Oihana ez dugu etsai, ama baino. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Bixente Serrano Izko

Hain utopikoa?

Jai baldin bazuen mendebaldeko gizarteetan “zeroko hazkunde” irtenbide jada klasikoak, gordinagoa dirudi orain gutxi zabaltzen hasi den “des-hazkunde” predikuenak. Are, zentzugabea ere irudituko zaie hazkunde bidean hasi berri diren gizarteei. Alta, ez da bat-bateko asmakuntza kontzeptuala: joan den mendeko 70. urteetako hamarraldian –gaurkoa bezain estruktural eta orokorra izan zen krisi hartakoan–, Georgescu-Roegenek sorturiko bioekonomiaren kontzeptutik tiraka, *La décroissance* izenburuarekin argitaratu zen Frantzia haren lan bilduma bat 1979an. Kontzeptu gogorra, hain gogorra non gure mende berri honetara arte ez baita benetan loratzen hasi. Bertzeak bertze, azken hamarraldian, Mauro Bonaiuti (2003), Paolo Cacciari (2006) edo Maurizio Pallante (2007) bezalako idazle italiarrek ibili dute *decrescita* kontzeptua; Paul Ariès (2005), Jean-Claude Besson-Girard (2005), Nicolas Ridoux (2006), Bernard Guibert eta Serge Latouche (2006) edo Vincent Cheynet (2008) bezalako frantsek *decroissance*rena; gazteleraz, *Entropía* eta *Ecología Política* aldizkariak (2006 eta 2008, hurrenez hurren) edo Carlos Taibo (2009) agertu dira oraingoz *decrecimiento*aren aldeko sutsu.

Ez dakit, baina badirudi nazioz gaindiko gangster handiak ere –Al Caponeren eredu globalizatu duten Chicagoko Eskolako doktrina ekonomikoaren gurtzaile eta xurgatzaile horiek– lerrokatu direla tesiarren alde, badirudi gaurko krisi ekonomikoari eman nahi diotenaren irtenbidea des-hazkunde bidetik doala. Bai behintzat gain-garapenean bizi garen mendebaldeko gizarteei dagokienez. Izan ere, zerbitzu publikoen, soldaten, erretreta sarien, aberatsen zergen des-hazkundeak, gehi lan-prekariatatearen, kontsumo arruntaren



JOSU SANTESTEBAN

gainekeo zergen, gizarte segurantzaren ordainketa konpartituaren, lanaldien, lan-bizitza iraupenaren eta abarren hazkundeak, bat egingen dute gure gizarte hauen kontsumo maila, bizimaila edota ongizatea murrizteko, hau da, des-hazkunde bidean gure bizimodua sartzeko. Nork pentsatu zezakeen kapitalistarik handienek anti-kapitalisten irtenbide utopikoen alde egingen luketela? Sarkasmoa halakoa, bizitzarenal!

Baina ez. Ederki adierazi zuen *Krisiari, musu* bere fikziozko artikuluan Jose Inazio Basterretxeak, aldizkari honetako *Iritziaren leiboa* sailan (2.237 zbk.), zer izaera duen kapitalista handien des-hazkunde kontzeptuak: gain-garapeneko gizartearen des-hazkunde, zer eta hazkunde erraldoiagotako eta desaurtuagotako bultzatzeko globo osoan, alegia; kapitalismo mundialaren alde, urrats bat atzera bertze bi aurrera egiteko taktika zaharra –berau ere, kurioski, iraultzaile batek formulatua, baina ekonomia sozialistaren alde, garai zaharragoetan: oroitu, bertzela, Leninen Politika Ekonomiko Berriaz–.


Utopia guztien amaiera ekarri omen digu Moderniaosteak. Alta, pentsatzear nago Chicagoko Al Caponeren ereduaren globalizatzaile horiek direla kosta ahala kosta inposatu nahi digutenak utopietan utopikoena, erabatekoa: ongizate bizilekuak oro oraingoz, eta Lur osoa gero, ez-leku bihurtu arte ez dira geldituko, itxuraz. Haien indarraren aurrean, mendebaldeko gizartearen eroso zaletasunaren aurrean, eta hazkunde bidean dauden bertze lekuetako gizarte zatien nahi naturalaren aurrean, utopia inozoa dirudi des-hazkundearenak.

Baina, agian, utopia absolutuaren aurrean erlatiboago hau gelditzen zaigu aukera bakartzat: erlatiboagoa diot, des-hazkundeak bizilekurik, behintzat, zaindu nahi duelako. ■

« Utopia guztien amaiera ekarri omen digu
Moderniaosteak. Alta, pentsatzear nago
Chicagoko Al Caponeren ereduaren
globalizatzaile horiek direla kosta ahala kosta
inposatu nahi digutenak utopietan utopikoena,
erabatekoa: ongizate bizilekuak oro oraingoz,
eta Lur osoa gero, ez-leku bihurtu arte
ez dira geldituko, itxuraz »

ASTE HONETAKO

zozketak



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elxalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



Txuri-Urdin izotz jauregia

2 harpidedunentzat
launa sarrera opari

Anoetako pasealekua, 24
Donostia GIPUZKOA

www.eltxuri.com

2



Urki txakolina

Txakolindegira bisitaldia
10 laguneko taldearentzat

Askizu Auzoa
Getaria GIPUZKOA

www.urkitxakolina.com

3



Esne beltza noa Kaotiko Reacciona!!! Ze esatek

4 CD sorta opari

Baga Biga
www.baga-biga.com

4



Kirolaz Badakit

3 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2239. Argia)

ONDARRE

- Itziar Unanue Unanue (Zarautz)

TARPOON

- Jesus Ondarra Erdozia (Iruñea)
- Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)

GAUAREN SAKONEAN

- Karlos Ibarguren Olalde (Oñartzun)
- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)

EUSKAL MUSEOA

- Teresa Alonso Herreros (Gasteiz)
- Maripi Laskurain Iturbe (Bergara)
- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)
- Inazio Usarralde Arantzadi (Lazkao)

AQUARIUM

- Maritxu Uria Agirre (Zarautz)
- Kandido Agirrebalzategi Kortabarria (Deba)
- Miren Abalde Alzuart (Donostia)
- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)

PARTE HARTZEKO

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

Astekari honetan iragarri ditugun zozketetan parte hartzeko aukera, abuztuaren 26 arte luzatuko dugu, udako oporraldia dela eta. Eskaerak internet bidez bakarrik egin ahalko dituzue: gunea@argia.com posta elektronikora mezu bat bidaliz edo www.argia.com/gunea kanalaren bitartez.

Asteburua opari!

Harpidedun,
Harpide berri bat ekartzen baduzu,
ondorengo nekazal etxe edo hotel
batean bi lagunentzako asteburua
oparituko dizugu:

- Atxurra Hotela **BERMEO**
- Zumalabe Hotela **MUTRIKU**
- Gametxo Hotela **IBARRANGELU**
- Oxangoiti Hotela Jauregia **LEKEITIO**
- Ellauri Hotela **ZEANURI**
- Guikuri Nekazal Turismoa **MURUA**
- Atxaspi Hotela **LESAKA**
- Saiaz Hotela **GETARIA**



Eta **harpide berriarentzat** ere
ARGIAko 2Gb-ko MP3 irakurgailu/pendrive
esklusiboa
opari!



943 371 545



gunea@argia.com



www.argia.com/argialagunentzat.php